



Basque

IRAKASLEEN GIDA

Hausnartutako Osasun Erabakiak

Informed Health Choices

Izenburua: Irakasleen gida. Hausnartutako Osasun Erabakiak: Tratamenduen aurrean gogoeta egiten ikasi. Lehen hezkuntzako haurrentzako osasun-zientziei buruzko liburua.

Egileak: Matthew Oxman¹, Sarah Rosenbaum¹, Allen Nsangi², Daniel Semakula², Angela Morelli¹, Astrid Austvoll-Dahlgren¹, Andrew D. Oxman¹, Nelson K. Sewankambo², Margaret Kaseje³, Laetitia Nyirazinyoye⁴, Claire Glenton¹, Simon Lewin¹

Diseinua: Angela Morelli, Sarah Rosenbaum

Ilustrazioak: Sarah Rosenbaum, Miriam Grønli

Argazkia: Matthew Oxman, Sarah Rosenbaum, Daniel Semakula

Argitaletxea: Norvegiako Osasun Publikoaren Institutua

ISBN: 978-82-8406-218-1 (978-82-8406-217-4: bertsio digitala)

Data: 2020ko martxoa

Erreferentzia: The Informed Health Choices Group. Irakasleen gida. Hausnartutako Osasun Erabakiak: tratamenduen aurrean gogoeta egiten ikasi. Lehen hezkuntzako haurrentzako osasun-zientziei buruzko liburua. (Original title: Teachers' Guide for The Health Choices Book: Learning to think carefully about treatments. A health science book for primary school children. 2016). The Informed Health Choices Groupek euskarara itzulia. Oslo: Norvegiako Osasun Publikoaren Institutua; 2020.

Itzulpena eta edizioa euskaraz: Koordinatzaileak: Jose Ignacio Emparanza, Iratxe Urreta, Eukene Ansuategi, Marimar Ubeda (Donostialdea ESI) Itzulpenak: Lourdes Larrañaga (Gipuzkoako Hezkuntza Lurralde Ordezkaritza); Ander Zuloaga, Irene Gil eta Raket Fariñas (Donostialdea ESI); Elhuyar Fundazioa.

Esker ona

Egitasmo hau Donostialdea ESIaren finantzazioari esker egin ahal izan da. Euskarazko edizioaren taldeak ikerketa hau onartu izana eskertzen dio Eusko Jaurlaritzaren Gipuzkoako Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzari.

Eskerrik asko Amara Berri Eskola Publikoa (Donostia) eta Ginzuri Ikastetxeetako (Urretxu-Zumarraga) irakasleei ekintza honetan erakutsi duten interesagatik eta parte-hartzeagatik.

¹ Global Health Unit, Norwegian Institute of Public Health, Oslo, Norway

² College of Health Sciences· Makerere University Kampala· Uganda

³ Great Lakes University of Kisumu, Kenya

⁴ School of Public Health, College of Medicine and Health Sciences, University of Rwanda, Kigali

Liburu hau Informed Health Choices proiektuaren zati gisa idatzi da (www.informedhealthchoices.org) Norvegiako Ikerketa Kontseiluaren laguntzaz (Proiektu zk.: 220603/H10). Finantzatzaileak ez du parte hartu ez edukiaren idazketan, ez azterketan, ez onespenean.

Liburu hau Creative Commons Atribución-NoComercial-CompartirIgual 4.0 Internacional baimenaren pean dago (<https://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/4.0/>). Baimenduta dago liburu honen erabilera ez komertziala, banaketa eta erreproduzko mugatua, baldin eta iturria behar bezala aipatzen bada.

Liburu hau hobetzeko edozein ohar ongi etorria izango da.

Arren, zuzendu helbide honetara: contact@informedhealthchoices.org

IRAKASLEEN GIDA

Hausnartutako Osasun Erabakiak

Gida honen inguruan

Etengabe entzuten ditugu guztiok osasunerako ona denari eta txarra denari buruzko baieztapenak. Osasuna zaintzearen inguruko erabaki egokiak hartu ahal izateko, baieztapen horien fidagarritasuna baloratzeko gai izan behar dugu. Horretan laguntzeko, *Informed Health Choices*, IHC, (Hausnartutako Osasun Erabakiak, euskaraz) baliabide didaktikoak sortu ditugu lehen hezkuntzako haurrentzat.

Baliabide horietan jasotzen dira irakasleentzako gida hau, haurrentzako testuliburuak eta ariketa-liburu bat. Testuliburuak komikiak, ariketak eta gelako jarduerak egiteko jarraibideak ditu. 10 urte edo gehiago dituzten haurrentzat egin da. Baliabide horiek baliabide-sorta didaktiko bateko lehenengoak dira, zeinek aukera ematen baitute osasunaren inguruko baieztapenen fidagarritasuna baloratzeko eta informazioan oinarritutako erabakiak hartzeko.

2014tik 2016ra aritu gara baliabide horiek lantzen, betiere pertsonetan oinarritutako ikuspegi batetik. Ikuspegi horrekin bat etorritz, azken erabiltzaileek diseinu- prozesuan (prototipoen ekoizpena, erabiltzaileekiko probak eta hasierako ikerketak) parte hartzen dute. Ugandan, Kenian, Ruandan eta Norvegian probatu ditugu baliabideak. Jaso ditugun iritzien arabera, haur eta irakasleen ustez, baliabide horiek erabilgarriak dira.

Ebaluatu dugu baliabideen bertsio honek zenbateraino hobetzen duen hurrek tratamenduei buruzko baieztapenak ebaluatzeko duten gaitasuna. Konparaketa zuzen batean, Ugandako 100 eskola baino gehiagoren erdiak aukeratu genituen, ausaz, baliabide didaktikoak jaso zituzten. Neurtu genuen hurrek zer gaitasun zuten tratamenduak ebaluatzeko Hausnartutako Osasun Erabakiak liburuaren bederatzik ikasgaiak amaitu ostean. Gero, haur horien puntuazioak eta baliabideak erabili ez zituzten eskoletako hurren puntuazioak konparatu genituen. Ikusi genuenez, baliabideak jaso zituzten eskoletako hurrengan asko hobetu zen tratamenduei buruzko baieztapenak ebaluatzeko gaitasuna, baliabideak jaso ez zituzten eskoletako hurren aldean.

Gure webgunean duzu baliabide horiei eta proiektuari buruzko informazio gehiago: www.informedhealthchoices.org.

Baliabide horiek hobetzeko edozein ohar ongi etorria izango da. Arren, zuzendu helbide honetara: contact@informedhealthchoices.org.

¹ The Informed Healthcare Choices Group. Hausnartutako Osasun Erabakiak: Tratamenduen aurrean gogoeta egiten ikasi. Lehen hezkuntzako haurrentzako osasun-zientziei buruzko liburuak. Oslo: Norvegiako Osasun Publikoaren Institutua; 2016.



Eskola bateko irakasleak, 100 bat haurrek baliabideak probatu zituzten gela batean. Uganda, 2016ko martxoan.

Irakasle preziatua,
Zorionak eta eskerrik asko halako funtzio garrantzitsua betetzeagatik aparteko proiektu zoragarri honetan!

AURKIBIDEA

SARRERA 9. or.

1. IKASGAIA

Osasuna, tratamenduak eta efektuak 23. or.

2. IKASGAIA

Tratamendu bat erabili duen pertsona baten esperientzian oinarritutako baieztapenak .. 55.or.

3. IKASGAIA

Tratamenduei buruzko baieztapenen beste oinarri desegoki batzuk (1. atala) 87. or.

4. IKASGAIA

Tratamenduei buruzko baieztapenen beste oinarri desegoki batzuk (2. atala) 113. or.

5. IKASGAIA

Tratamenduen arteko konparaketak..... 143. or.

6. IKASGAIA

Tratamenduen arteko konparaketa zuzenak 173. or.

7. IKASGAIA

Pertsona askoren arteko konparaketa zuzenak..... 207. or.

8. IKASGAIA

Tratamendu baten abantailak eta desabantailak..... 245. or.

9. IKASGAIA

Zer gogoratu behar duzu? 275. or.

GLOSARIOA..... 309. or.

HIRUHILEKOKO PROGRAMA

Gomendatzen dizugu hiruhilekoa hasi baino lehen goiz bat edo arratsalde bat ematea:

- Programa honetako datak osatzen
- Haurren testuliburua irakurtzen
- Gida honetako sarrera irakurtzen

Ikasgaia	Gidako orrialdea	Prestaketa	Gela
 1	23. or.	20 min Data:	80 min Data:
 2	55. or.	20 min Data:	80 min Data:
 3	87. or.	20 min Data:	80 min Data:
 4	113. or.	20 min Data:	80 min Data:
 5	143. or.	20 min Data:	80 min Data:
 6	173. or.	20 min Data:	80 min Data:
 7	207. or.	20 min Data:	80 min Data:
 8	245. or.	20 min Data:	80 min Data:
 9	275. or.	20 min Data:	80 min Data:
Baieztapenen ebaluazioa		15 min Data:	90 min Data:



Daniel Semakula doktoea, proiektu-taldeko kidea, hurrekin hizketan, Uganda, 2016ko urtarrila.

SARRERA

SARRERA

Zeri buruzkoa da proiektu hau? Zergatik da garrantzitsua?	10. or.
Proiektu hau zergatik da garrantzitsua haurrentzat?	12. or.
Nork sortu ditu baliabide hauek, eta nola landu dira?	13. or.
Zein dira baliabideak?	14. or.
Zein da baliabide hauek erabiltzeko modurik onena?	18. or.
Baieztapenen ebaluazioa	20. or.

1. Zeri buruzkoa da proiektu hau? Zergatik da garrantzitsua?

Pertsoneri, tratamenduei buruz hausnartu ondoren, osasunerako erabaki hobeak hartzen laguntzeari buruzkoa da proiektu hau. “Pertsona bati arrain bat emanda egun baterako elikatuko duzu. Irakatsi arrantzan eta bizitza guztirako elikatuko duzu”. Atsotitz ezaguna da hori. Esan nahi du hobe dela pertsona bati bere kabuz zerbait egiten irakastea, haren ordezkari geuk egitea baino.

Pertsoneri tratamenduen inguruan zer erabaki hartu behar duten esaten diete proiektu askok. Proiektu horiek erantzunak bakarrik ematen dizkiete pertsoneri. 'Hausnartutako osasun-erabakiak' proiektuaren oinarria da edozein pertsonak, bere kabuz gogoeta eginda, tratamenduei buruzko erabaki egokiak har ditzakeela. Tratamendu baten inguruan hausnartzeko, galderak egin behar dira. Zer galdera egin eta galdera horiek zergatik egin, horretan zentratzen da proiektu hau.

Jendeak “tratamenduaz” hitz egiten duenean, gehienetan sendagaiei buruz ari dira. Proiektu honetan, ordea, “tratamendu” bat da osasun ona izateko edo daukaguna hobetzeko egiten dugun edozer gauza. Horrenbestez, tratamenduak dira, besteak beste, sendagai bat hartzea, ebakuntza bat egitea, ekipamendu medikoak erabiltzea, ariketa fisikoa egitea, zerbait jan edo edatea eta zerbait saihestea.

Tratamenduen inguruko hiru galdera-mota daude:

- Tratamenduei buruzko baieztapenen inguruko galderak
- Tratamenduen arteko konparaketen inguruko galderak
- Osasuna zaintzeko erabakiei buruzko galderak

Tratamenduen arteko konparaketen inguruko galderak

Tratamendu gehienek efektu onak eta txarrak dituzte. Badira oso efektu ziurak dituzten tratamenduak. Adibidez, ziur egon gaitezke intsektizidadun eltxo-sare batez babestuta lo egiteak malaria saihesten duela. Ezin gara ziur egon beste zenbait tratamenduren efektuez. Esate baterako, ezin gara ziur egon sendagai berri askoren efektuez, ikertzaileek ez dituztelako zehaztasunez ikertu.

Osasun-ikertzaileek tratamenduak ikertzen dituztenean hautematen dutenak erabaki hobeak hartzen lagundu diezaguke. Osasun-ikertzaileek arretaz ikertu behar dute tratamendu bakoitza, beste tratamendu batekin konparatuta, edo tratamendurik ez erabiltzearekin konparatuta. Pertsona-talde handi bati eman behar diote tratamendu bat, eta beste talde handi bati beste tratamendua, edo batere tratamendurik ez. Gero, talde bakoitzeko pertsoneri zer gertatzen zaien konparatu behar dute.

Talde bakoitzeko pertsonak beste taldeetako pertsonen antzekoak izan behar dute. Bestela, osasunaren arloko ikertzaileek hautematen dutena pertsonen arteko desberdintasunen ondorio izan daiteke, ez tratamenduen arteko desberdintasunen ondorio. Beraz, taldeetako pertsonak ez badira antzekoak, konparaketa ez litzateke justua izango. Konparaketa bat ez bada justua, nahasi egin gaitzake. Osasun- ikertzaileek egiten dituzten konparaketei buruzko galderak egitean, konparaketa okerrekin ez gaituzte nahasiko, eta erabaki hobeak hartzeko gai izango gara.

Osasuna zaintzeko erabakiei buruzko galderak

Tratamendu bat erabili ala ez erabakitzen ari zarenean, arretaz pentsatu behar duzu zer den garrantzitsuena zuretzat. Tratamendu gehienek efektu onak eta txarrak dituzte, eta abantaila eta desabantailak ere bai. Adibidez, tratamendu batzuk oso merkeak edo doakoak dira, eta hori abantaila bat da. Beste tratamendu batzuk oso garestiak dira, eta hori desabantaila bat da. Zuretzat garrantzitsuena dena ez da beti garrantzitsuena beste pertsona batzuentzat. Osasuna zaintzeko erabakiei buruzko galderak eginda, zuretzako erabaki egokiak har ditzakezu.

2. Proiektu hau zergatik da garrantzitsua haurrentzat?

Gurasoek, medikuek eta beste heldu batzuek hartzen dituzte ia beti haurren tratamenduei buruzko erabakiak. Esate baterako, gehienetan haurrek ez dute erabakitzen (eta hala behar du) ebakuntza bat egingo zaien ala ez. Baina haurrek hartzen dituzte tratamenduei buruzko erabaki batzuk. Esate baterako, zer jan eta zer edan erabakitzen dute, eta nola egin ariketa fisikoa. Eta haurrak ere, helduak bezala, nahasita egon daitezke tratamenduei buruzko baieztapen okerren ondorioz.

Haurrei erabaki onak hartzen irakastea funtsezkoa da hezkuntzan, eta, bereziki, osasunaren arloko hezkuntzan. Haurrak hazi egingo dira, eta, denborarekin, beren erabakiak hartuko dituzte osasuna zaintzearen inguruan. Haurrentzat garrantzitsua da erabaki horiek hartzeko gai izatea. Proiektu honetan ari garen ikertzaileok, eta beste ikertzaile batzuek ere, antzeman dugu 10 urteko haurrak gai direla baieztapen, konparaketa eta erabakiei buruzko galderak nola egin eta nola erantzun ikasten hasteko.

Haurrek baliabide hauetatik ikas dezaketena funtsezkoa da zientzia guztietarako, ez osasun-zientzietarako bakarrik. Garrantzitsua da hainbat erabaki-mota hartzeko, ez tratamenduei buruzko erabakietarako bakarrik. Haurrek beren osasunari buruz duten interesa aprobeitza dezakegu osasunaren ikuspegitik hezteko. Adin guztietako pertsona askok dute gogoia beren osasuna zaintzen ikasteko. Ikusi dugunez, haurrek ere interesa dute gure osasunerako zer den ona eta zer txarra ziur jakiten ikasteko.

Helduek tratamenduei buruzko erabakien inguruko aholkuak eskatu behar dizkiete medikuei eta gainerako osasun-profesionalei. Hala ere, osasunaren profesional baten aholku bat jasotzen denean, beti da egokia tratamenduari buruzko galderak egitea; berdin dio haurra ala heldua zaren. Hala, zuk eta osasunaren profesionalek zuretzako erabaki hobeak hartuko dituzue.

3. Nork sortu ditu baliabide hauek, eta nola landu dira?

Baliabide hauek sortu ditugunok Ugandan, Kenian, Ruandan, Norvegiar eta Ingalaterran aritzen gara osasun-ikertzaile eta diseinatzaile-lanetan. Proiektuaren hasieran, Ugandako irakasle-sare batekin elkartu ginen. Baliabide hauetako ikasgaiak haurrei ondoen irakasteko moduaren inguruko aholkuak eman zizkiguten irakasleek. Ideia asko sortu zitzaizkigun, eta Ugandako eta Norvegiako haur eta irakasleekin probatu genituen. Liburua eta gida egiteko erabakia hartu ostean, baliabideen lehenengo bertsio bat egin genuen, bi ikasgaitarako bakarrik. Gero, bi bertsio oso egin genituen.

Bertsio bakoitza bi modutan probatu genuen. Lehenenik eta behin, baliabideak banatu genituen geletan, eta behatu genuen irakasle eta haurrek nola erabiltzen zituzten. Bigarrenik, baliabideekin izan zuten esperientziari buruzko elkarrizketak egin genizkien haur eta irakasleei. Halako probak egin genituen Ugandan, Kenian, Ruandan eta Norvegiar, dozenaka irakaslerekin eta ehunka haurrekin. Baliabideak hobetzeko erabili genuen probetan hauteman genuena, eta, emaitza gisa, hirugarren bertsio osatu bat egin genuen. Entsegu ausazkotu batean probatu genuen hirugarren bertsioa, eta ikusi genuen haurrek tratamenduei buruzko baieztapenak ebaluatzeko duten gaitasuna hobetzen dutela.

4. Zein dira baliabideak?

Hauek dira 'Hausnartutako Osasun Erabakiak' proiektuko baliabide didaktikoak:

IRAKASLEAREN GIDA




Ikasgai guztiei buruzko gida bat, irakasleentzat

HAURREN TESTULIBURUA




Testuliburu bat, jardueretarako istorio batekin eta jarraibideekin, haurrentzat

HAURRENTZAKO ARIKETA-LIBURUA




Ariketak dituen liburu bat, haurrentzat

BESTE BALIABIDE BATZUK:



Test bat, haurrentzat



Ebaluazio-orri bat ikasgai bakoitzeko, irakasleentzat



7. ikasgaiko jarduerarako lamina batzuk, irakasleentzat

Irakasleen gida

Bederatzi ikasgaiak lantzen laguntzeko pentsatuta dago gida hau. Jarraian azaltzen diren atalak errepikatzen dira ikasgai guztietan, ikasgaia prestatzen eta ematen laguntzeko:

- **Helburuak**
- **Prestaketa**
- **Ikasgaia**
 1. urratsa: Aurreko ikasgaia erreparasatzea
 2. urratsa: Ozen irakurtzea
 3. urratsa: Eztabaidatzea
 4. urratsa: Jarduera gidatzea
 5. urratsa: Ariketak gidatzea
 6. urratsa: Ikasgaiko Ebaluazio-orria betetzea
- **Ikasgaiko informazioa irakasleentzat**

Haurren testuliburuko orrialde guztiak daude gida honetan. Hau da, haurrek ikusten duten guztia eta gauza gehiago ikus ditzakezu. Gidak eta liburuak ez dituzte orrialde-zenbaki berdinak. Gidako orrialde-erreferentziak gidako zenbakiei dagozkie, betiere ez bada bestelakorik adierazten. Gidako orrialde-zenbakia orriaren behealdean dago beti, letra txikiz. Testuliburuko orrialde batzuen behealdean zuretzako ohar batzuk daude, gorri idatzita. Orrialde horiek gelan irakurtzen zaudenerako balio dute ohar horiek. Beharrezkotzat jo dugunean bakarrik jarri ditugu oharrak. Orri gehienetan behealdea hutsik dago, eta zure oharrak egiteko erabil dezakezu.

Gida honen bukaeran glosario bat dago. Istorioan ez dauden definizio batzuk ere badaude glosarioan, adibidez, “nahastu”ren definizioa. Testuliburuan, terminoen definizio sinplifikatuak daude, haurrek errazago uler ditzaten. Gidan, haurrentzako definizio sinplifikatuak eta irakasleentzako definizio zehatzagoak jasotzen dira. Saiatu gara testuliburuan ahalik eta hitz ezezagun gutxien erabiltzen.

Kontuan izan termino batzuek osasunaren arloko ikerketan duten esanahia ez dela jendearen eguneroko bizitzan dutena. Esate baterako, osasunaren ikerketan, “aztertu” aditzak esan nahi du zerbait arreta handiz behatzea, hari buruzko gauza gehiago aurkitzeko, adibidez, tratamendu bat. Osasunaren ikerketaren testuingurutik kanpo, “aztertu” hitzak beste esanahi batzuk ere izan ditzake, adibidez, zerbait probatzea.

Haurren testuliburua

Berrerabiltzeko pentsatuta dago haurren testuliburua; beraz, haurrek ez dute idatzi behar testuliburuetan.

Istoria: Testuliburuaren zati nagusia istorio bat da. Istorio horren bidez, haurrei erakusten zaie ikasgaiaren helburuak erlazionatuta daudela beren eguneroko bizitzarekin. Hala, liburua entretenigarriagoa eta gogoratzen errazagoa da. Istorioa komiki bat da. Irudi erakargarriak egin nahi izan ditugu, irakurtzeko zailtasunak dituzten haurrek errazago irakur ditzaten istorioak.

2. ikasgaiaren hasten da istorioa, eta 8.ean bukatu. Tratamenduei buruzko hiru galderamoten arabera banatuta dago:

- 2., 3. eta 4. ikasgaietan, tratamenduei buruzko baieztapenekin erlazionatutako galderak lantzen dira istorioan.
- 5., 6. eta 7. ikasgaietan, tratamenduen arteko konparaketekin erlazionatutako galderak lantzen dira istorioan.
- 8. ikasgaietan, tratamenduei buruzko erabakiekin erlazionatutako galderak lantzen dira istorioan.
- 1. ikasgaia liburuaren sarrera da. 9. ikasgaia liburuko garrantzitsuena biltzen duen berrikusketa da.

1. ikasgaia da errazena. Erraza izateko pentsatuta dago; hala, haur guztiek ulertuko dute zeri buruzkoak diren ikasgaiak oro har eta zergatik diren garrantzitsuak. Ikasgaietan gero eta erronka handiagoak izango dituzte. 5., 6. eta 7. ikasgaiak dira zailenak. Osasun-ikertzaileen lanari buruzkoak dira, eta lan hori ezezaguna da haurrentzat. Hala ere, baliabideak landu ditugunez, badakigu haurrak ikasgai horietako edukiak ikasteko gai direla.

Liburuko adibide batzuk ez dira errealak. Esate baterako, 6. eta 7. ikasgaietan, istorioko pertsonaiek jakin nahi dute ea korrika egin aurretik zukua edateak pertsona gehiagori eragiten ote dien sabeleko mina ura edaten dutenekin konparatuta. Egia izan zitekeen, baina osasunaren arloko ikertzaileek oraindik ez dute egin hori frogatzeko konparaketa zuzenik. Adibide hori erabili dugu haurrek errazago uler dezaten ikasgaia.

Pertsonaiak: John eta Julie izeneko bi haurrei buruzkoa da istorioa. Anai-arrebak dira. Bi irakasle ezagutu dituzte: Konparaketa andrea eta Zuzena jauna. Irakasle horiek osasun-ikertzaileak dira. Irakasleek Konparaketa eta Zuzena izena dute haurrek errazago gogoratu dezaten osasun-ikertzaileek zer egin behar duten ziur egon gaitzen tratamenduen efektuei dagokienez: tratamenduak konparatu eta zuzenak izan haiek konparatzean.

Kasuku lora zenbait aldiz agertzen da. Kasukuk irudikatzen du pertsonak zer ez duten pentsatu behar tratamenduei buruz. Beste pertsona batzuek esaten dutena errepikatzen du Kasukuk, galderarik egin gabe. Kasuku erabili da istorioa haurrentzat entretenigarriagoa egiteko. Kasuku ez da sortu errealista izateko.

Argumentua: John eta Julie anai-arreben etxean hasten da istorioa. Johni hatza erre zaio. Erreduran behi-gorotza jartzea erabaki du, Kasukuk eta Julie Sarahri (Julieren lagun bat) entzun dioten zerbaitengatik. Hatza gaiztotu zaio, eta amak klinikara bidali ditu Julie eta John. Klinikari Zuzena irakaslea eta Konparaketa irakaslea ezagutu dituzte, eta Sarahk esandakoaren arazoa azaldu diete. Irakasleek datozen asteetan John eta Julie anai-arrebei irakasgai garrantzitsu batzuk irakastea onartu dute. Hainbat tokitan elkartzen dira, hainbat adibide erabiltzen dituzte, eta jende askoren laguntza dute. Istorioaren amaieran, 8. ikasgaiari, Johnek eta Juliekin belarriko infekzioa dute. Ikasi dutena aplikatuko dute beren kabuz erabaki egokiak hartzeko.

Galderak eta adibideak: Ikasgai batzuetan, eztabaidatzeko galdera batzuk daude istorioan zehar, eta adibide gehigarri batzuk ere bai istorioan zehar eta hura bukatu ondoren.

Jarduerak: Haur guztiek aktiboki parte hartzeko daude pentsatuta jarduerak. Hurrek ikasgai bakoitzean ikasten dutena argitu eta indartzeko daude pentsatuta jarduerak. Jarduerak sinpleak direnez, 100 haur bitarteko geletan egiteko aukera ematen dute.

Ariketak: Hurrek ikasgai bakoitzean ikasten dutena argitu eta indartzeko daude pentsatuta ariketak ere. Gainera, irakaslea zarenez, lagungarri izango zaizkizu jakiteko zer motatako laguntza eta zenbat laguntza behar duen haur bakoitzak.

Oroitzeko zerrenda: 9. ikasgaiari, liburuko eduki garrantzitsuenak biltzen dituen zerrenda bat dago, hau da, gogoratu beharrekoaren zerrenda bat. Ariketa-liburuaren amaieran ere jasotzen da zerrenda.

Ariketa-liburua

Ikasgai bakoitzari buruzko ariketak jasotzen dituen ariketa-liburu bat dago, hurrek banaka egin ditzaten.

Beste baliabide batzuk

Baieztapenen ebaluazioa test bat da. Testak balioko dizu hurrek baliabideekin ikasten ote duten jakiteko, eta hurrei nota jartzeko. Ikasgaiko ebaluazio-orria galdetegi bat da, zuk ebalua dezazun ikasgai bakoitza. Azkenik, 7. ikasgaiari, bi lamina-sorta daude jarduerari bakoitzarako.

5. Zein da baliabide hauek erabiltzeko modurik onena?

Gomendioak

Baliabideekin egin ditugun probetan oinarrituta, zenbait gomendio ditugu denbora aurrezteko, hurrei helburuak lortzen laguntzeko, eta ikasgaiak zuretzat eta haurrentzat entretenigarriagoak izateko.

Ezarri denbora-tarte bat ikasgaiak prestatzeko.

7. orrialdean daude hiruhilekoko programan gomendatzen diren denbora-tarteak.

Utzi hurrei liburua irakurtzen denbora librean. Gelan guztion artean ikasgaia irakurtzeko lana osatzen du horrek.

Ez eman denbora asko adibide bati.

Liburuan adibide asko daude, eta guztien berri jakin nahiko dute hurrek. Baina adibideak ez dira garrantzitsuena. Garrantzitsuena da adibideak zeri buruzkoak diren. Esate baterako, behi-gorotzak erredurak sendatzen dituela dioen baieztapenaren ingurukoa da 2. ikasgaiko istorioa. Garrantzitsuena ez da baieztapen hori okerra dela. Garrantzitsuena da halako baieztapenak zergatik ez diren fidagarriak.

Animatu haurrak bere kabuz pentsatzera.

Askotan, erantzun zuzenak buruz ikasteko eskatzen zaie hurrei eskolan. Esate baterako, historian, zerbaiten data buruz ikasteko eskatzen zaie. Ikasgai hauetan, suposatzen da hurrek ikasi behar dutela zer galdera egin behar dituzten, beren kabuz jakiteko baieztapen bat fidagarria den ala ez. Gainera, beste pertsona batzuek egiten dutena ere irakasten da sarritan eskolan. Ikasgai hauetan, garrantzitsua da hurrek pentsatzea zer egin duten eta zer egingo duten.

Adi egon zuk edo hurren batek tratamendu baten efektuei buruzko baieztapen bat egiten duenean.

Jende guztiak egiten ditu tratamenduen efektuei buruz fidagarritasun gutxiko baieztapenak. Guztiok egiten ditugu, haur eta helduek, barne direla irakasleak, gurasoak, medikuak eta osasun-ikertzaileak; eta geuk ere, baliabide hauek landu ditugunok, egiten ditugu halako baieztapenak. Ikasgai hauek lantzen ari zarenean, garrantzitsua da ohartzea zuk edo hurren batek noiz egiten duen tratamendu baten efektuei buruzko baieztapen bat.

Garrantzitsua da, halaber, haurrak ere ohartzen direla ziurtatzea. Hala, hurrek ulertuko dute ikasten ari direna zergatik den garrantzitsua eguneroko bizitzarako, eta ikasten dutena aplikatzen hasiko dira. Tratamendu bat erabiltzea erabakitzen badugu, onena da oso ziur egotea dituen efektuei buruz.

Zoritxarrez, askotan ezin dugu ziur jakin zer gertatuko den. Hala ere, garrantzitsua da jakitea zer neurritan egon gaitzkeen seguru. Bestela esanda, hobe da pentsatzea ezin dugula oso seguru egon efektuei buruz, seguru egon ezin eta oso seguru egon gaitzkeela pentsatu beharrean.

Adibidez, ebakuntza bat egin ala ez erabakitzen ari bazara, garrantzitsua da jakitea zenbateraino egon zaitzkeen seguru ebakuntza horren efektuei buruz. Nahastuta bazaude eta pentsatzen baduzu oso ziur zaudela ebakuntza erabat segurua dela, erabaki oker bat har dezakezu. Era berean, nahasita bazaude eta ebakuntza arriskutsua dela uste baduzu ere erabaki oker bat har dezakezu.

Baina ebakuntzaren efektuei buruz oso ziur ezin zarela egon baldin badakizu, modu batera ala bestera, gutxienez zeure buruari galde diezaiokezu zenbaterainoko garrantzia duten zuretzat ebakuntzak izan ditzakeen efektu positiboek, eta zenbaterainoko garrantzia duten efektu negatiboek. Hala, ez zara egongo nahasita, eta prestatuago egongo zara gertatzen denerako.

Aukerak eta egokitzapenak

Irakasle bakoitza eta gela bakoitza desberdinak dira. Irakurketa, jarduera eta ariketak hainbat modutan egin daitezke. Zuri eta gelari ondoen egokitzen zaizkionak aukeratu behar dituzu. Dena den, ziurtatu baliabideetako adibideetan zentratzen zarela eta ikasgaietako urrats guztiak egiten dituzula.

Irakurketa

Gelan liburua irakurtzen ari zaretenean, eten irakurketa zerbait azaltzeko (adibidez, hitz bat) beharrezkoa dela iruditzen zaizunean.

Hainbat modu daude gelan irakurtzeko, esate baterako:

- Haur banak irakurtzea pertsonaia bakoitzak esaten duena (rol-jokoa)
- Haur batek gainerakoei irakurtzea, txandaka
- Gela guztiak batera irakurtzea
- Zuk irakurtzea gela guztiari

Bestela, aukerak txandakatu ditzakezu.

Gida honetan, gutxitan daude arbela erabiltzeko jarraibideak, baina horrek ez du esan nahi gainerakoetan erabili behar ez duzunik. Esate baterako, gako-hitzak idatz ditzakezu arbelean.

Ariketa eta jarduerak

Nahiago baduzu, hurrei esan diezaiekezu ariketak banaka egiteko lehenengo, eta gero gela osoaren artean egin ditzakezue; edo, bestela, etxeko lan gisa egiteko esan diezaiekezu, edo taldeka egiteko.

Zenbait modu daude ariketak zuzentzeko:

- Zuk ariketak gidatzea ikasgaiak dirauen artean
- Zuk ariketak gidatzea ikasgaia bukatu ondoren
- Zuk erantzun zuzenak arbelean idaztea, eta hurrek beren erantzunak zuzentzea
- Zuk erantzun zuzenak arbelean idaztea, eta hurrek, liburuak trukatu ondoren, elkarri zuzentzea erantzunak
- Zuk erantzunak ematea haur-talde bati, eta haiek zuzentzea liburu guztiak

Ziurtatu erantzun zuzenak azaltzen dizkiezula hurrei, hori da garrantzitsuena.

6. Baieztapenen ebaluazioa

Erantzun anizkuneko galdera batzuk prestatu ditugu, zeinak erabil baitaitezke ebaluatzeko zenbaterainoko gaitasuna duten pertsonak 'Hausnartutako osasunerabakiak' proiektuko gako-kontzeptuak aplikatzeko.


24 galdera aukeratu ditugu ebaluatzeko zenbaterainoko gaitasuna duten hurrek haurren testuliburuan lantzen diren 12 gako-kontzeptuak aplikatzeko (bi galdera gako-kontzeptu bakoitzeko). Gainera, nahiko adierazten duen puntuazioa (kontzeptuen eta haiek aplikatzeko moduari buruzko oinarritzko jakintza) eta menderatzea adierazten duen puntuazioa (kontzeptuen eta haiek aplikatzeko moduari buruzko ezagutza argia) definitu ditugu. Test hori erabil dezakezu zure ikasgelako haurrak ebaluatzeko, ikasgaiak amaitzen dituzuenean.

Jarri gurekin harremanetan hurrek lehen hezkuntzarako Hausnartutako osasunerabakiak proiektuko baliabide didaktikoetako 12 gako-kontzeptuak aplikatzeko duten gaitasuna ebaluatzeko testa jaso nahi baduzu. Arren, zuzendu helbide honetara: contact@informedhealthchoices.org.



Nazioarteko eskola bateko haurrak baliabideen hirugarren bertsioa probatzen, Norvegia, 2015eko urria.

Eskertzen dugu proiektu honetan parte hartu izana. Ongi etorriak izango dira zure galderak eta iradokizunak. Espero dugu zuk eta hurrek ongi pasatzea eta baliabideak erabiltzen ikastea!



Irakasle bat gida honen bertsio osoa erabiltzen, Uganda, 2016ko urtarrila.

1.

IKASGAIA

**Osasuna, tratamenduak
eta efektuak**

1. IKASGAIA

Osasuna, tratamenduak eta efektuak

Ikasgai hau prestatu eta emateko behar duzuna:

Helburuak	25. or.
Prestaketa	25. or.
Ikasgaia	26. or.
1. urratsa: Aurreko ikasgaia errepasatzea	27. or.
2. urratsa: Ozen irakurtzea	28. or.
3. urratsa: Eztabaidatzea	46. or.
4. urratsa: Jarduera gidatzea	48. or.
5. urratsa: Ariketak gidatzea	50. or.
6. urratsa: Ikasgaiko Ebaluazio-orria betetzea	52. or.
Ikasgaiko informazioa irakasleentzat	53. or.

Helburuak

Zer ikasi behar duten haurrek ikasgai honetan:

- Zer da osasuna?
- Zer da tratamendua?
- Zer da tratamendu baten efektua?
- Zer da osasun-ikertzaile bat?
- Zer lantzen da liburu honetan?

Prestaketa (20 minutu)

Ikasgaiaren aurretik egin behar duzuna.

Aldez aurretik irakurri

- Irakurri testuliburuan ikasgai honi dagozkion orriak
- Irakurri gidan ikasgai honi dagozkion orriak

Bildu materialak

Ziurtatu honako hauek dituzula:

- Gida hau
- Ikasgaiko ebaluazio-orria
- Borragoma batzuk

Ziurtatu haur guztiek dituztela honako hauek:

- Testuliburuaren kopia bat
- Ariketa-liburua
- Arkatz bat edo boligrafo bat

Ikasgaia (80 minutu)

Jarraian, ikasgaia emateko plan bat proposatzen dizugu.

IRAKASLEA	HAURRAK	IRAUPENA
1. URRATSA Aurreko ikasgaia erreparasatzea		-
2. URRATSA Ozen irakurtzea		35 min
<ul style="list-style-type: none"> Gidatu liburu honetako 28. orrialdetik aurrera ozen irakurtzeko prozesua. <i>Ozen irakurtzeko moduak kontsultatzeko, begiratu gida honetako 19. orrialdea.</i>	<ul style="list-style-type: none"> Haurren testuliburua 4. orrialdean ireki, eta ozen irakurriko dute, adierazi zaien moduan. 	
ATSEDNA		5 min
3. URRATSA Eztabaidatzea		10 min
<ul style="list-style-type: none"> Has ezazu istorioari buruzko eztabaida bat, gida honetako 46. orrialdean azaltzen diren galderak erabiliz. 	<ul style="list-style-type: none"> Adierazi zaien moduan erantzungo dituzte galderak. 	
4. URRATSA Jarduera gidatzea		15 min
<ul style="list-style-type: none"> Zuzendu jarduera gida honetako 48. orrialdetik. 	<ul style="list-style-type: none"> Haurren testuliburua 22. orrialdean ireki, eta jarduera egingo dute adierazi zaien moduan. 	
5. URRATSA Ariketak gidatzea		10 min
<ul style="list-style-type: none"> Gidatu ariketak gida honetako 50. orrialdetik. Lagundu hurrei ariketak egiten, eta gidatu ariketak zuzentzeko prozesua. <i>Ariketak zuzentzeko moduak kontsultatzeko, begiratu gida honetako 20. orrialdea.</i>	<ul style="list-style-type: none"> Ariketa-liburua 6. orrialdean ireki, eta ariketak egingo dituzte. Ariketa-liburua 24. orrialdean ireki, eta ariketak kopiatu eta egingo dituzte. 	
6. URRATSA Ebaluazio-orria betetzea		5 min
<ul style="list-style-type: none"> Bete ikasgaiko ebaluazio-orria 		

Ez dago errepasorik, lehenengo ikasgaia baita.

Hitzaurrea

1

Osasuna, tratamenduak eta efektuak

Ikasgai honetan hau ikasiko duzu:

1. Zer da “osasuna”?
2. Zer da “tratamendu” bat?
3. Zer da “tratamendu baten efektua”?
4. Zer da “osasun-ikertzaile” bat?
5. Zer lantzen da liburu honetan?

Ikasgai honetako gako-hitzak:

- Zure **OSASUNAK** adierazten du zure gorputza eta burua ondo dauden.
- **TRATAMENDU** bat zure osasunaren alde egiten duzun zerbait da.
- Tratamendu baten **EFEKTUA** tratamendu horren eraginez gertatzen den zerbait da.
- **OSASUN-IKERTZAILEA** da osasunarekin lotutako alderdiak arreta handiz aztertzen dituen pertsona, aurkikuntzaren bat egiteko asmoz.

4

1. ikasgaia: Osasuna, tratamenduak eta efektuak

 Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

Osasuna

Zure osasuna garrantzitsua da.

Zure **osasunak** adierazten du zure gorputza eta burua ondo ote dauden. Gaixotasunik edo lesiorik ez baduzu, zure osasuna ona da. Aldiz, gaixotasunik edo lesiorik baduzu, zure osasuna txarra da.

Osasun ona duzunean, gauza gehiago egin ditzakezu: jolastu, ikasi, ondo lo egin...



OSASUN ONA



OSASUN TXARRA

Eztabaidatzeko:

Zer gaixotasun edo lesio izan duzu?

1. ikasgaia: Osasuna, tratamenduak eta efektuak

5

Tratamenduak

Tratamendu bat da zure osasunaren alde egiten duzun zerbait.

Jendeak “tratamenduaz” hitz egiten duenean, gehienetan sendagaiei buruz hitz egiten du. Liburu honetan, ordea, “tratamendu” bat da osasun ona izateko edo daukazuna hobetzeko egiten duzun edozer gauza. Tratamendu asko eta mota askotakoak daude.



Sendagai bat tratamendu-mota bat da. Adibidez, pilula bat hartzea, injekzioa jartzea edo pomada ematea tratamenduak dira.



Ebakuntza txiki bat ere tratamendu-mota bat da. Adibidez, txantxarra duen hortz bat kentzea tratamendua da.



Zenbait gauza erabiltzea tratamendu-mota bat da. Adibidez, makuluak, bendak edo hortzetako eskuila erabiltzea tratamenduak dira.

6


1. ikasgaia: Osasuna, tratamenduak eta efektuak

↓ Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

Ariketa fisikoa tratamendu-mota bat da. Adibidez, korrika egitea, saskibaloian jokatzea edo dantzan aritzea tratamenduak dira.



Jatea eta edatea tratamenduak dira. Adibidez, fruta edo barazkiak jatea, edo ura edatea tratamenduak dira.



Batzuetan *zerbait saihesten* dugu, gure osasunaren alde egiteko. Beraz, zerbait sahiestea tratamendu-mota bat da. Bestela esanda, zerbait **ez** egitea ere tratamendu-mota bat da. Adibidez, esnerik ez edatea tratamendu bat da. Batzuek ez dute esnerik edaten, alergia diotelako. Inork ezeri alergia badio, esan nahi du, hori hartuz gero, gaixotu egingo dela, baina ez zaigu denoi gertatzen.



Eztabaidatzeko:

Zer tratamendu egin duzu?

1. ikasgaia: Osasuna, tratamenduak eta efektuak

7

Tratamenduen efektuak

Tratamendu baten **efektua** tratamenduaren eraginez gertatzen den zerbait da.



Efektu ona izango da, osasun ona izaten edo daukazuna hobetzen laguntzen badizu. Hala nola: mina gutxitzea, gaixotasun bat sendatzea edo indar gehiago izatea.



Efektu txarra izango da, zure osasunak okerrera egiten badu. Hala nola: mina edo gaixotasun bat eragiten badizu, edo ahultzen bazaitu.

Tratamendu gehienek efektu onak eta txarrak izaten dituzte zure osasunerako. Adibidez, futboleak aritzeak efektu onak eta txarrak ditu.

Futbolean aritzea indarra eta kemena handitzen dizkizun tratamendua da. Efektu horiek onak dira.

Hala ere, batzuetan, futbolean ari zarenean, mina hartzen duzu. Efektu hori txarra da.



EFEKTU ONA



EFEKTU TXARRA

Efektu onak eta txarrak dituen beste tratamendu bat, ura edatea da. Ezbaduzu edateko nahiko ur edaten, ez duzu bizirik iraungo. Aldiz, edangarria ez den ura edo ur gehiegi edaten baduzu gaixotu egingo zara.


Eztabaidatzeko:

Beste zer tratamenduk dituzte efektu onak eta txarrak?
Zer efektu on eta txar dituzte tratamendu horiek?

1. ikasgaia: Osasuna, tratamenduak eta efektuak

9

Ez da erraza ulertzea zehazki nola funtzionatzen duten gure gorputzak eta buruak; izan ere, hainbat zeregin burutzen duten atal askoz osatuta daude.



ILLUSTRAZIOA: KARI C. TOVERUD CMI

10 1. ikasgaia: Osasuna, tratamenduak eta efektuak

↓ Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

Tratamendu askok gorputz-atal batean efektu ona eta beste batean txarra izaten dute.

Adibidez, pilula batzuk hartuz azkarrago desagertzen da buruko mina, baina pilula horiek sabeleko mina ere sor dezakete.



Gizakion gorputzak eta buruak desberdinak dira. Horregatik, askotan, tratamendu berak efektu desberdinak izaten ditu pertsona diferenteengan.

Hala nola, zenbait pertsonak betaurrekoekin hobeto ikusten dute, baina badira betaurrekoekin okerrago ikusten dutenak ere.



Oso tratamendu gutxi dute ia beti efektu bera. Esate baterako, zenbait sendagai hartuz, batzuetan azkarrago desagertzen da mina, baina ez beti.

Hori dela eta, oso garrantzitsua da ulertzea ezin dela inoiz erabat ziur egon tratamendu gehienek dituzten efektuez.

Zer lantzen da liburu honetan?

Izan badira oso efektu ziurrak dituzten tratamenduak.



Adibidez, oso ziur egon gaitzke eltxo-sare batez babestuta lo egiteak malaria sahiesten duela.



Ziur egon gaitzke eskuak garbitzeak sabeleko mina saihesten duela.



Eta oso ziur egon gaitzke zigarroak erretzeak pertsonak hiltzen dituela.

12 1. ikasgaia: Osasuna, tratamenduak eta efektuak

↓ Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

Ezin gara ziur egon beste zenbait tratamenduren efektuez.

Esate baterako, ezin dugu ziur egon sendagai berri askoren efektuez.

Gehienetan, berria izanda, oso pertsona gutxik probatuko zuen sendagaia. Horrela, beste pertsona gehiagok probatzen dutenean, ordurarte ikusi ez diren efektuak izan ditzakete.

Eta urte asko igaro daitezke sendagaiaren efektuak antzeman arte.



1. ikasgaia: Osasuna, tratamenduak eta efektuak

13

 Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

Adibidea: Sendagai batzuek, haurdun dagoen emakume batek hartzen baditu, efektuak dituzte haurraren gain. Horietako efektu batzuk ez dira gertatzen haurra jaio eta urte batzuk igaro arte.

Liburu honek tratamenduei buruzko gogoeta egiten lagunduko dizu, erabaki hobeak hartu ahal izateko.

Liburu honek tratamenduei buruzko gogoeta egiten irakatsiko dizu, **hiru galdera-motaren bidez.**


14 1. ikasgaia: Osasuna, tratamenduak eta efektuak

 *Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak*

Lehenik eta behin ikasiko duzu zer galdera egin norbaitek tratamendu bati buruzko zerbait esaten duenean.

Batzuetan, tratamenduei buruzko erabaki desagokiak hartzen dituzu, beste pertsona batek esandakoak nahasi zaituelako.

Adibidez, jende askok esaten zuen erretzeak ez zuela efektu txarrik. Are gehiago, batzuek erretzeak ondorio onak zituela esaten zuten. Medikuek batzuek ere hori esaten zuten! Horrek nahastu egin zuen jende asko eta erretzeagatik hil egin zen.



1. ikasgaia: Osasuna, tratamenduak eta efektuak


15

📌 Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

Azalpena: Zigarroak saltzeko erabili zen iragarki baten irudia.

Bigarrenik, ikasiko duzu osasunaren ikertzaileek zer galdera egiten duten tratamenduen efektuei buruzko gauza gehiago aurkitzeko.

Osasun-ikertzailea da osasunarekin lotutako alderdiak arreta handiz aztertzen dituen pertsona, aurkikuntzaren bat egiteko asmoz. Ikertzaileen oharrak lagungarri izan ditzakegu tratamenduei buruzko erabaki hobea hartzeko.



Hirugarrenik, ikasiko duzu zer galdera egin behar duzun tratamendu bat erabili ala ez erabaki behar duzunean.

Galderen bidez tratamenduen aurrean gogoeta egiteak erabaki hobeak hartzen lagunduko dizu.

Tratamenduei buruzko erabaki hobeak hartzea ona da zure osasunerako.



Helduek, bereziki gurasoek eta medikuek, hartzen dituzte haurren tratamenduei buruzko erabakiak.

Liburu honek prestatuko zaitu tratamenduei buruzko erabakiak zuk zeuk, hazi ahala, har ditzazun.

Medikuek beren aholkua eman behar diete hurrei eta helduei, tratamenduei buruzko erabaki garrantzitsuak hartu aurretik.

Edonola ere, nahiz eta medikuak bere aholkua eman, liburu honetan ikasiko dituzun galderak egin behar dizkiozu.

Galderak egiteak zuretzako erabaki egokiagoak hartzen lagunduko dizue, bai zuri bai medikuari.



Zer biltzen du liburu honek?


Liburu honek jarduerak eta ariketak egiteko jarraibideak biltzen ditu, ikasgai bakoitzean.

Irakaslearen laguntzaz, jarduerak egingo dituzu zure ikaskideekin batera.

Ariketak zeuk, bakarka, egingo dituzu.

Liburuaren amaieran glosario bat dago; hau da, liburuko hitz garrantzitsuen zerrenda eta hitzen esanahia. Liburu irakurtzen duzunean, hitzen bat ulertzen ez baduzu, bilatu zerrenda horretan.

Azkenik, liburu honetan, John eta Julie izeneko bi haurren istorioa kontatuko dizugu.



Istoria binetaz osatuta dago. Bineta bat hitzak eta marrazkiak dituen istorio bat da.

Hitz gehienak bunbuilo eta gogoeta-burbuiloetan agertzen dira.

Bunbuilo batean norbaitek esaten duena agertzen da.



Gogoeta-burbuilo batean norbait pentsatzen ari dena agertzen da.



20 1. ikasgaia: Osasuna, tratamenduak eta efektuak

↓ Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

Lehen ikasgai hau liburuaren sarrera da. Azken ikasgaia liburuko garrantzitsuena biltzen duen berrikusketa da.

Hau da 2., 3., eta 4. ikasgaietan Johnek eta Juliek ikasiko dutena: norbaitek tratamendu bati buruzko zerbait desegokia esaten badu, zu nahas zaitzake.

5., 6. eta 7. ikasgaietan, Johnek eta Juliek ikasiko dute osasun-ikertzaileek nola azertu behar dituzten tratamenduak, haien efektuei buruzko gauza gehiago aurkitzeko.

8. ikasgaian, ordura arte ikasitako guztia erabiliz, erabakiak hartzen ikasiko dute.

Liburuaz gozatu eta ikasgaiekin asko
ikastea espero dugu!

Hona hemen haurrekin ozen irakurri duzuna errepasatzeko galderak eta erantzunak:

1. Zer lantzen da liburuan?

Tratamenduen aurrean gogoeta egiten nola ikasi lantzen da.

2. Zergatik da garrantzitsua liburu honetan lantzen dena ikastea?

Zure osasuna garrantzitsua da.

Galderen bidez tratamenduen aurrean gogoeta egiteak osasunari buruz erabaki hobeak hartzen lagunduko dizu.

Ez dago adibide gehigarririk hurrei ikasgai hau irakasteko.

JARDUERA



Jarraibideak

Helburua: tratamendu baten efektu onen eta txarren arteko aldea adieraztea.

Mahai berean, elkarrekin esertzen diren hurrek talde bat osatuko dute.

Irakasleak tratamenduen efektuez osatutako zerrenda bat du.


Gida honen hurrengo orrialdearen behealdean dago zerrenda.

1. *urratsa:* Irakasleak zerrendako efektuetako bat irakurriko du, ozen.
2. *urratsa:* Taldeek eztabaidatuko dute efektua ona ala txarra den.
3. *urratsa:* Irakasleak efektu ona dela pentsatzen ote duten galdetuko die talde guztiei
4. *urratsa:* Efektua ona dela pentsatzen dutenak altxa egingo dira.
5. *urratsa:* Talde guztiak eseriko dira.
6. *urratsa:* Irakasleak efektu txarra dela pentsatzen ote duten galdetuko die denei.
7. *urratsa:* Efektu txarra dela pentsatzen duten taldeak altxa egingo dira.
8. *urratsa:* Talde guztiak eseri egingo dira.
9. *urratsa:* Irakasleak eskatuko die ikasleei azaltzeko zergatik uste duten efektua ona edo txarra dela.
10. *urratsa:* Prozesua errepikatuko da zerrendako beste efektu bat erabiliz.



Hurrengo orrialdean adibide bat ikus daiteke. →

JARDUERA



Adibidea

Irakasleak: "Igeriketaren efektu bat gihar indartsuagoak edukitzea da".

Taldeak eztabaida egingo du.

Irakasleak: "nork uste du "gihar indartsuagoak edukitzea" efektu positiboa dela?"

Efektu positiboa dela uste dutenak altxa egingo dira.

Irakasleak: "Nork uste du "gihar indartsuagoak edukitzea" efektu txarra dela?"

Efektu txarra dela uste duten taldeak altxa egingo dira.

Irakasleak: "Gihar indartsuagoak edukitzea efektu ona da! Zergatik?"

Haurrak: "Gihar indartsuagoak badituzu, gauza gehiago egin ditzakezu! Adibidez, liburu edo ur gehiago garraia dezakezu".

Irakasleak: "Oso ondo!"

Tratamendua: Igeri egitea

Efektu posibleak: Itotzea (efektu NEGATIBOA)

Energia handiagoa ematen dizu (efektu POSITIBOA)

Azala lehortzen dizu (efektu NEGATIBOA)

Infekzio bat izatea (efektu NEGATIBOA)

Tratamendua: Txantxarra duen hortz bat kentzea

Efektu posibleak: Hortza kentzeak mina eragiten du (efektu NEGATIBOA)

Hortza kendu ostean, mina gutxitu egiten da (efektu POSITIBOA)

Infekzio bat izatea (efektu NEGATIBOA)

1. ARIKETA

Adierazi hitz hauen esanahia. Gogoratu liburuaren amaieran dauzkazula.



ADIBIDEA: Zer da bineta bat?

Bineta bat hitzak eta marrazkiak dituen istorio bat da.

1. Zer da "osasuna"?

Osasuna da zenbateraino dauden ondo zure gorputza eta burua.

2. Zer da "tratamendua"?

Tratamendu bat da zure osasunaren alde egiten duzun zerbait.

3. Zer da "tratamendu baten efektua"?

Tratamendu baten efektua tratamenduaren eraginez gertatzen den zerbait da.

24

1. ikasgaia: Osasuna, tratamenduak eta efektuak

 Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

Jarraibideak: Haur bakoitzak bere ariketa-liburuan idatzi behar ditu erantzunak.

2. ARIKETA

Markatu egia ala gezurra diren baieztapen hauek.

ADIBIDEAK:

Osasuna garrantzitsua da.

Egia Gezurra

Osasuna ez da garrantzitsua.

Egia Gezurra

1. Tratamendu gehienek efektu onak eta txarrak dituzte.

Egia Gezurra

2. Liburu honek zer tratamendu erabili erakusten dizu.

Egia Gezurra

3. Zukuak edatea tratamendu bat da.

Egia Gezurra


4. Zukurik ez edatea tratamendu bat da.

Egia Gezurra

5. Erabat ziur egon gaitezke tratamendu askoren efektuez.

Egia Gezurra

Bete bereiz ikasgaiko ebaluazio-orria.



IKASGAIKO EBALUAZIO-ORRIA

Hausnartutako Osasun Erabakiak egitasmoa

Ikasgaiko informazioa irakasleentzat

Ikasgai honi buruzko informazioa gida honen sarreran dago.



Haurrak liburuaren lehenengo bertsioarekin, Uganda, 2014ko urria.

2.

IKASGAIA

**Tratamendu bat erabili
duen pertsona baten esperientzian
oinarritutako baieztapenak**

2. IKASGAIA

Tratamendu bat erabili duen pertsona baten esperientzian oinarritutako baieztapenak

Ikasgai hau prestatu eta emateko behar duzuna:

Helburuak	57. or.
Prestaketa	57. or.
Ikasgaia	58. or.
1. urratsa: Aurreko ikasgaia errepasatzea	59. or.
2. urratsa: Ozen irakurtzea.....	60. or.
3. urratsa: Eztabaidatzea	74. or.
4. urratsa: Jarduera gidatzea	76. or.
5. urratsa: Ariketak gidatzea	80. or.
6. urratsa: Ikasgaiko ebaluazio-orria bete	84. or.
Ikasgaiko informazioa irakasleentzat	85. or.

Helburuak

Zer ikasi behar duten haurrek ikasgai honetan:

- Zer da baieztapen bat?
- Zer da baieztapen baten oinarria?
- Zer da fidagarritasun gutxiko baieztapen bat?
- Zergatik da garrantzitsua galdetzea tratamendu baten efektuei buruzko baieztapen bat zertan oinarritzen den?
- Zergatik ez da oinarri egokia tratamendu bat erabiltzen ari den inoren esperientzia pertsonala, haren efektuei buruzko baieztapenak egiteko?

Prestaketa (20 minutu)

Ikasgaiaren aurretik egin behar duzuna.

Aldez aurretik irakurri

- Irakurri testuliburuan ikasgai honi dagozkion orriak
- Irakurri gidan ikasgai honi dagozkion orriak

Bildu materiala

Ziurtatu honako hauek dituzula:

- Gida hau
- Ikasgaiko ebaluazio-orria
- Borragoma batzuk

Ziurtatu haur guztiek dituztela honako hauek:

- Testuliburuaren kopia bat
- Ariketa-liburua
- Arkatz bat edo boligrafo bat

Istorioaren laburpena: John eta Julie zopa prestatzen ari dira etxean. Kasukuk ustekabean harrapatu du John, zopa erori zaio, eta hatza erre du. Kasukuk zera esan du: “Behi-gorotzak erredurak sendatzen ditu!” Julie gogoratu da Sarahk gauza bera esan zuela. Sarahren baieztapenaren oinarria bere esperientzia pertsonala da: behi-gorotza jarri zuen erreduran, eta sendatu egin zitzaion. Juliek Johni esan dio behi-gorotza jartzeko erreduran, eta hori egin du Johnek. Biharamunean, Johnek infekzio bat dauka hatzean. Amak klinikara bidali ditu John eta Julie, eta han Konparaketa eta Zuzena irakasleak ezagutu dituzte. Irakasleek azaldu diete Sarahren esperientzia pertsonala zergatik ez den oinarri egoki bat baieztapen hori egiteko.

Ikasgaia (80 minutu)

Jarraian, ikasgaia emateko plan bat proposatzen dizugu.

IRAKASLEA	HAURRAK	IRAUPENA
1. URRATSA Aurreko ikasgaia erreparasatzea		<i>10 min</i>
<ul style="list-style-type: none"> Erreparasatu aurreko ikasgaia, gida honetako 59. orrialdean azaltzen diren galderak erabiliz. 	<ul style="list-style-type: none"> Adierazi zaien moduan erantzungo dituzte galderak. 	
2. URRATSA Ozen irakurtzea		<i>25 min</i>
<ul style="list-style-type: none"> Gidatu ozen irakurtzeko prozesua gida honetako 60. orrialdetik aurrera. <i>Ozen irakurtzeko moduak kontsultatzeko, begiratu gida honetako 19. orrialdea.</i>	<ul style="list-style-type: none"> Haurren testuliburua 28. orrialdean ireki, eta ozen irakurriko dute, adierazi zaien moduan. 	
ATSEDENA		<i>5 min</i>
3. URRATSA Eztabaidatzea		<i>10 min</i>
<ul style="list-style-type: none"> Has ezazu istorioari buruzko eztabaida bat, gida honetako 74. orrialdean azaltzen diren galderak erabiliz. Behar izanez gero, eman adibide gehiago; gida honetako 75. orrialdean dituzu. 	<ul style="list-style-type: none"> Adierazi zaien moduan erantzungo dituzte galderak. 	
4. URRATSA Jarduera gidatzea		<i>15 min</i>
<ul style="list-style-type: none"> Zuzendu jarduera gida honetako 76. orrialdetik. 	<ul style="list-style-type: none"> Haurren testuliburua 42. orrialdean ireki, eta jarduera egingo dute, adierazi zaien moduan. 	
5. URRATSA Ariketak gidatzea		<i>10 min</i>
<ul style="list-style-type: none"> Gidatu ariketak gida honetako 80. orrialdetik. Lagundu haurrei ariketak egiten, eta gidatu ariketak zuzentzeko prozesua. <i>Ariketak zuzentzeko moduak kontsultatzeko, begiratu gida honetako 20. orrialdea.</i>	<ul style="list-style-type: none"> Ariketa-liburua 10. orrialdean ireki, eta ariketak egingo dituzte. Testuliburua 44. orrialdean ireki, eta ariketak kopiatu eta egingo dituzte. 	
6. URRATSA Ebaluazio-orria betetzea		<i>5 min</i>
<ul style="list-style-type: none"> Bete ikasgaiko ebaluazio-orria. 		

Jarraian, galdera batzuk eta haien erantzunak daude, aurreko ikasgaia errepasatzeko haurrekin.

1. Zer lantzen da liburu honetan?

Liburuan lantzen da tratamenduei buruz hausnartzeko modua.

2. Zergatik da garrantzitsua zuretzat liburu honetan lantzen dena ikastea?

Zure osasuna garrantzitsua da.

Galderen bidez tratamenduen aurrean gogoeta egiteak zure osasunaren inguruan erabaki hobeak hartzen lagunduko dizu.

*Johnek eta Juliek tratamenduei buruzko
BAIEZTAPENEN OINARRI DESEGOKIAK
aztertuko dituzte*

2

Tratamendu bat erabili duen pertsona baten esperientzian oinarritutako baieztapenak


Ikasgai honetan hau ikasiko duzu:

1. Zer da “baieztapen” bat?
2. Zer da baieztapen baten “oinarria”?
3. Zer da “fidagarritasun gutxiko” baieztapena?
4. Zergatik da garrantzitsua galdetzea tratamendu baten efektuei buruzko baieztapen bat zertan oinarritzen den?
5. Zergatik ez da oinarri egokia tratamendu bat erabiltzen ari den inoren esperientzia pertsonala, haren efektuei buruzko baieztapenak egiteko?

Ikasgai honetako gako-hitzak:

- **BAIEZTAPENA** persona batek esaten duena da, eta zuzena edo okerra izan daiteke.
- Baieztapen baten **OINARRIA da arrazoitzen** duena, haren funtsa da
- **FIDAGARRITASUN GUTXIKO BAIEZTAPENA** da oinarri desegokia duena.
- Tratamendu bat erabiltzen ari den norbaiten **ESPERIENTZIA PERTSONALA** erabili ondoren gertatzen zaiona da.

Ikasgai honetako pertsonaiak

**JOHN ETA JULIE**


John eta Julie anai-arrebak dira.

**MAMA**

Mama Johnen eta Julieren ama da.

**KASUKU**

Kasuku loro bihurri bat da, eta jendeak esaten duena errepikatzen du pentsatu gabe.

**IRAKASLEAK: KONPARAKETA ANDREA ETA ZUZENA JAUNA**


Konparaketa andrea eta Zuzena jauna unibertsitateko irakasleak eta osasun-ikertzaileak dira. Aldi berean, klinika bateko medikuak dira.

2. ikasgia: Tratamendu bat erabili duen pertsona baten esperientzian oinarritutako baieztapenak.

29

↓ Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak


JOHNEN ETA JULIEREN HERRIA



30 2. ikasgaia: Tratamendu bat erabili duen pertsona baten esperientzian oinarritutako baieztapenak.

↓ Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

Jarraibideak: Testurik ez duen edo testu gutxi duen bineta bat dagoen bakoitzean (adibidez, 30. eta 31. orrialdeetan), gelditu eta galdetu haurrei zer ari den gertatzen.




2. ikasgaia: Tratamendu bat erabili duen pertsona baten esperientzian oinarritutako baieztapenak.



32 2. ikasgaia: Tratamendu bat erabili duen pertsona baten esperientzian oinarritutako baieztapenak.

Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak



INFEKZIOA da germenek eragindako gaixotasuna

2. ikasgaia: Tratamendu bat erabili duen pertsona baten esperientzian oinarritutako baieztapenak.



IRAKASLEA da, istorio honetan, unibertsitatean eskolak ematen edo ikerketa lanetan ari den pertsona.

34 2. ikasgaia: Tratamendu bat erabili duen pertsona baten esperientzian oinarritutako baieztapenak.

↓ Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak



2. ikasgaia: Tratamendu bat erabili duen pertsona baten esperientzian oinarritutako baieztapenak.

35


**OSASUN-IKERTZAILEA** da

osasuna arretaz aztertzen duen pertsona, osasunari buruzko gauza berriak aurkitzeko.

36

2. ikasgaia: Tratamendu bat erabili duen pertsona baten esperientzian oinarritutako baieztapenak.

↓ Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak



2. ikasgaia: Tratamendu bat erabili duen pertsona baten esperientzian oinarritutako baieztapenak.


37

"Baieztapen" bat pertsona batek esaten duen zerbait da, eta zuzena izan liteke...



Sarahek esan zuena bezala.


Horixe da!



Sarahen baieztapenaren **oinarria** ez zen egokia.



Baina, berak esan zuen behi-gorotza eman zuela erreduran, eta sendatu egin zitzaiola!



BAIEZTAPEN bat pertsona batek esaten duen zerbait da, eta zuzena edo okerra izan daiteke.

Baieztapen baten **OINARRIA** da baieztapen bat arrazoitzen duena, haren funtsa.

Bai, baina hori ez da baieztapen bat egiteko oinarri egokia.

Bere esperientzia pertsonala besterik ez zen!

Ea Julie, zer gertatuko zen Sarahk erreduran behi-gorotza eman izan ez balu?

Ez nago ziur...

Sendatuko al zen erredura behi-gorotza erabili gabe ere?

Bai!

Orduan, norbaiten **esperientzia pertsonala** ez da oinarri egokia efektuei buruzko baieztapenak egiteko.

Ezin dugu ziur jakin, zer gertatuko zen tratamendu hori erabili izan ez balu.

2. ikasgaia: Tratamendu bat erabili duen pertsona baten esperientzian oinarritutako baieztapenak.

39


↓ Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

Azalpena: Esperientzia pertsonal bat oinarri egoki bat da ia beti gertatzen den zerbaiti buruzko baieztapen bat egiteko. Esate baterako, eltze bero bat ukituta hatza erretzearen esperientzia pertsonala oinarri egoki bat da baieztatzeko eltze bero bat ukituz gero hatza erreko zaizula.


Baieztapen baten oinarria egokia ez bada, baieztapenak **fidagarritasun gutxi** izango du. Badira desegokiak diren beste oinarri batzuk



Baieztapen bat entzuten duzuean, galdetu beti: Zein da baieztapenaren oinarria? Eta oinarria egokia da?



Tratamenduei buruzko baieztapen gehiago entzuten baduzue, apuntatu!



Datorren astean landuko ditugu. Zuen ikastetxera joango gara.

FIDAGARRITASUN GUTXIKO

baieztapena oinarri desegokia duen baieztapena da.

*Tratamendu bat erabiltzen duen norbaiten **ESPERIENTZIA PERTSONALA** erabili ondoren gertatu zaiona da.*

40 2. ikasgaia: Tratamendu bat erabili duen pertsona baten esperientzian oinarritutako baieztapenak.

ADIBIDE OSAGARRIAK

Tratamendu baten efektuei buruzko baieztapenak egiteko, esperientzia pertsonala oinarri desegokia dela azaltzeko, adibide gehiago dituzu hemen.

1. adibide osagarria:

Raymondek dio: "Nik gripea nuen. Baso bat zuku edan nuen, eta, hurrengo egunean, ez nuen griperik! Beraz, zukua edateak gripea sendatzen du!"

Tratamendua: Zukua edatea.

Efektua: Gripea sendatzea

Baieztapenaren oinarria

Raymonden esperientzia da: gripea zukua edan ondoren sendatu zitzaion.

Azalpena: Raymond en baieztapenaren oinarria ez da egokia; beraz, fidagarritasun gutxikoa da. Gerta zitekeen gripea zukurik edan gabe ere sendatzea.

2. adibide osagarria:

Moreenek dio: "Joan den astean zapatila berriak erosi nituen . Atzo jantzi nituen saskibaloian jokatzeko, eta beste neskek baino azkarrago egiten nuen korrika! Zapatila berriek korrika azkarrago eginarazten dute!"

Tratamendua: Zapatila berriak janztea.

Efektua: korrika azkarrago egitea

Baieztapenaren oinarria Moreenen esperientzia da: zapatila berriak jantzita gainerako neskek baino azkarrago egiten zuen korrika.

Azalpena: Moreenen oinarria ez da egokia; beraz, baieztapena fidagarritasun gutxikoa da. Gerta zitekeen zapatila berriak jantzi gabe ere beste neskek baino azkarrago korrika egitea.

2. ikasgaia: Tratamendu bat erabili duen pertsona baten esperientzian oinarritutako baieztapenak.

41

Jarraian azaltzen dira hurrekin ozen irakurri duzuna errebasatzeko galdera eta erantzunak:

1. Zein zen Sarahren baieztapena?

Behi-gorotzak erredurak sendatzen ditu.

2. Zer oinarri zuen Sarahk baieztapen hori egiteko?

Behi-gorotza erredura batean jarri izanaren esperientzia pertsonala.

3. Zergatik zuen fidagarritasun gutxi Sarahren baieztapenak?

Sarahren baieztapenaren oinarria ez zen egokia. Baliteke erredura sendatu izana behi-gorotza jarri gabe ere.

Behar izanez gero hurrei azalpenak emateko adibide gehigarriak

Jarraian, hurrek istorio honetan ikasi behar dutena azaltzen laguntzeko adibide gehiago dituzu. Beharrezkoa iruditzen bazaizu bakarrik erabili adibide hauek.

Zergatik ez da oinarri egokia tratamendu bat erabiltzen ari den inoren esperientzia pertsonala, haren efektuei buruzko baieztapen bat egiteko?

Baieztapena: “Nire lagunak dio tea edateak buruko mina gutxiagotzen duela berak tea edan zuelako eta orain ez daukalako buruko minik!”

Tratamendua: Tea edatea

Efektua: Buruko mina gutxiagotzea

Oinarria: Bere lagunak tea edan ondoren izan zuen esperientzia pertsonala

Azalpena: Lagunaren esperientzia pertsonala ez da oinarri egoki bat baieztapen hori egiteko. Baliteke lagunaren buruko mina tea edanda edo tea edan gabe ere gutxiagotzea. Baieztapena fidagarritasun gutxikoa da.

Baieztapena: “Nire ahizpak dio pilula honek sukarra jaisten duela, berak halako pilula bat hartu zuenean sukarra jaitsi zitzaiolako!”

Tratamendua: Pilula bat hartzea

Efektua: Sukarra jaistea

Oinarria: Bere ahizpak pilula hartu ondoren izan zuen esperientzia pertsonala

Azalpena: Ahizparen esperientzia pertsonala ez da oinarri egoki bat baieztapen hori egiteko. Baliteke sukarra jaitsi izana pilula hartuta edo pilula hartu gabe. Baieztapena fidagarritasun gutxikoa da.

JARDUERA



Jarraibideak

Helburua: Antzematea noiz ari den pertsona bat tratamendu baten efektuei buruzko baieztapena egiten.

Irakasleak istorio bat dauka.

1. urratsa: Irakaslea istorioa irakurtzen hasiko da.

Gida honetan, adibidearen hurrengo orrialdeetan dago istorioa. Ziurtatu behar bezain poliki irakurtzen duzula, hurrek hurrengo urratserako denbora izan dezaten.

2. urratsa: Istorioko pertsonaiaren batek tratamendu baten efektuei buruzko baieztapen bat egiten duenean, neska-mutilek altxa eta oihu egingo dute:
"baieztapena!"

Baldin eta istorioan baieztapen bat badago, baina haurretako inor ere ez bada ohartzen, gelditu eta azaldu zergatik den tratamendu baten efektuei buruzko baieztapen bat.

3. urratsa: Irakasleak eskatuko die neska-mutilei azaltzeko zergatik uste duten istorioko pertsonaiak tratamendu baten efektuei buruzko baieztapena egin duela.

Eskatu hurrei eskua altxatzeko erantzun behar dutenean, baina galdetu eskua altxatzen ez duten hurrei ere. Garrantzitsua da gela osoak parte hartzea.

4. urratsa: Irakasleak istorioa irakurtzen jarraituko du.

Hurrengo orrialdean adibide bat ikus daiteke. →

42

2. ikasgaia: Tratamendu bat erabili duen pertsona baten esperientzian oinarritutako baieztapenak.

JARDUERA

**Adibidea:**

Irakasleak: "Johneta Julie lagunekin futbolean ari dira. John erori eta harri batekin zauritu egiten da. Arthurrek, Johnen eta Julieren lagun batek, esaten dio Johni lokatz pixka bat ematen badu zaurian, azkarrago sendatuko zaiola".

Hurrek: "BAIEZTAPENA!".

Irakasleak: "Zuzena. Zergatik da hori tratamenduaren efektuei buruzko baieztapen bat?".

Ikasleek: "Zauri batean lokatza ematea tratamendu bat delako eta zauria sendatzea efektua!".

Irakasleak: "Bai horixe! Oso ondo!".

2. ikasgaia: Tratamendu bat erabili duen pertsona baten esperientzian oinarritutako baieztapenak.

43

↓ Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

Jarduerarako istorioa

Johnek eztarriko mina du... Ez da oso larria, baina min pixka bat ematen dio janaria irenstean... Amak tratamendu bat erostera bidali ditu John eta Julie... Bidean, Super zukuak edari energetiko berriaren iragarkia ikusi dute... Kartelean hau jartzen du: *“Super zukuak indartsuagoa egiten zaitu!”*

BAIEZTAPENA! Tratamendu baten efektuei buruzko baieztapen bat da. Super zukuak edatea da tratamendua, eta indartsuagoa izatea da efektua.

Juliek Johni esan dio: “Behin Super zukuak edan nuen, baina ez nintzen sentitu indartsuagoa. Beraz, Super zukuak ez zaitu egiten indartsuagoa!”

BAIEZTAPENA! Tratamendu baten efektuei buruzko baieztapen bat da hori. Super zukuak edatea da tratamendua, eta efektua da ez izatea indartsuagoa (efekturik ez, beraz).

Hala ere, Juliek hau esan du: “Zapore ona zuen...”. Julie eta John auzoko denda batean geratu dira... Dendaria dago han, Semakula jauna... “Arratsalde on, John eta Julie”, dio Semakula jaunak... “Arratsalde on, Semakula jauna”, erantzun dute Johnek eta Juliek... Laranja janda eztarriko mina sendatzen dela entzun duela esan du Johnek.

BAIEZTAPENA! Tratamendu baten efektuei buruzko baieztapen bat da hori. Laranja jatea da tratamendua, eta efektua da eztarriko mina sendatzea.

Semakula jaunak esan du hori ez dela egia...

BAIEZTAPENA! Tratamendu baten efektuei buruzko baieztapen bat da hori. Laranja jatea da tratamendua, eta efektua da eztarriko mina ez sendatzea (efekturik ez, beraz).

Semakula jaunak iradoki dio te pixka bat erosteko... Dioenez, tea edateak eztarriko mina sendatuko dio...

BAIEZTAPENA! Tratamendu baten efektuei buruzko baieztapen bat da hori. Tea edatea da tratamendua, eta efektua da eztarriko mina sendatzea.

Johnek eta Juliek ez dakite ziur zer egin... Eskerrak eman dizkiote Semakula jaunari, baina erabaki dute botikara joatea sendagairen bat erostera... Botikan Namutebi andrea dago lanean... Johnek eta Juliek Namutebi andrea agurtu dute, eta galdetu diote Johnek zer sendagai hartu beharko lukeen eztarriko minerako... Namutebi andreak esan du Johnek hartzeko moduko sendagai batzuk daudela... “Eztulerako jarabe honek eztarriko mina sendatuko dizu”, esan du Namutebi andreak...

¡BAIEZTAPENA! Tratamendu baten efektuei buruzko baieztapen bat da hori. Eztulerako jarabea hartzea da tratamendua, eta efektua da eztarriko mina sendatzea.

Edo hauetako pilularen bat har dezakezu... Pilularekin, mina joango zaizu eta eztarria sendatuko zaizu...

BAIEZTAPENA! Tratamendu baten efektuei buruzko baieztapen bat da hori. Pilula hartzea da tratamendua, eta efektua da eztarriko mina gutxiagotzea.

Hala ere, Namutebi andreak esan du pilulek batzuetan sabeleko mina eragiten dutela...

BAIEZTAPENA! Tratamendu baten efektuei buruzko baieztapen bat da hori. Pilula hartzea da tratamendua, eta efektua da sabeleko mina eragitea.

Johnek eta Juliek pilula batzuk erosi dituzte... Etxera iritsi direnean, Johnek pilula bat hartu du... Amak Johni esan dio atsedean hartzeko... Amak dioenez, atsedean hartzeak beti sentiarazten zaitu hobeto...

BAIEZTAPENA! Tratamendu baten efektuei buruzko baieztapen bat da hori. Atsedean hartzea da tratamendua, eta efektua da hobeto sentitzea.

John etzan egin da atsedean hartzeko... Bat-batean, Kasuku agertu da leihoan, eta oihuka hasi da: "LARANJEK EZTARRIKO MINA SENDATZEN DUTE!"

BAIEZTAPENA! Tratamendu baten efektuei buruzko baieztapen bat da hori. Laranjak jatea da tratamendua, eta efektua da eztarriko mina sendatzea.

Amaiera.

Jarduera honetako adibidearen inguruan: Askotan, eztarriko mina berez joaten da. Hala ere, haurrak sukar handia badu edo ez badu jaterik eta edaterik nahi min handia duelako, medikuarengana edo erizainarengana eraman beharko lukete. Haurrak arnasa hartzeko edo irensteko zailtasunak baditu, adurra badario, edo lepoa zurrun eta handituta badu, klinika edo ospitale batera eraman beharko lukete. Kasu arinetan (Johnek istorioan bezala) eztarriko mina gutxiagotzeko, lagungarria izan daiteke te eta zopa beroak hartzea, edo edari hotz bat edatea ere bai. Haurrak nahikoa ur edan behar du, edatean mina izan arren. Analgesikoek (mina arintzeko pilula batzuk; adibidez, parasetamola) lagundu dezakete, baina haurrak ez du aspirinarik hartu behar.

1. ARIKETA

Adierazi hitz hauen esanahia. Gogoratu liburuaren amaieran dauzkazula.

Adibidea: Zer da “osasuna”?

Osasuna da zenbateraino dauden ondo zure gorputza eta burua.

1. Zer da "baieztapen" bat?

Baieztapen bat pertsona batek esaten duen zerbait da, eta zuzena edo

okerra izan daiteke.

2. Zer da baieztapen baten “oinarria”?

Oinarria da baieztapen bat arrazoitzen duena, haren funtsa.

3. Zer da “fidagarritasun gutxiko” baieztapen bat?

Fidagarritasun gutxiko baieztapen bat da oinarri desegokia duena.

4. Zer da tratamendu bat erabiltzen duen norbaiten “esperientzia pertsonala”?

Tratamendu bat erabiltzen ari den norbaiten esperientzia pertsonala da

tratamendua erabili ondoren gertatzen zaiona.

44

2. ikasgaia: Tratamendu bat erabili duen pertsona baten esperientzian oinarritutako baieztapenak.

2. ARIKETA

Adierazi zein den esperientzia eta zein baieztapena.

Adibidea:

Sarahek behi-gorotza eman zuen erredura batean eta sendatu egin zitzaion. Orduan, berak dio behi-gorotzak erredurak sendatzen dituela.

Sarah-en esperientzia:

Erreduran behi-gorotza ematea eta erredura sendatzea.

Sarahren baieztapena:

Behi-gorotzak erredurak sendatzen ditu.

1. Andyk esaten du sagarrak jaten badituzu hortzak eroriko zaizkizula, berari egun batean sagarra jan eta hortz bat erori zitzaiolako.

Andy-ren esperientzia:

Sagar bat jan eta hortz bat erortzea.

Andyren baieztapena:

Sagarrak jaten badituzu, hortzak eroriko zaizkizu.

2. ikasgaia: Tratamendu bat erabili duen pertsona baten esperientzian oinarritutako baieztapenak.

45

2. ARIKETA

1. Daniel, sukarra zuen egun batean, ur epeletan bainatu zen. Handik ordubetera, ez zuen ia sukarririk. Orain Danielek esaten du ur epeletan bainatzeak sukarra jaisten duela.

Danielen esperientzia:

Ur epeletan bainatzea eta handik ordubetera ia ez izatea sukarririk.

Danielen baieztapena:

Ur epeletan bainatzeak sukarra jaisten du.

1. Bart, Christinek 12 orduz lo egin zuen! Gaur lasterketa batean parte hartu du eta lehena iritsi da helmugara. Horregatik esan die Christinek beste parte-hartzaileei ordu askoz lo egiten badute, azkarrago egingo dutela korrika.

Christineren esperientzia:

12 orduz lo egin eta lasterketa bat irabaztea.

Christineren baieztapena:

Ordu askoz lo eginez gero, azkarrago egingo duzu korrika.

46

2. ikasgaia: Tratamendu bat erabili duen pertsona baten esperientzian oinarritutako baieztapenak.

↓ Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

3. ARIKETA

Ariketa-liburuaren amaieran orri zuri batzuk topatuko dituzu; bertan, entzuten dituzun baieztapenak jaso ditzakezu, Johnek eta Juliek istorioan egiten duten bezala. Aurrerago, 9. ikasgaian, erantzun ahal izango duzu baieztapenak fidagarriak iruditzen zaizkizun ala ez.

Eskolan, etxean edo beste edonon, tratamendu baten efektuei buruzko baieztapen bat entzuten duzunean, idatzi hortxe.

Eskatu hurrei 46. orrialdean irekitzeko ariketa-liburua. Azaldu baieztapen bakoitzeko lehenengo hiru lerroak bakarrik bete behar dituztela; 9. ikasgaia amaitutakoan osatu ahal izango dute gainerakoa.

Adibidez:

Baieztapena: Zukua edateak gripea sendatzen du

Tratamendua: Zukua edatea

Efektua: Gripea sendatzea

9. ikasgaian, baieztapenen oinarriak idatziko dituzte, eta laukietan markatuko dute baieztapena fidagarria den ala ez dauden ziur.


Ariketaren helburua da haurrak ohartzea tratamenduen efektuei buruzko baieztapen ugari entzuten dituztela, eta baieztapen horietako askok fidagarritasun gutxi dutela.



2. ikasgaia: Tratamendu bat erabili duen pertsona baten esperientzian oinarritutako baieztapenak.

47

Bete bereiz ikasgaiko ebaluazio-orria.



IKASGAIKO EBALUAZIO-ORRIA

Hausnartutako Osasun Erabakiak egitasmoa

Ikasgaiko informazioa irakasleentzat

“Baieztapen” hitzak hainbat esanahi izan ditzake. Liburu honetan, hau esan nahi du: pertsona batek esaten duen zerbait da, eta zuzena edo okerra izan daiteke. Jende guztiak egiten ditu halako baieztapenak. Askotan, zerbait baieztatzen dugunean, baieztapena erabat fidagarria izango balitz bezala esaten dugu. Hau da, egitate bat balitz bezala esaten dugu, baina baieztapen bat da. Baieztapen asko fidagarritasun gutxikoak dira; beraz, garrantzitsua da norbaitek baieztapenak egiten dituenean hortaz jabetzea. Tratamendu baten efektuei buruzko fidagarritasun gutxiko baieztapen bat sinesten baduzu, tratamenduari buruzko erabaki oker bat har dezakezu.

Fidagarritasun gutxiko baieztapenak ez gaitzaten nahas, galdera hau egin behar dugu beti: Zein da baieztapenaren oinarria? “Oinarria” hitzak zenbait esanahi ditu, baina, liburu honetan, pertsona batek zerbait esateko edo egiteko arrazoia esan nahi du. Oinarri asko daude zerbait baieztatzeko. Baieztapen baten fidagarritasuna haren oinarriaren arabera da. Osasun-ikertzaileek baieztapen bat aldeztu duen “ebidentzia” aipatzen dute batzuetan, eta ez baieztapenaren “oinarria”.

Ikertzaileek galderak egin eta erantzunak bilatzen dituzte, munduari buruzko gauza gehiago jakiteko. Ikertzaile-mota asko daude, eta ikerketa-mota ugari egiten dituzte. Osasun-ikertzaileek osasunaren inguruko galderen erantzunak bilatzen dituzte. Osasun-ikerketaren barruan ere ikerketa-mota ugari daude, baina liburu honetan mota batekoak bakarrik lantzen dira: tratamenduen efektuei buruzko galderak egin eta erantzunak bilatzea.

Norbaiten esperientzia pertsonala izaten da tratamenduen efektuei buruzko baieztapenak egiteko oinarri ohikoenetako bat. Esperientzia pertsonal askok haietatik zerbait ikasteko adinako garrantzia dute. Esate baterako, tratamendu gehienek efektu txikiak dituzte, baina batzuek efektu handi eta nabariak dituzte. Pertsona askorentzat, betaurrekoak jartzeak eragin handi eta nabaria du ikusteko moduan. Betaurrekoak erabiliz duten esperientziak behar adinako garrantzia du jakiteko betaurrekoak erabili behar dituztela.

Tratamendu gehienek ez dute efektu handirik. Beraz, gehienetan, tratamendu bat erabiltzen ari den pertsona baten esperientzia pertsonala ez da oinarri egokia tratamendu horren efektuei buruzko baieztapen bat egiteko. Ikertzaileek, batzuetan, “ebidentzia anekdotikoa” eta “kasuen azterketa” terminoak erabiltzen dituzte “esperientzia pertsonal”aren ordez. Benetan gertatutako zerbaiti buruzko istorio labur bat da “anekdota” bat. Anekdota bat ez da oinarri egoki bat tratamendu baten efektuei buruzko baieztapen bat egiteko, anekdota benetan gertatutakoa izan arren. Esate baterako, hegazti-gripearen agerraldi batean, kutsatutako pertsona batzuek Tamiflu izeneko sendagai bat jaso zuten. Pertsona batzuek hobera egin zuten. Hala ere, anekdota erreal horiek ez dira oinarri egokiak Tamifluk hegazti-gripearen sendatzen duela baieztatzeko. Baliteke pertsona batzuk sendagaia hartu gabe ere hobetu izana.



Haur bat liburuaren lehenengo bertsioa irakurtzen, Uganda, 2014ko urria.

3.

IKASGAIA

**Tratamenduei buruzko baieztapenen
beste oinarri desegoki batzuk
(1. ZATIA)**

3. IKASGAIA

Tratamenduei buruzko baieztapenen beste oinarri desegoki batzuk (1. ZATIA)

Ikasgai hau prestatu eta emateko behar duzuna:

Helburuak.....	89. or.
Prestaketa	89. or.
Ikasgaia	90. or.
1. urratsa: Aurreko ikasgaia erreparasatzea	91. or.
2. urratsa: Ozen irakurtzea	92. or.
3. urratsa: Eztabaidatzea	101. or.
4. urratsa: Jarduera gidatzea	103. or.
5. urratsa: Ariketak gidatzea	108. or.
6. urratsa: Ikasgaiko ebaluazio-orria betetzea	110. or.
Ikasgaiko informazioa irakasleentzat	111. or.

Helburuak

Zer ikasi behar duten haurrek ikasgai honetan:

- Honako oinarri hauek zergatik ez dira egokiak tratamendu baten efektuei buruzko baieztapenak egiteko?
 1. Zenbat denboraz edo zenbat pertsonak erabili duten tratamendua
 2. Zenbat diru balio duen edo zenbateraino den berria

Prestaketa (20 minutu)

Ikasgaiaren aurretik egin behar duzuna.

Aldez aurretik irakurri

- Irakurri testuliburuan ikasgai honi dagozkion orriak
- Irakurri gidan ikasgai honi dagozkion orriak

Bildu materiala

Ziurtatu honako hauek dituzula:

- Gida hau
- Ikasgaiko ebaluazio-orria
- Borragoma batzuk

Ziurtatu haur guztiek dituztela honako hauek :

- Testuliburuaren kopia bat
- Ariketa-liburua
- Arkatz bat edo boligrafo bat

Istorioaren laburpena: Konparaketa eta Zuzena irakasleek John eta Julie bisitatu dituzte eskolan. Lagunek esandako baieztapenak idatziz jaso dituzte Johnek eta Juliek. Irakasleek bi baieztapen aukeratu dituzte, adibide gisa erabiltzeko. Tratamenduen efektuei buruzko baieztapenen beste bi oinarri desegoki azaltzeko erabiliko dituzte adibideak. Lehenik eta behin, irakasleek Ruthen baieztapena erabiliko dute adibide bezala. Ruthen baieztapena belar bati buruzkoa da. Bigarrenik, irakasleek Ahmeden baieztapena erabiliko dute adibide bezala. Ahmeden baieztapena bere betaurreko berriei buruzkoa da.

Ikasgaia (80 minutu)

Jarraian, ikasgaia emateko plan bat proposatzen dizugu.

IRAKASLEA	HAURRAK	HAURRAK
1. URRATSA Aurreko ikasgaia erreparasatzea		<i>10 min</i>
<ul style="list-style-type: none"> Erreparasatu aurreko ikasgaia, gida honetako 91. orrialdean azaltzen diren galderak erabiliz. 	<ul style="list-style-type: none"> Adierazi zaien moduan erantzungo dituzte galderak. 	
2. URRATSA Ozen irakurtzea		<i>25 min</i>
<ul style="list-style-type: none"> Gidatu ozenerako irakurketa gida honetako 92. orrialdetik aurrera. <p><i>Ozen irakurtzeko moduak kontsultatzeko, begiratu gida honetako 19. orrialdea.</i></p>	<ul style="list-style-type: none"> Haurren testuliburua 48. orrialdean ireki, eta ozen irakurriko dute, adierazi zaien moduan. 	
ATSEDENA		<i>5 min</i>
3. URRATSA Eztabaidatzea		<i>10 min</i>
<ul style="list-style-type: none"> Has ezazu istorioari buruzko eztabaida bat, gida honetako 101. orrialdean azaltzen diren galderak erabiliz. Behar izanez gero, eman adibide gehiago; gida honetako 102. orrialdean dituzu. 	<ul style="list-style-type: none"> Adierazi zaien moduan erantzungo dituzte galderak. 	
4. URRATSA Jarduera gidatzea		<i>15 min</i>
<ul style="list-style-type: none"> Zuzendu jarduera gida honetako 103. orrialdetik. 	<ul style="list-style-type: none"> Haurren testuliburua 57. orrialdean ireki, eta jarduera egingo dute, adierazi zaien moduan. 	
5. URRATSA Ariketak gidatzea		<i>10 min</i>
<ul style="list-style-type: none"> Gidatu ariketak gida honetako 108. orrialdetik. Lagundu hurrei ariketak egiten, eta gidatu ariketak zuzentzeko prozesua. <p><i>Ariketak zuzentzeko moduak kontsultatzeko, begiratu gida honetako 20. orrialdea.</i></p>	<ul style="list-style-type: none"> Ariketa-liburua 16. orrialdean ireki, eta ariketak egingo dituzte. Testuliburua 60. orrialdean ireki, eta ariketak kopiatu eta egingo dituzte. 	
6. URRATSA Ebaluazio-orria betetzea		<i>5 min</i>
<ul style="list-style-type: none"> Bete ikasgaiko ebaluazio-orria 		

Jarraian, galdera batzuk eta haien erantzunak daude, aurreko ikasgaia errepasatzeko haurrekin.

1. Zein zen Sarahren baieztapena?

Behi-gorotzak erredurak sendatzen ditu.

2. Zer oinarri zuen Sarahk baieztapen hori egiteko?

Behi-gorotza erredura batean jarri izanaren esperientzia pertsonala.

3. Zergatik zuen fidagarritasun gutxi Sarahren baieztapenak?

Sarahren baieztapenaren oinarria ez zen egokia. Baliteke erredura sendatu izana behi-gorotza jarri gabe ere.

*Johnek eta Juliek tratamenduei buruzko
BAIEZTAPENEN OINARRI DESEGOKIAK
aztertuko dituzte.*

3

Tratamenduei buruzko baieztapenen beste oinarri desegoki batzuk (1. atala)

Ikasgai honetan haxe ikasiko duzu:

Zergatik ez diren egokiak tratamenduei buruzko baieztapenen oinarri hauek:

1. Aspalditik erabili ote den edo pertsona askok erabili ote duten.
2. Tratamendua garestia ote den edo berria ote den.

48

3.ikasgaia: Tratamenduei buruzko baieztapenen beste oinarri desegoki batzuk (1.atala)

 Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

Ikasgai honetako pertsonaiak



KONPARAKETA IRAKASLEA



ZUZENA IRAKASLEA



JOHN



JULIE




RUTH

*Ruth Johnen eta
Julieren laguna da*




AHMED

*Ahmed Johnen eta
Julieren laguna da*





3. ikasgaia: Tratamenduei buruzko baieztapenen beste oinarri desegoki batzuk (1.atala)

JOHNEN ETA JULIEREN IKASTETXEA



50 3.ikasgaia: Tratamenduei buruzko baieztapenen beste oinarri desegoki batzuk (1.atala)

↓ Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak




3. ikasgaia: Tratamenduei buruzko baieztapenen beste oinarri desegoki batzuk (1.atala)



52

3.ikasgaia: Tratamenduei buruzko baieztapenen beste oinarri desegoki batzuk (1.atala)

↓ Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

**Adibide osagarria:**

Ronalden baieztapena: "Arrain-olioa edateak osasuntsu mantentzen zaitu! Ziur nago, jende askok, denbora luzez, osasuntsu egoteko, arrain-olioa edan duelako!"

Tratamendua: Arrain-olioa edatea.



Efektua: Osasun hobea izatea.

Ronalden baieztapenaren oinarria: aspalditik eta jende askok edan du arrain-olioa.

Azalpena: Ronalden baieztapenaren oinarria ez da egokia; beraz, baieztapenak fidagarritasun gutxi du. Baliteke arrain-olioak zure osasuna ez hobetzea, nahiz eta jende askok aspalditik edan.

Informazioa: Osasun-ikertzaileek antzeman dute belar batzuek efektu positiboak dituztela. Esate baterako, piper minaren kremak bizkarreko mina leuntzen du. Alabaina, antzeman dute beste belar batzuek efektu positibo oso gutxi dituztela edo ez dutela batere efektu positiborik, eta batzuek efektu negatiboak dituztela. Adibidez, Areca catechu palmondoaren fruituak murtxikatzeak ahoko minbizia eragiten du. Belar ugari dago oraindik behar bezala aztertu gabe.

AHMEDEN BAIEZTAPENA



54 3.ikasgaia: Tratamenduei buruzko baieztapenen beste oinarri desegoki batzuk (1.atala)

↓ Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

**Adibide osagarria:**

Harrieten baieztapena: "Super Xaboiak beste xaboi batzuek baino infekzio gehiago saihesten ditu, berria delako eta oso garestia delako"


Tratamendua: Super Xaboa.

Efektua: Infekzio gutxiago.

Harrieten baieztapenaren oinarria: SuperXaboa berria eta garestia dela.

Azalpena: Harrieten baieztapenaren oinarria ez da egokia; beraz, baieztapenak fidagarritasun gutxi du. Baliteke xaboi zaharra Super Xaboa bezalakoa edo hobe izatea.

Informazioa: Pertsona askok betaurrekoak erabiltzen dituzte hobeto ikusteko. Horietako pertsona zailtasunak dituzte betaurreko gabe gertutik ikusteko. Hipermetropeak dira. Beste pertsona batzuek askok zailtasunak dituzte betaurreko gabe urrutira ikusteko. Miopeak dira. Betaurrekoek pertsona batek hobeto ikusteko balio izan dezaten, pertsona horren miopiara edo hipermetropiara egokitu beharko dute. Berriak edo garestiak izatea ez da garrantzitsua efektu horretarako.



Jarraian azaltzen dira hurrekin ozen irakurri duzuna errebasatzeko galderak eta erantzunak:

1. Zein zen Ruthen baieztapena?

Bere landareak gaixotasunak sendatzen dituela zen Ruthen baieztapena.

2. Zergatik zuen fidagarritasun gutxi Ruthen baieztapenak?

Pertsona askok denbora askoan belarra erabili izana zen Ruthen baieztapenaren oinarria. Tratamendua aspalditik erabiltzea edo pertsona askok erabiltzea ez dira oinarri egokiak tratamenduen efektuei buruzko baieztapenak egiteko. Aspalditik eta jende askok erabilitako tratamendu batzuek esandakoaz bestelako efektuak izaten dituzte. Adibidez, erredura batean behi-gorotza jartzeak.

3. Zein zen Ahmeden baieztapena?

Ahmeden baieztapena zen bere betaurrekoak beste betaurreko batzuk baino hobeak zirela.

4. Zergatik zuen fidagarritasun gutxi Ahmeden baieztapenak?

Ahmeden baieztapenaren oinarria zen bere betaurrekoak beste batzuk baino berriagoak eta garestiagoak zirela. Tratamendu bat berria izatea edo garestia izatea ez dira oinarri egokiak tratamendu baten efektuei buruzko baieztapenak egiteko. Tratamendu zahar eta merkeak tratamendu berriak bezain onak izan daitezke, edo hobeak. Ahmedek betaurreko zaharrekin bezain ongi ikusten zuen berriekin.

Behar izanez gero hurrei azalpenak emateko adibide gehigarriak

Jarraian, hurrek istorio honetan ikasi behar dutena azaltzen laguntzeko adibide gehiago dituzu. Beharrezkoa iruditzen bazaizu bakarrik erabili adibide hauek.

Tratamendu bat aspalditik erabiltzea edo pertsona askok erabiltzea zergatik ez dira oinarri egokiak tratamendu baten efektuei buruzko baieztapenak egiteko?:

Baieztapena: “Nire amonaren herrian sorgin bat dago, eta gaixotasunak sendatzen ditu! Badakit, pertsona asko joaten delako sorgin horrengana gaixo daudenean!”

Tratamendua: Sorginkeria erabiltzea

Efektua: Gaixotasunak sendatzea

Oinarria: Zenbat pertsona joan diren sorginaren gaixo zeudenean

Azalpena: Sorginaren gaixo den pertsona-kopurua ez da oinarri egokia baieztapen hori egiteko. Baliteke sorginkeriak ez izatea efekturik edo efektu negatiboak izatea. Baieztapena fidagarritasun gutxikoa da.

Tratamendu batek zenbat diru balio duen edo zenbateraino den berria ez dira oinarri egokiak tratamendu baten efektuei buruzko baieztapenak egiteko:

Baieztapena: “Krema honek diru asko balio du! Erabiltzen baduzu, beste krema batzuekin baino leunago izango duzu azala!”

Tratamendua: Krema erabiltzea

Efektua: Azala leunago izatea

Oinarria: Zenbat diru balio duen kremak

Azalpena: Kremak balio duen diru-kantitatea ez da oinarri egokia baieztapen hori egiteko. Baliteke diru gutxiago balio duten beste krema batzuk hura bezain onak edo hobeak izatea. Baieztapena fidagarritasun gutxikoa da.

JARDUERA



Jarraibideak



Helburua: Hainbat baieztapenen oinarria azaltzea

Idatzi arbelean hurrek ikasi dituzten oinarriak.

Mahai berean elkarrekin esertzen diren neska-mutilek talde bat osatuko dute.

Gida honetan, adibidearen hurrengo orrialdean dago baieztapenen zerrenda.

Irakasleak tratamenduen efektuei buruzko baieztapenen zerrenda bat du.

1. urratsa: Irakasleak tratamendu baten efektuei buruzko baieztapen bat irakurriko du.

2. urratsa: Taldeek eztabaidatuko dute zein izan daitekeen baieztapenaren oinarria.

3. urratsa: Irakasleak galdetuko die ea nork uste duen baieztapen horren oinarria dela tratamendua erabiltzen duen norbaiten esperientzia pertsonala.

4. urratsa: Hori uste duten taldeak altxatu egingo dira.

5. urratsa: Talde guztiak eseri egingo dira.

6. urratsa: Irakasleak galdetuko die ea zein taldek uste duen baieztapenaren oinarria dela aspalditik erabiltzea eta pertsona askok erabiltzea.

Jarraibide gehiago →

- Arbela:**
- Tratamendua erabiltzen duen norbaiten esperientzia pertsonala
 - Zenbat denboraz edo zenbat pertsonak erabili duten tratamendua
 - Zenbat diru balio duen edo zenbateraino den berria

JARDUERA



7. urratsa: Hori uste duten taldeak altxatu egingo dira.

8. urratsa: Talde guztiak eseri egingo dira.

9. urratsa: Irakasleak galdetuko du ea zein taldek uste duen baieztapenaren oinarria dela tratamenduaren prezioa edo berria izatea.

10. urratsa: Hori uste duten taldeak altxatu egingo dira.

11. urratsa: Talde guztiak eseri egingo dira.

12. urratsa: Irakasleak eskatuko die ikasleei erantzunaren azalpena emateko.

13. urratsa: Ikasleek beren erantzunaren azalpena emateko eskua altxatuko dute.

Hurrengo orrian adibide bat ikus daiteke →

58

3.ikasgaia: Tratamenduei buruzko baieztapenen beste oinarri desegoki batzuk (1.atala)

↓ Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

Jarraibideak: Eskatu haurrei eskua altxatzeko erantzun behar dutenean, baina galdetu eskua altxatzen ez duten haurrei ere. Garrantzitsua da gela osoak parte hartzea.

JARDUERA

**Adibidea:**

Irakasleak: "Georgeren aitak beti erosten du ura dendan. Georgek esaten du dendan erositako ura edatea beste edonongoa edatea baino hobe delako, garestia delako".

Taldeak eztabaidatuko du.

Irakasleak: " Nork uste du Georgeren baieztapenaren oinarria dela tratamendua erabiltzen duen norbaiten esperientzia pertsonala?"

Horrela pentsatzen duten taldeak altxatuko dira.

Irakasleak: "Nork uste du Georgeren baieztapenaren oinarria dela aspalditik erabili izana edo pertsona askok erabili izana tratamendua?"

Horrela dela pentsatzen duten taldeak altxatuko dira.

Irakasleak: "Nork uste du Georgeren baieztapenaren oinarria dela tratamenduaren prezioa edo berria izatea?"

Horrela pentsatzen duten taldeak altxatuko dira.

Irakasleak: "Azaldu zuen erantzunak, mesedez"

Neska-mutilak: "oinarria da zenbat balio duen tratamenduak. Georgek esan zuen urak diru asko balio zuela".

Irakasleak: " Oso ondo! Ez da baieztapen bat egiteko oinarri egokia. Horrek esan nahi du baieztapen horrek fidagarritasun gutxi duela. Dendan erositako ura garestiagoa izan arren, baliteke edateko bestelako ura baino hobe ez izatea".

Jarduerarako baieztapenen zerrenda

Rashidaren baieztapena: “Bizikletan ibiltzen ikasten ari nintzenean, lagun baten kaskoa jantzi nuen. Gero zorriak nituen! Kaskoa erabiltzen baduzu, zorriak izango dituzu!”

Tratamendua: Kasko bat erabiltzea

Efektua: Zorriak izatea

Oinarria: Rashidak kaskoa erabiltzen izan zuen esperientzia pertsonala

Azalpena: Baieztapena fidagarritasun gutxikoa da. Kasko gehienetan ez dago zorririk.

Antonyren baieztapena: “Tirita-mota berri bat da hau! Dendako beste tirita batzuek baino bizkorrago sendatzen ditu zauriak!”

Tratamendua: Tirita berrietako bat erabiltzea

Efektua: Zauri bat bizkorrago sendatzea

Oinarria: Tiritak zenbateraino diren berriak

Azalpena: Baieztapena fidagarritasun gutxikoa da. Baliteke tirita zaharrek zauriak berriekin bezain bizkor edo bizkorrago sendatzea. Baliteke, halaber, ez tirita berriek eta ez tirita zaharrek ez sendatzea zauriak bizkorrago.

Oliviaren baieztapena: “Jende guztiak daki azenarioak janda hobeto ikusiko duzula gauez!”

Tratamendua: Azenarioak jatea

Efektua: Gauez hobeto ikustea

Oinarria: Zenbat pertsonak jan dituzten azenarioak gauez hobeto ikusteko

Azalpena: Baieztapena fidagarritasun gutxikoa da. Baliteke azenarioak jateak ez izatea eraginik gauez ikusten duzun moduan.

Rhodaren baieztapena: “Sukarra daukadanean, baratxuri pixka bat jaten dut hobeto egoteko. Pertsonak aspalditik egiten dute hori; beraz, tratamendu ona da!”

Tratamendua: Baratxuria jatea

Efektua: Sukarra jaistea

Oinarria: Pertsonak zenbat denboran zehar jan duten baratxuria sukarra jaisteko

Azalpena: Baieztapena fidagarritasun gutxikoa da. Baliteke baratxuria jateak ez izatea inolako eraginik sukarrean.

Ericen baieztapena: “Futboleko bota hauek diru asko balio dute! Merezi dute prezio hori, indar handiagoarekin emango baitiot baloiari!”

Tratamendua: Futboleko bota horiek erabiltzea

Efektua: Indar handiagoarekin ematea baloiari

Oinarria: Zenbat diru balio duten futboleko botek

Azalpena: Baieztapena fidagarritasun gutxikoa da. Baliteke Ericek indar berarekin edo indar handiagoarekin ematea baloiari bota zaharrekin.

Arnolden baieztapena: “Gripea neukan, baina ordubetez lo egin nuen egunez, eta, geroago, jada ez neukan griperik! Egunez lo egiteak gripea sendatuko du nonbait!”

Tratamendua: Ordubetez lo egitea egunez

Efektua: Gripea sendatzea

Oinarria: Arnolden esperientzia pertsonala

Azalpena: Baliteke Arnoldi gripea sendatu izana egunez ordubete lo egin izan ez balu ere.



1. ARIKETA

Adierazi egia ala gezurra den.

Adibidea:

Tratamendu bat erabiltzen duen inoren esperientzia pertsonala oinarri egokia da tratamendu baten efektuei buruzko baieztapena egiteko.

Egia Gezurra

1. Jendeak, aspalditik, baieztapen bera egiten badu, ia beti zuzena izaten da.

Egia Gezurra

2. Jendeak, aspalditik, baieztapen bera egin duenean, batzuetan zuzena izaten da eta beste batzuetan ez da zuzena izaten.

Egia Gezurra

3. Milaka pertsonak baieztapen bera egiten badute, arrazoia dute.

Egia Gezurra

4. Tratamendua, zenbat eta garestiagoa, orduan eta hobea.

Egia Gezurra

5. Tratamendu berriak, zenbaitetan, zaharrak baino okerragoak izaten dira.

Egia Gezurra

60

3.ikasgaia: Tratamenduei buruzko baieztapenen beste oinarri desegoki batzuk (1.atala)

Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

Jarraibideak: Gogorazi hurrei baieztapenak idazteko ariketa-liburuaren amaieran.

2. ARIKETA

Esan zergatik duten fidagarritasun gutxi baieztapen hauek.

Adibidea:

Sarah-ek behi-gorotza jarri zuen erredura batean eta sendatu egin zitzaion. Horregatik berak dio behi-gorotzak erredurak sendatzen dituela.

Baieztapen horrek fidagarritasun gutxi du; izan ere ...

Sarah-en esperientzia pertsonalean bakarrik oinarritzen da. Baliteke

erredura sendatu izana behi-gorotza jarri gabe ere.

1. Michael, sukarra izan zuen egun batean, ur hotzetan bainatu zen. Handik ordubetera ia ez zuen sukarririk. Orain Michaelek dio ur hotzetan bainatzeak sukarra jaisten duela.

Baieztapen horrek fidagarritasun gutxi du; izan ere...

Michael, sukarra zuenean, ur hotzetan bainatu izanaren

esperientzia pertsonalean oinarritzen da baieztapena. Baliteke sukarra

denbora berean jaitsi izana ur hotzetan bainatu gabe ere.

2. Dendan hainbat kafe-mota daude. Mercy-ek garestiena erosten du. Berak esaten du hobe dela osasunerako, diru gehiago balio duelako.


Baieztapen horrek fidagarritasun gutxi du ; izan ere...

Kafe batek balio duen diru-kantitatean oinarritzen da baieztapena.

Baliteke beste kafe bat hura bezain ona edo hobe izatea osasunerako,

diru gutxiago balio izan arren ere.

Bete bereiz ikasgaiko ebaluazio-orria



IKASGAIKO EBALUAZIO-ORRIA

Hausnartutako Osasun Erabakiak egitasmoa

Ikasgaiko informazioa irakasleentzat

Askotan, ohiko tratamenduek edo tratamendu tradizionalak pertsonak uste dutenaren bestelako efektuak dituzte. Esate baterako, duela ehunka urte, Erdi Aroan, pertsonak uste zuten odolatan egonazteak (azala zulatu eta odolari ateratzen utzita) gaixotasunak sendatzen zituela. Gaur egun, ziur dakigu tratamendu horrek pertsonak uste zutenaren bestelako efektuak dituela. Tratamendu horrekin pertsona batzuk hil egin ziren. Tratamendua aspalditik erabiltzea edo pertsona askok erabiltzea ez dira oinarri egokiak tratamenduen efektuei buruzko baieztapenak egiteko.

Tratamendu bat berria izatea edo garestia izatea ere ez dira oinarri egokiak tratamendu baten efektuei buruzko baieztapenak egiteko. Batzuetan, tratamendu berri eta garestienek besteen efektu berdinak edo txarragoak izaten dituzte. Esate baterako, hortzetako pasta batzuk beste batzuk baino berriagoak eta garestiagoak dira, baina hortzetako pasta gehienek efektu berdinak dituzte, osagai berdinak dituztelako. Gainera, efektu negatibo batzuk ez dira agerikoak tratamendua erabili eta denbora bat igaro arte. Ezin gara ziur egon tratamendu berrien efektuez. Adibidez, Vioxx izeneko sendagai bat zegoen, eta milioika pertsonak erabiltzen zuten minaren aurka. Vioxx egiten zuen enpresak publizitate handia eman zion sendagaiari. Hala ere, handik denbora batera, osasun-ikertzaileek antzeman zuten sendagai horrek bihotzekoak eta iktusak eragiten zituela.



Irakasleak, gutxi gorabehera 100 hurreko gela bateko hurrek baliabideak probatu zituzten eskola batean, Uganda, 2016ko martxoan.

4.

IKASGAIA

**Tratamenduei buruzko baieztapenen
beste oinarri desegoki batzuk
(2. ZATIA)**

4. IKASGAIA

Tratamenduei buruzko baieztapenen beste oinarri desegoki batzuk (2. ZATIA)

Ikasgai hau prestatu eta emateko behar duzuna:

Helburuak	115. or.
Prestaketa	115. or.
Ikasgaia	116. or.
1. urratsa: Aurreko ikasgaia errepasatzea	117. or.
2. urratsa: Ozen irakurtzea	118. or.
3. urratsa: Eztabaidatzea	129. or.
4. urratsa: Jarduera gidatzea	131. or.
5. urratsa: Ariketak gidatzea	136. or.
6. urratsa: Ikasgaiko Ebaluazio-orria betetzea	139. or.
Ikasgaiko informazioa irakasleentzat	140. or.

Helburuak

Zer ikasi behar duten haurrek ikasgai honetan:

- Honako oinarri hauek zergatik ez dira egokiak tratamendu baten efektuei buruzko baieztapenak egiteko?
 1. Tratamendua saltzen duen pertsonak tratamenduari buruzko zerbait esatea
 2. Aritu batek tratamenduari buruzko zerbait esatea

Prestaketa (20 minutu)

Ikasgaiaren aurretik egin behar duzuna.

Aldez aurretik irakurri

- Irakurri testuliburuan ikasgai honi dagozkion orriak
- Irakurri gidan ikasgai honi dagozkion orriak

Bildu materiala

Ziurtatu honako hauek dituzula:

- Gida hau
- Ikasgaiko ebaluazio-orria
- Borragoma batzuk

Ziurtatu haur guztiek dituztela honako hauek:

- Testuliburuaren kopia bat
- Ariketa-liburua
- Arkatz bat edo boligrafo bat

Istorioaren laburpena: Johnek eta Juliekin Konparaketa eta Zuzena irakasleekin egin dute topo azokan. Azokan entzun dituzten baieztapenak idatziz jaso dituzte Johnek eta Juliekin. Irakasleek hiru baieztapen aukeratu dituzte, tratamenduen efektuei buruzko baieztapenen beste bi oinarri desegoki azaltzeko. Lehenengo, Mwaka jaunaren eta Nantaba andrearen baieztapenak erabili dituzte irakasleek adibide gisa. Mwaka jaunaren baieztapena bananei buruzkoa da, eta, Nantaba andrearena, mangoei buruzkoa. Bigarrenik, irakasleek Namuli andrearen baieztapena erabili dute adibide bezala. Namuli andrearen baieztapena makinatxo elektriko bati buruzkoa da.

Ikasgaia (80 minutu)

Jarraian, ikasgaia emateko plan bat proposatzen dizugu.

IRAKASLEA	HAURRAK	IRAUPENA
1. URRATSA Aurreko ikasgaia erreparasatzea		<i>10 min</i>
<ul style="list-style-type: none"> Erreparasatu aurreko ikasgaia, gida honetako 117. orrialdean azaltzen diren galderak erabiliz. 	<ul style="list-style-type: none"> Adierazi zaien moduan erantzungo dituzte galderak. 	
2. URRATSA Ozen irakurtzea		<i>25 min</i>
<ul style="list-style-type: none"> Gidatu ozen irakurtzeko prozesua gida honetako 118. orrialdetik aurrera. <i>Ozen irakurtzeko moduak kontsultatzeko, begiratu gida honetako 19. orrialdea.</i> 	<ul style="list-style-type: none"> Haurren testuliburua 62. orrialdean ireki, eta ozen irakurriko dute, adierazi zaien moduan. 	
ATSEDENA		<i>5 min</i>
3. URRATSA Eztabaidatzea		<i>10 min</i>
<ul style="list-style-type: none"> Has ezazu istorioari buruzko eztabaida bat, gida honetako 129. orrialdean azaltzen diren galderak erabiliz. Behar izanez gero, eman adibide gehiago; gida honetako 130. orrialdean dituzu 	<ul style="list-style-type: none"> Adierazi zaien moduan erantzungo dituzte galderak. 	
4. URRATSA Jarduera gidatzea		<i>15 min</i>
<ul style="list-style-type: none"> Zuzendu jarduera gida honetako 131. orrialdetik. 	<ul style="list-style-type: none"> Haurren testuliburua 73. orrialdean ireki, eta jarduera egingo dute, adierazi zaien moduan. 	
5. URRATSA Ariketak gidatzea		<i>10 min</i>
<ul style="list-style-type: none"> Gidatu ariketak gida honetako 136. orrialdetik. Lagundu haurrei ariketak egiten, eta gidatu ariketak zuzentzeko prozesua. <i>Ariketak zuzentzeko moduak kontsultatzeko, begiratu gida honetako 20. orrialdea.</i> 	<ul style="list-style-type: none"> Ariketa-liburua 20. orrialdean ireki, eta ariketak egingo dituzte. Testuliburua 76. orrialdean ireki, eta ariketak kopiatu eta egingo dituzte. 	
6. URRATSA Ebaluazio-orria betetzea		<i>5 min</i>
<ul style="list-style-type: none"> Bete ikasgaiko ebaluazio-orria 		

Jarraian, galdera batzuk eta haien erantzunak daude, aurreko ikasgaia errepasatzeko haurrekin.

1. Zein zen Ruthen baieztapena?

Bere landareak gaixotasunak sendatzen dituela zen Ruthen baieztapena.

2. Zergatik zuen fidagarritasun gutxi Ruthen baieztapenak?

Pertsona askok denbora askoan belarra erabili izana zen Ruthen baieztapenaren oinarria. Tratamendua aspalditik erabiltzea edo pertsona askok erabiltzea ez dira oinarri egokiak tratamenduen efektuei buruzko baieztapenak egiteko. Aspalditik eta jende askok erabilitako tratamendu batzuek esandakoaz bestelako efektuak izaten dituzte. Adibidez, erredura batean behi-gorotza jartzeak.

3. Zein zen Ahmeden baieztapena?

Ahmeden baieztapena zen bere betaurrekoak beste betaurreko batzuk baino hobekak zirela.

4. Zergatik zuen fidagarritasun gutxi Ahmeden baieztapenak?

Ahmeden baieztapenaren oinarria zen bere betaurrekoak beste batzuk baino berriagoak eta garestiagoak zirela. Tratamendu bat berria izatea edo garestia izatea ez dira oinarri egokiak tratamendu baten efektuei buruzko baieztapenak egiteko. Tratamendu zahar eta merkeak tratamendu berriak bezain onak izan daitezke, edo hobekak. Ahmedek betaurreko zaharrekin bezain ongi ikusten zuen berriekin.

*Johnek eta Juliek tratamenduei buruzko
BAIEZTAPENEN OINARRI DESEGOKIAK
aztertuko dituzte.*

4

Tratamenduei buruzko baieztapenen beste oinarri desegoki batzuk (2. atala)

Ikasgai honetan ikasiko duzu:

Honako oinarri hauek, zergatik ez dira egokiak tratamendu baten efektuei buruzko baieztapenak egiteko?

1. Tratamendua saltzen duen pertsonak tratamenduari buruzko zerbait esatea.
2. Aditu batek tratamenduari buruzko zerbait esatea.

Ikasgai honetako gako-hitza:

- **ADITUA** gai bati buruz asko dakien pertsona da.

Ikasgai honetako pertsonaiak



KONPARAKETA IRAKASLEA



ZUZENA IRAKASLEA



JOHN



JULIE



MWAKA JAUNA



NANTABA ANDREA



NAMULI ANDREA


Johnek eta Juliek azokan ezagutu dituzte pertsona jator horiek. Denek erosi dute tratamenduren bat.

4. ikasgaia: Tratamenduei buruzko baieztapenen beste oinarri desegoki batzuk (2. atala)

63




↓ Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

AZOKA



64 4. ikasgaia: Tratamenduei buruzko baieztapenen beste oinarri desegoki batzuk (2. atala)

↓ Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak



MWAKA JAUNAREN ETA NANTABA ANDREAREN BAIEZTAPENAK



66 4. ikasgaia: Tratamenduei buruzko baieztapenen beste oinarri desegoki batzuk (2. atala)

Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

**Adibide osagarria:**

Acheng jaunaren baieztapena: "Suge-olio honek edozein gaixotasun sendatzen du, saltzen duen pertsona batek irratian esan zuelako!"

Tratamendua: Suge-olioa.

Efektua: Gaixotasunak sendatzea.

Oinarria: Saltzen zuenak irratian esandakoa.

Azalpena: Acheng jaunaren baieztapenaren oinarria ez da egokia; beraz, baieztapenak fidagarritasun gutxi du. Baliteke suge-olioa saltzen duenak gaixotasunak sendatzen dituela esatea, horrela, jendeak sinesten badu, diru gehiago irabaziko duelako.

Informazioa: Bananek potasioa (nutriente bat) eta zuntza dute. Bi elementu horiek onak izan daitezke osasunerako. Gainera, B6 eta A bitaminak dituzte, zeinak beharrezkoak baitira gure gorputzerako. Mangoek zuntza, A bitamina, C bitamina eta beste bitamina garrantzitsu batzuk dituzte. Beste hitz batzuetan esanda, bananak jatea eta mangoak jatea ona da osasunerako, modu desberdinean.

NAMULI ANDREAREN BAIEZTAPENA

Bukatzeko, har dezagun hau!

Ados!



Namuli andrea?

Hemen!



Egun on, irakasleak! Makinatxo elektriko honen soinua entzutean, eltxoek ihes egiten dute. Malariatik babesten gaitu! Ziur nago, aditu batek esan zidan! Eta asko daki eltxoei buruz...

**ADITUA**

Gai bati buruz asko dakien pertsona da.

**Adibide osagarria:**

Opio jaunaren baieztapena: "Belar-te hau edanez gero, giharretako mina desagertuko zaizu! Belar saltzaile batek esan zidan! Jende askok giharretako minarentzat edaten duela esan zuen!"

Tratamendua: Belar-tea edatea.

Efektua: Giharretako mina desagertu egiten da.

Opio jaunaren baieztapenaren oinarria: Aditu batek teari buruz esan zuena.

Azalpena: Opio jaunaren baieztapenaren oinarria ez da egokia; beraz fidagarritasun gutxi du. Soilik, belar-saltzaileak esandakoan oinarritzen da, eta baliteke oker egotea. Belar-saltzailearen baieztapena oinarritzen da bakarrik tratamendua erabili duten pertsonengan. Eta hori ez da oinarri egokia.

4. ikasgaia: Tratamenduei buruzko baieztapenen beste oinarri desegoki batzuk (2. atala)

69

↓ Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

Informazioa: Osasun-ikertzaileek arretaz aztertu dituzte halako makinak, eta antzeman dute ez dituztela urrun mantentzen eltxoak; beraz, ez dute malaria saihesten.



70 4. ikasgaia: Tratamenduei buruzko baieztapenen beste oinarri desegoki batzuk (2. atala)

Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

Azalpena: Adituen baieztapenak fidagarriak dira pertsona askoren arteko konparaketa zuzenetan oinarritzen direnean; hain zuzen, hori ikasiko dute haurrek liburuko hurrengo ikasgaietan.

Baina, irakasleak, zein oinarri da egokia tratamendu bati buruzko baieztapen bat egiteko? Zein baieztapen dira fidagarriak?



Datorren astean ekingo diogu horri.



Etorri unibertsitateko bulegora eta han ikusiko dugu elkar!.





72 4. ikasgaia: Tratamenduei buruzko baieztapenen beste oinarri desegoki batzuk (2. atala)

↓ Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

Jarraian azaltzen dira hurrekin ozen irakurri duzuna errepasatzeko galdera eta erantzunak:

1. Zein zen Mwaka jaunaren baieztapena?

Bananak mangoak baino hobeak dira osasunerako.

2. Zein zen Nantaba andrearen baieztapena?

Mangoak bananak baino hobeak dira osasunerako.

3. Zergatik zuten fidagarritasun gutxi Mwaka jaunaren eta Nantaba andrearen baieztapenek?

Fruta-sailtzaileek esaten zutena zen baieztapen horien oinarria. Tratamendua saltzen duen pertsonak diru gehiago irabaziko du tratamenduak efektu positiboak dituela uste badu jendeak. Hori izan daiteke arrazoa pertsona horrek baieztatzeke tratamenduak efektu positiboak dituela, egia izan ala ez.

4. Zein zen Namuli andrearen baieztapena?

Namuli andreak baieztatzen zuen bere makinatxo elektrikoak malaria izatetik babesten duela.

5. Zergatik zuen fidagarritasun gutxi Namuli andrearen baieztapenak?

Haren baieztapenaren oinarria zen aditu batek esan zuena. Hori ez da oinarri egokia baieztapen hori egiteko. Esate baterako, aditu batek tratamendu bat erabiltzen izan duen esperientzia pertsonalean oinarritzen badu tratamendu horren efektuei buruzko baieztapen bat, aditu horren baieztapenak fidagarritasun gutxi du, eta ez da oinarri egoki bat beste pertsona batek tratamendu horren efektuei buruzko baieztapen bat egiteko.

Haurrei azalpenak emateko adibide osagarriak

Jarraian, adibide gehiago dituzu hurrek istoriotik zer ikasi behar duten azaltzen laguntzeko. Beharrezkoa baldin bada bakarrik erabili adibideok.

Zergatik tratamendua saltzen duen pertsonak esandakoa ez den oinarri egokia tratamendu bati buruzko baieztapenak egiteko.

Baieztapena: “Xaboi honek azala leunago utziko dizu! Xaboa saldu zidanak esan zidan!”

Tratamendua: Xaboa erabiltzea

Efektua: Azala leunago izatea

Oinarria: Tratamendua saltzen duen pertsonak esaten duena

Azalpena: Tratamendua saltzen duen pertsonak esaten duena ez da baieztapen hori egiteko oinarri egokia. Baliteke pertsona horrek diru gehiago irabazteko esatea hori. Baieztapenak fidagarritasun gutxi du.

Zergatik aditu batek esandakoa ez den oinarri egokia tratamendu bati buruzko baieztapenak egiteko.

Baieztapena: “Belar-saltzaile batek esan zidan belar-te honek muskuluetako mina kenduko didala. Egia izango da, belar-saltzailea te-gaietan aditua da eta! Belar- saltzaileak esan zidan ziur dagoela, jendeak aspalditik hartzen duelako tea muskuluetako mina kentzeko”

Tratamendua: Belar-tea edatea

Efektua: Muskuluetako mina kentzea

Oinarria: Belar-saltzaileak esaten duena

Azalpena: Belar-saltzaileak esaten duena ez da oinarri egokia baieztapen hori egiteko. Jendeak muskuluetako mina kentzeko belar-tea zenbat denboran hartu izan duen erabiltzen zuen oinarri gisa. Hori baino ez. Baliteke teak efekturik ez izatea muskuluetako minean. Eta baliteke teak efektu negatiboak izatea. Baieztapenak fidagarritasun gutxi du.

JARDUERA

Jarraibideak



Helburuak: baieztapenen oinarriak azaldu.

Idatzi arbelean haurrek ikasi dituzten oinarriak



Jarduera hau 3. ikasgaiko jarduera bera da. Baina, oraingo honetan, taldeek, tratamenduen efektuei buruzko baieztapen bakoitzeko, 5 oinarriren artean aukeratu behar dute.

Mahai berean, elkarrekin esertzen diren neska-mutilek talde bat osatuko dute.

Irakasleak tratamenduen efektuei buruzko baieztapen-zerrenda bat dauka.

Gida honetan, adibidearen hurrengo orrialdean dago baieztapenen zerrenda.

1. *urratsa:* Irakasleak irakurriko du tratamendu baten efektuei buruzko baieztapen bat.
2. *urratsa:* Taldeek eztabaidatuko dute zein den baieztapenaren oinarria.
3. *urratsa:* Irakasleak galdetuko die taldeei zein den euren ustez baieztapenaren oinarria.
4. *urratsa:* Taldeak altxatuko dira erantzuteko eta gero eseri egingo dira, 3. ikasgaiko jardueran bezala.
5. *urratsa:* Neska-mutilek eskua altxatuko dute erantzuna azaltzeko.

Garrantzitsua da gela osoak parte hartzea.

Hurrengo orrian adibide bat ikus daiteke. →

4. ikasgaia: Tratamenduei buruzko baieztapenen beste oinarri desegoki batzuk (2. atala)

73

↓ Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

- Arbela:**
- Tratamendua erabiltzen duen norbaiten esperientzia pertsonala
 - Zenbat denboraz edo zenbat pertsonak erabili duten tratamendua
 - Zenbat diru balio duen edo zenbateraino den berria
 - Tratamendua saltzen duenak hari buruz esaten duena
 - Aritu batek tratamenduari buruz esaten duena

JARDUERA

**Adibidea:**

Irakasleak: "Margareten entrenatzaileak asko daki kirolaz, bereziki, futbolaz. Margaretetik dio kirola egin ondoren ordu erdiz giharrak luzatzeak lesioak saihesten dituela. Horrela dela esaten du, bere entrenatzaileak esan duelako".

Taldeak eztabaidatuko dute.

Irakasleak: " Nork uste du Margaret-en baieztapenaren oinarria dela esperientzia pertsonala?"

Horrela pentsatzen duten taldeak altxatuko dira.

Irakasleak: "Nork uste du Margareten baieztapenaren oinarria dela aspalditik erabili izana edo lagun askok erabili izana?"

Horrela pentsatzen duten taldeak altxatuko dira.


Irakasleak: " Nork uste du Margareten baieztapenaren oinarria dela tratamenduaren prezioa edo berria izatea?"

Horrela uste duten taldeak altxatuko dira.

Irakasleak: " Nork pentsatzen du Margareten baieztapenaren oinarria dela aditu batek esandakoa izatea?"

Adibideak hurrengo orrian jarraitzen du. →

JARDUERA



Horrela pentsatzen duten taldeak altxatuko dira.

Irakasleak: "Azaldu zuen erantzunak, mesedez".

Ikasleak: "Oinarria da aditu batek tratamenduari buruz esan duena. Margaretetik esan zuten baieztapena zuzena zela bere entrenatzaileak esan zuelako, aditu batek, alegia".

Irakasleak: "Ondo! Horrek esan nahi du Margaretetik baieztapenak fidagarritasun gutxi duela! Beharbada, bere entrenatzailea oker zegoen!".

Jarduerarako baieztapenen zerrenda

Alexanderren baieztapena: “Haragi gehiago jateak indartsuagoa eta bizkorragoa egingo zaitu! Harakinari entzun nion!”

Tratamendua: Haragi gehiago jatea

Efektua: Indartsuagoa eta bizkorragoa izatea

Efektua: Harakinak Alexanderrri esan ziona

Azalpena: Baieztapena fidagarritasun gutxikoa da. Baliteke haragi gehiago saltzeko esatea hori harakinak.

Cateren baieztapena: “Buruko mina duzunean, toalla bat ur hotzetan sartu behar duzu, eta toalla hori buruan jarri! Mina arinduko dizu! Jende askok egiten du!”

Tratamendua: Toalla bat ur hotzetan sartu eta toalla hori buruan jartzea

Efektua: Buruko mina gutxiagotzea

Efektua: Zenbat pertsonak erabili duten tratamendua

Azalpena: Baieztapena fidagarritasun gutxikoa da. Baliteke toalla bat ur hotzetan sartu eta gero toalla hori buruan jartzeak ez izatea inolako efekturik buruko minean.

Patricken baieztapena: “Txokolatea jateak buruko mina kentzen du!

Badakit, txokolatea jan bainuen buruko mina nuenean, eta mina oso azkar joan zen!”

Tratamendua: Txokolatea jatea

Efektua: Buruko mina kentzea

Efektua: Patrickek txokolatea jatean bizi izandako esperientzia

Azalpena: Baieztapena fidagarritasun gutxikoa da. Baliteke Patricken buruko mina denbora berean desagertu izana txokolaterik jan gabe ere.

Agnesen baieztapena: “Te-orriak murtxikatzeak sabeleko mina kentzen du! Halako tratamenduetan aditua den belar-saltzaile batek esan zidan! Belar-saltzaileak esan zuen pertsonak aspalditik murtxikatu dituztela te-orriak sabeleko minari aurre egiteko!”

Tratamendua: Te-orriak murtxikatzea

Efektua: Sabeleko mina kentzea

Efektua: Belar-saltzaileak te-orriak murtxikatzeari buruz esan zuena

Azalpena: Baieztapena fidagarritasun gutxikoa da. Belar-saltzailearen baieztapena oinarritzen da pertsonak sabeleko minari aurre egiteko te-orriak murtxikatu dituzten denboran. Baliteke te-orriak murtxikatzeak ez izatea inolako eraginik sabeleko minean, pertsonak aspalditik erabili izan arren.

Aliren baieztapena: “Esne honek beste esne batzuek baino indartsuagoa egingo zaitu! Diru asko balio du!”

Tratamendua: Esne hori edatea

Efektua: Indartsuagoa izatea

Efektua: Zenbat diru balio duen esneak

Azalpena: Baieztapena fidagarritasun gutxikoa da. Baliteke beste esne bat edateak indar berdina edo indar handiagoa ematea.



1. ARIKETA

Adierazi egia ala gezurra den.

Adibidea:

Zenbat eta berriagoa izan tratamendua, hobe izango da.

Egia Gezurra

1. Batzuetan, tratamendu berriak zaharrak baino okerragoak izaten dira.

Egia Gezurra

2. Aritu guztiek ez dituzte baieztapen fidagarriak egiten.

Egia Gezurra

3. Aritua izan arren, esperientzia pertsonalean oinarrituriko baieztapen bat egiten bada, baieztapen horrek fidagarritasun gutxi izango du.

Egia Gezurra

4. Baieztapen baten oinarria, nork egin duen baino garrantzitsuagoa da.

Egia Gezurra

76

4. ikasgaia: Tratamenduei buruzko baieztapenen beste oinarri desegoki batzuk (2. atala)

Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

Jarraibideak: Gogorazi hurrei baieztapenak ariketa-liburuaren amaieran idazteko.

2. ARIKETA

Adierazi zergatik duten baieztapen hauek fidagarritasun gutxi.

Adibidea:

Alicek egunero patatak jaten ditu. Berak esaten du patatek indartsuago bihurtzen dutela, jende askok esan diolako.

Baieztapen horrek fidagarritasun gutxi du; izan ere...

Oinarria da zenbat pertsonak esan duten patatak jateak indartsuago

bihurtzen zaituztela. Oinarri hori ez da baieztapen bat egiteko egokia.

1. Christopherrek kandela batzuk erosi ditu. Hark dio erabiltzen badituzu ez duzula malaria izango. Ziur dagoela dio, kandela saltzaileek hori esaten dutelako.

Baieztapen horrek fidagarritasun gutxi du; izan ere ...

Tratamendua saltzen zuen pertsonak esan zuen zerbait da oinarria.

Oinarri hori ez da baieztapen bat egiteko egokia.



2. ARIKETA

2. Josephinek esaten du zopa jateak gripea sendatzen duela. Berak dio egia dela sukaldari batek esan diolako. Sukaldariak asko daki elikagaiez.

Baieztapen horrek fidagarritasun gutxi du; izan ere ...

Aditu batek tratamenduari buruz esan zuen zerbait da oinarria. Oinarri hori

ez da baieztapen bat egiteko egokia.

3. Rehemak entzun zion arrantzale bati osasunerako hobe zela arrain egosia jatea plantxan egindakoa baino. Berak dio arrantzaleak arrazoia duela, arrainaz asko dakielako.

Baieztapen horrek fidagarritasun gutxi du; izan ere ...

Aditu batek tratamenduari buruz esan zuen zerbait da oinarria. Oinarri hori


ez da baieztapen bat egiteko egokia.

78

4. ikasgaia: Tratamenduei buruzko baieztapenen beste oinarri desegoki batzuk (2. atala)

 Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

Bete bereiz ikasgaiko ebaluazio-orria.



IKASGAIKO EBALUAZIO-ORRIA

Hausnartutako Osasun Erabakiak egitasmoa

Ikasgaiko informazioa irakasleentzat

Tratamenduak saltzen dituzten pertsonak tratamenduen efektuei buruzko baieztapen ugari egiten dituzte. Baieztapen horien arrazoiak egokiak diren ala ez galdetu behar duzu beti. Erraza da nahastea, tratamendu bat saltzen bada eta jende askok ordaintzen badu haren truke, zehatz-mehatz probatuko zela pentsa daitekeelako. Tratamenduei buruzko baieztapenek produktuaren deskribapenak dirudite, baina baieztapenak dira, beste edozein bezala.

Tratamenduak saltzen dituzten pertsonak zenbait interes izan ditzakete. Interesa diogunean, esan nahi dugu haien interesak onak den zerbait. Bezeroei tratamenduekin laguntzeko interesa dute, baina dirua irabazteko interesa ere badute. Bi interes horien arteko lehia dago, hau da, interes-gatazka. Batzuetan, tratamendu bat saltzen duen pertsona batek interes-gatazka bat duenean, interes-gatazka horren ondorioz fidagarritasun gutxiago baieztapenak egiten ditu tratamenduen inguruan.

Adituek ere fidagarritasun gutxiago baieztapenak egiten dituzte batzuetan. Adibidez, medikuek eta beste aditu batzuek esan izan dute ohean denbora askoan atsedean hartzen egotea onak dela gaixotasun askoren aurka, bihotzekoen eta bizkarreko minaren kasuan ere bai. Beste aditu batzuk ez datoz bat. Osasun-ikertzaileek antzeman dute tratamendu horren efektu positiboak ez direla hain positiboak. Antzeman dute tratamenduak ez duela inolako efektu positiborik kasu batzuetan. Gainera, antzeman zuten denbora gehiegiz atsedean hartzeak efektu negatiboak izan ditzakeela. Sarritan, adituak ez dira bat etorriko tratamendu baten efektuen inguruan. Guztiak dira adituak, baina guztiek ezin dute arrazoiak eduki.





Haurrak ozen irakurtzen elkarrekin, Uganda, 2016ko urtarrila.

5.

IKASGAIA

Tratamenduen arteko konparaketak

5. IKASGAIA

Tratamenduen arteko konparaketak

Ikasgai hau prestatu eta emateko behar duzuna:

Helburuak	145. or.
Prestaketa	145. or.
Ikasgaia	146. or.
1. urratsa: Aurreko ikasgaia erreparatzea	147. or.
2. urratsa: Ozen irakurtzea	148. or.
3. urratsa: Eztabaidatzea	161. or.
4. urratsa: Jarduera gidatzea	163. or.
5. urratsa: Ariketak gidatzea	166. or.
6. urratsa: Ikasgaiko ebaluazio-orria betetzea	170. or.
Ikasgaiko informazioa irakasleentzat	171. or.

Helburuak

Zer ikasi behar duten haurrek ikasgai honetan:

- Osasun-ikertzaileek zergatik konparatu behar duten tratamendu bat beste batekin edo zergatik ez duten konparatu behar beste inolako tratamendurekin

Prestaketa (20 minutu)

Ikasgaiaren aurretik egin behar duzuna.

Aldez aurretik irakurri

- Irakurri testuliburuan ikasgai honi dagozkion orriak
- Irakurri gidan ikasgai honi dagozkion orriak

Bildu materiala

Ziurtatu honako hauek dituzula:

- Gida hau
- Ikasgaiko ebaluazio-orria
- Borragoma batzuk

Ziurtatu haur guztiek dituztela honako hauek :

- Testuliburuaren kopia bat
- Ariketa-liburua
- Arkatz bat edo boligrafo bat

Istorioaren laburpena: John eta Julie irakasleak bisitatzera joan dira, unibertsitateko bulegora. Irakasleek Johni eta Julieri irakatsi diete baieztapen fidagarriak osasun-ikerketan oinarrituta daudela. Irakasleek azaldu diete osasun-ikertzaileek zer egin behar duten tratamendu baten efektuei buruzko aurkikuntza gehiago egiteko. Lehenik eta behin, galdera bihurtu behar dute tratamendu bati buruzko baieztapen bat. Gero, tratamendua beste batekin konparatu behar dute, edo ez dute beste inolako tratamendurekin konparatzen. Hau da, pertsona-talde bati eman behar diete tratamendu bat, eta beste pertsona-talde bati beste tratamendua, edo tratamendurik ez. Azkenik, zer gertatzen den neurtu behar dute, eta taldeetan gertatzen dena konparatu.

Ikasgaia (80 minutu)

Jarraian, ikasgaia emateko plan bat proposatzen dizugu.

IRAKASLEA	HAURRAK	IRAUPENA
1. URRATSA Aurreko ikasgaia errepasatzea		<i>10 min</i>
<ul style="list-style-type: none"> Errepasatu aurreko ikasgaia, gida honetako 147. orrialdean azaltzen diren galderak erabiliz. 	<ul style="list-style-type: none"> Adierazi zaien moduan erantzungo dituzte galderak 	
2. URRATSA Ozen irakurtzea		<i>25 min</i>
<ul style="list-style-type: none"> Gidatu ozen irakurtzeko prozesua gida honetako 148. orrialdetik aurrera. <i>Ozen irakurtzeko moduak kontsultatzeko, begiratu gida honetako 19. orrialdea.</i> 	<ul style="list-style-type: none"> Haurren testuliburua 80. orrialdean ireki, eta ozen irakurriko dute, adierazi zaien moduan. 	
ATSEDENA		<i>5 min</i>
3. URRATSA Eztabaidatzea		<i>10 min</i>
<ul style="list-style-type: none"> Has ezazu istorioari buruzko eztabaida bat, gida honetako 161. orrialdean azaltzen diren galderak erabiliz. 	<ul style="list-style-type: none"> Adierazi zaien moduan erantzungo dituzte galderak. 	
4. URRATSA Jarduera gidatzea		<i>15 min</i>
<ul style="list-style-type: none"> Zuzendu jarduera gida honetako 163. orrialdetik. 	<ul style="list-style-type: none"> Haurren testuliburua 93. orrialdean ireki, eta jarduera egingo dute, adierazi zaien moduan. 	
5. URRATSA Ariketak gidatzea		<i>10 min</i>
<ul style="list-style-type: none"> Gidatu ariketak gida honetako 166. orrialdetik. Lagundu hurrei ariketak egiten, eta gidatu ariketak zuzentzeko prozesua. <i>Ariketak zuzentzeko moduak kontsultatzeko, begiratu gida honetako 20. orrialdea.</i> 	<ul style="list-style-type: none"> Ariketa-liburua 26. orrialdean ireki, eta ariketak egingo dituzte. Testuliburua 96. orrialdean ireki, eta ariketak kopiatu eta egingo dituzte. 	
6. URRATSA Ebaluazio-orria betetzea		<i>5 min</i>
<ul style="list-style-type: none"> Bete ikasgaiko ebaluazio-orria 		

Jarraian, galdera batzuk eta haien erantzunak daude, aurreko ikasgaia errepasatzeko haurrekin.

1. Zein zen Mwaka jaunaren baieztapena?

Bananak mangoak baino hobek dira osasunerako.

2. Zein zen Nantaba andrearen baieztapena?

Mangoak bananak baino hobek dira osasunerako.

3. Zergatik zuten fidagarritasun gutxi Mwaka jaunaren eta Nantaba andrearen baieztapenek?

Fruta-sailtzaileek esaten zutena zen baieztapen horien oinarria. Tratamendua saltzen duen pertsonak diru gehiago irabaziko du tratamenduak efektu positiboak dituela uste badu jendeak. Hori izan daiteke arrazoa pertsona horrek baieztatzekeo tratamenduak efektu positiboak dituela, egia izan ala ez.

4. Zein zen Namuli andrearen baieztapena?

Namuli andreak baieztatzen zuen bere makinatxo elektrikoak malaria izatetik babesten duela.

5. Zergatik zuen fidagarritasun gutxi Namuli andrearen baieztapenak?

Haren baieztapenaren oinarria zen aditu batek esan zuena. Hori ez da oinarri egokia baieztapen hori egiteko. Esate baterako, aditu batek tratamendu bat erabiltzen izan duen esperientzia pertsonalean oinarritzen badu tratamendu horren efektuei buruzko baieztapen bat, aditu horren baieztapenak fidagarritasun gutxi du, eta ez da oinarri egoki bat beste pertsona batek tratamendu horren efektuei buruzko baieztapen bat egiteko.

*Johnek eta Juliek tratamenduen arteko
KONPARAKETEI buruz ikasiko dute.*

5

Tratamenduen arteko konparaketak

Ikasgai honetan hau ikasiko duzu:

1. Osasun-ikertzaileek zergatik egin behar dituzte tratamenduen konparaketak. Batzuetan konparaketa hainbat tratamenduren artean egiten dute, eta beste batzuetan, tratamendua erabili eta ez erabiltzearen arteko konparaketa egiten dute.

Ikasgai honetako gako-hitzak:

- Baieztapen **FIDAGARRIA** da oinarri egokia duena.
- Tratamenduak **KONPARATZEA** bi tratamendu edo gehiagoren artean dauden aldeak begiratzea da.
- **IKERKETA-GALDERA** ikertzaileak erantzuten saiatzen diren galdera da.

80 5. ikasgaia : Tratamenduen arteko konparaketak

Ikasgai honetako pertsonaiak



KONPARAKETA IRAKASLEA



ZUZENA IRAKASLEA



JOHN




JULIE

IRAKASLEEN BULEGOA



82 5. ikasgaia : Tratamenduen arteko konparaketak

↓ Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak




Baieztapen **FIDAGARRI**a da oinarri egokia duena.




Tratamenduak **KONPARATZEA** da bi tratamendu edo gehiagoren arteko desberdintasunak aztertzea.

Baina ezer baino lehen, osasun-ikertzaileek baieztapen bat egiten dute tratamendu baten inguruan.



Gero baieztapena galdera bihurtzen dute, eta galderari erantzuten saiatzen dira.



Ikerketa-galdera deitzen zaio.




IKERKETA GALDERA

Adibide batez azalduko dizuegu.



IKERKETA-GALDERA da ikertzaileak erantzuten saiatzen diren galdera.


Gogoratzen al duzue Namuli andreak azokan egindako baieztapena?



Bai. Namuli andreak esan zuen makina horrek malaria saihesten zuela.



Horixe bera!



Bere baieztapena galdera bihurtuko dugu.



IKERKETA GALDERA:
MAKINA ERABILTZEAK



IKERKETA GALDERA:
MAKINA ERABILTZEAK
BABESTEN AL DU MALARIA
IZATETIK?












Tratamenduak erabili ondoren, ikertzaileek zer gertatu den **neurtzen** dute.



Eta, ondoren, talde bakoitzean gertatutakoa konparatzen dute.



Zer antzeman zuten gure adibidean?



Antzeman zuten bi taldeetan gauza bera gertatzen zela!



NEURTzea

zerbaiten tamaina edo kopurua begiratzea da.

90 5. ikasgaia : Tratamenduen arteko konparaketak

↓ Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak



Adibide osagarriak: Ikerketa-gadera bihurtu ziren baieztapenen adibideak

1, adibidea:

Baieztapena: azalean baselina emateak azala leunduko dizu!

Ikerketa-gadera: Azala, baselina emanaz gero, eman gabe baino leunago al dago?

2. adibidea:

Baieztapena: gauean hobeto egingo duzu lo, egunez kafea hartu beharrean tea hartzen baduzu!

Ikerketa-gadera: Gauean hobeto lo egiten duzu, egunez tea hartzen duzunean kafea hartzen duzunean baino?

Konparaketa baten ondoren zerbait **ANTZEMATEA** da desberdintasun edo antzekotasun bat aurkitzea.



Informazioa : Intsektizidadun eltxo-sare batekin lo egiten duten pertsonak eta eltxo-sarerik gabe edo intsektizidarik gabeko eltxo-sare batekin lo egiten duten pertsonak konparatu dituzte ikertzaileek. Intsektizidadun eltxo-sareak oso eraginkorrak dira malaria hartzen duten eta malariaren ondorioz hiltzen diren haurren kopurua jaisteko.

Jarraian azaltzen dira hurrekin ozen irakurri duzuen errepasatzeko galdera eta erantzunak:

1. Osasun-ikertzaileek zer egiten dute lehenengo urrats gisa tratamendu baten efektuei buruzko aurkikuntza gehiago egiteko?

Baieztapen bat ikerketa-galdera bilakatzen dute.

2. Zer tratamendu konparatu zuten osasun-ikertzaileek Namuli andrearen makina erabilita?

Makina itzalita erabiltzea; ez erabiltzea bezalakoxea da hori.

3. Zer ikusi zuten osasun-ikertzaileek?

Ikusi zuten makina erabiltzeak ez daukala efektu garrantzitsurik.

4. Zer antzeman zuten osasun-ikertzaileek eltxo-sarearekin lo egitearen efektuen inguruan?

Antzeman zuten intsektizidadun eltxo-sareek pertsonak malariatik babesten dituztela.

Ez dago adibide gehigarrik hurrei ikasgai hau irakasteko.

JARDUERA



Jarraibideak

Helburua: Azaltzea osasun-ikertzaileek zergatik konparatu behar dituzten tratamenduak.

4. jardueraren 1. atala: efektu bat ikusten saiatzea konparaketarik egin gabe...

1. *urratsa:* Ikasleek eskuak belarrien atzean jarriko dituzte, goiko irudian ikusten den bezala.
2. *urratsa:* Irakasleak ahoa estali eta ahapeka hitz bat esango du. Neska- mutilak irakasleak esandakoa entzuten saiatuko dira. **Esan “gona” edo “tona”. Idatzi “gona” eta “tona” arbelaren alde banatan.**
3. *urratsa:* Irakasleak bi hitz idatziko ditu arbelean. Horietako bat esan berria izango da.
4. *urratsa:* Irakasleak galdetuko du nork uste duen arbeleko lehen hitza dela irakasleak esandakoa.
5. *urratsa:* Horrela uste duten neska-mutilak altxatu egingo dira.
6. *urratsa:* Neska-mutil guztiak eseri egingo dira.
7. *urratsa:* Irakasleak galdetuko du ea nork uste duen arbeleko bigarren hitza dela irakasleak esandakoa.

Jarraibide gehiago →

JARDUERA



8. urratsa: Horrela dela uste duten neska-mutilak altxatu egingo dira.

9. urratsa: Neska-mutil guztiak eseri egingo dira.

10. urratsa: Irakasleak esango du zein zen berak ahapeka esandako hitza

11. urratsa: Irakasleak gidatuta, neska-mutilek eztabaidatuko dute eskuak belarrien atzean jartzeak hobeto entzuten laguntzen ote duen.

Tratamendua (eskuak belarrien atzean jartzea) beste tratamendu batekin konparatu gabe, ezin duzu egin tratamenduen efektuei buruzko aurkikuntza gehiago.



5. Jardueraren 2. atala: Konparaketa eginez, efektua ikusten saiatzea.

1. urratsa: Irakasleak bi taldetan banatuko ditu ikasleak.

2. urratsa: Irakasleak talde bat aukeratuko du, eskuak belarrien atzean jarrita entzuteko. Hori 1. taldea da.

Haurrak ikasmahaietan geratzen dira. Banatu bitan ikasgela: aurrealdekoak eta atzealdekoak. Aurreko haurrak 1. taldea dira.

Beste taldeak eskuak belarrien atzean jarri gabe entzungo du. Hori 2. taldea da

3. urratsa: Irakasleak ahoa estali eta hitz bat esango du ahapeka. Esan "pala" edo "talo". Idatzi "pala" eta "talo" arbelaren alde banatan.

4. urratsa: Irakasleak bi hitz idatziko ditu arbelean. Horietako bat irakasleak esan berria da.

Jarraibide gehiago →

JARDUERA



- 5. urratsa:** Irakasleak galdetuko du ea nork uste duen arbeleko lehen hitza dela irakasleak esandakoa.
- 6. urratsa:** Horrela dela uste duten neska-mutilak altxatu egingo dira.
- 7. urratsa:** Irakasleak zenbatuko du zenbat neska-mutil altxatu diren talde bakoitzean, eta arbelean idatziko du.
- 8. urratsa:** Neska-mutil guztiak eseri egingo dira.
- 9. urratsa:** Irakasleak galdetuko du ea nork uste duen arbeleko bigarren hitza dela irakasleak esandakoa.
- 10. urratsa:** Horrela dela uste duten neska-mutilak altxatu egingo dira.
- 11. urratsa:** Irakasleak zenbatuko du zenbat neska-mutil altxatu diren talde bakoitzean, eta arbelean idatziko du kopurua.
- 12. urratsa:** Neska-mutil guztiak eseri egingo dira.
- 13. urratsa:** Irakasleak esango du zein zen berak ahapeka esandako hitza.
- 14. urratsa:** Berriro, irakasleak gidatuta, neska-mutilek eztabaidatuko dute eskuak belarrien atzean jartzeak hobeto entzuten laguntzen ote duen.



Azalpena : Konparaketa egin ondoren, antzeman zenuen tratamenduak (eskuak belarrien atzean hobeto entzuten laguntzen dizula, ez dagoela desberdintasunik, edo hobeto entzutea zailtzen dizula. Hala jartzea ere, ezin duzu ziur jakin antzeman duzuna tratamenduaren efektua ote den, konparaketa ez delako izan zuzena, eta txikiegia izan delako. Datozen bi ikasgaietan ikasiko dute gehiago horri buruz hurrek.



1. ARIKETA

Idatzi hitz hauen esanahia. Gogoan izan liburuaren amaieran dauzkazula.

Adibidea:

Zer da “osasun-ikertzaile” bat?

Osasun-ikertzaile bat osasuna arreta handiz aztertzen duen pertsona da,

zerbait gehiago aurkitzeko asmoz.

1. Zer da baieztapen “fidagarri” bat?

Baieztapen fidagarri bat da oinarri egoki bat duena.

2. Zer da tratamenduen arteko “konparaketa”?

Tratamenduen arteko konparaketa bat da bi tratamendu edo gehiagoren

arteko desberdintasunak behatzea

3. Zer da “neurtzea”?

Neurtzea da zerbaiten tamaina edo kopurua begiratzea.

2. ARIKETA

Aukeratu tratamenduen arteko konparaketak neurtzeko modurik onena.

Adibidea:

Pertsonen pisua, tratamendu desberdinak egin ondoren.

Baskula batean pisatzea Begiratzea

1. Lasterketa-abiadura, tratamendu desberdinak egin ondoren.

Kronometratzea Galdetzea

2. Sukarra duten ala ez, tratamendu desberdinak egin ondoren.


Kopeta ukitzea Usaintzea

3. Buruko mina duten ala ez, tratamendu desberdinak egin ondoren.

Galdetzea Begiratzea

3. ARIKETA

Demagun aurpegiak pertsonak direla, eta pertsona horiek malariaren aurkako bi pilularen arteko konparaketan parte hartu dutela. A taldeko pertsonak pilula berri bat hartu zuten. B taldeko pertsonak pilula zahar bat hartu zuten.

Honelako aurpegiak malaria duen pertsona irudikatzen du: 

Neurtu taldeen arteko aldea.

Adibidea:

A taldea:



B taldea:

**Zenbat pertsona malariadun dago talde bakoitzean?**

A taldea: 20tik 10

B taldea: 20tik 5

Zein da taldeen arteko aldea?

20 pertsonatik, A taldean 5 pertsona malariadun gehiago zeuden..



3. ARIKETA


A taldea:



B taldea:

**Zenbat pertsona malariadun dago talde bakoitzean?**A taldea: 20tik 5B taldea: 20tik 11**Zein da taldeen arteko aldea?**20 pertsonatik, B taldean 6 pertsona malariadun gehiago zeuden..


A taldea:



B taldea:

**Zenbat pertsona malariadun dago talde bakoitzean?**A taldea: 50tik 17B taldea: 50tik 25**Zein da taldeen arteko aldea?**50 pertsonatik, 8 taldean B pertsona malariadun gehiago zeuden..

Bete bereiz ikasgaiko ebaluazio-orria.



IKASGAIKO EBALUAZIO-ORRIA

Hausnartutako Osasun Erabakiak egitasmoa

Ikasgaiko informazioa irakasleentzat

Ezinezkoa da tratamendu baten efektuak ezagutzea baldin eta ez bada konparatzen beste zerbaitekin. Gehienetan, tratamendua erabili duen pertsona-talde batean gertatzen dena eta tratamendua erabili ez duen pertsona-talde batean gertatzen dena konparatzen dute osasun-ikertzaileek. Batzuetan, beste taldeko pertsonak beste tratamendu bat jasotzen dute.

Esate baterako, osasun-ikertzaileek belar bedeinkatua (*Valeriana officinalis*) hartzea eta ez hartzea konparatu baino lehen, ezinezkoa zen ziur jakitea zer efektu zituen. Pertsona batzuek uste zuten belar bedeinkatuak hobeto lo egiten laguntzen zuela, gaizki lo eginez gero. Esperientzia pertsonaletan oinarritzen zen baieztapena. Azkenean, osasun-ikertzaileek belar bedeinkatua hartzea eta belar horren itxura eta usaina zuen beste tratamendu bat (osagai aktiborik gabea) hartzea konparatu zuten. Plazeboak dira halako tratamendu faltsuak. Belar bedeinkatua eman zioten talde bati, eta, besteari, plazeboa. Gero, bi taldeetan gertatutakoa aztertu zuten: ikusi zuten oso alde txikia zegoela bi taldeen artean, edo ez zegoela alderik. Hau da, ikusi zuten belar bedeinkatuak eragin txikia duela lo egiteko moduan edo ez duela eraginik, plazeboarekin alderatuta.

Konparaketak egin baino lehen, ikerketa-galdera bat eduki behar dute osasun-ikertzaileek. Baieztapenak galdera bihurtuta egiten dituzte ikerketa-galderak. Esate baterako, belar bedeinkatuak hobeto lo egiten laguntzen duela dioen baieztapena hobeto lo egiten laguntzen ote duen galdera bihurtu zuten. Zientzia edo ikerketa orok pertsonak egiazat dutena zalantzan jartzen dute lehenengo, zientzialari eta ikertzaileek egiazat dutena barne hartuta. Hurrengo urratsa arretaz aztertzea da, aurkikuntza gehiago egiteko, ziurrago jakin ahal izateko ideia hori zuzena ala faltsua den.



Allen Nsangi proiektu-taldeko kidea probetan, irakasle batekin hizketan, Uganda, 2014ko urria.

6.

IKASGAIA

**Tratamenduen arteko
konparaketa zuzenak**

6. IKASGAIA

Tratamenduen arteko konparaketa zuzenak

Ikasgai hau prestatu eta emateko behar duzuna:

Helburuak	175. or.
Prestaketa	175. or.
Ikasgaia	176. or.
1. urratsa: Aurreko ikasgaia errepatatzea	177. or.
2. urratsa: Ozen irakurtzea	178. or.
3. urratsa: Eztabaidatzea	197. or.
4. urratsa: Jarduera gidatzea	199. or.
5. urratsa: Ariketak gidatzea	201. or.
6. urratsa: Ikasgaiko ebaluazio-orria betetzea	204. or.
Ikasgaiko informazioa irakasleentzat	205. or.

Helburuak

Zer ikasi behar duten haurrek ikasgai honetan:

- Zer da tratamenduen arteko konparaketa zuzen bat?
- Osasun-ikertzaileek tratamenduen arteko konparaketak egiten dituztenean, zergatik izan behar dute zuzenak?
- Zuzenak izateko nola egin behar dituzte konparaketak osasun ikertzaileek?

Prestaketa (20 minutu)

Ikasgaiaren aurretik egin behar duzuna.

Aldez aurretik irakurri

- Irakurri testuliburuan ikasgai honi dagozkion orriak
- Irakurri gidan ikasgai honi dagozkion orriak

Bildu materiala

Ziurtatu honako hauek dituzula:

- Gida hau
- Ikasgaiko ebaluazio-orria
- Borragoma batzuk

Ziurtatu haur guztiek dituztela hauek :

- Testuliburuaren kopia bat
- Ariketa-liburua
- Arkatz bat edo boligrafo bat

Istorioaren laburpena: Irakasleak John eta Julierekin geratu dira herriko kirol-zentroan. Johnek eta Juliekin 10 lagun elkartu dituzte. Osasun-ikerketari buruzko gauza gehiago irakatsi dizkiete irakasleek Johni eta Julieri. Konparaketa bat egin dute elkarrekin, Johnek eta Juliekin ikas dezaten osasun-ikertzaileek zergatik izan behar duten zuzenak tratamenduak konparatzen dituztenean. Hau da ikerketagalderra: korrika egin baino lehen zukua edateak ura edateak baino pertsona gehiagori eragiten al dio sabeleko mina?

Ikasgaia (80 minutu)

Jarraian, ikasgaia emateko plan bat proposatzen dizugu.

IRAKASLEA	HAURRAK	IRAUPENA
1. URRATSA Aurreko ikasgaia errepasatzea		<i>10 min</i>
<ul style="list-style-type: none"> Errepasatu aurreko ikasgaia, gida honetako 177 orrialdean azaltzen diren galderak erabiliz. 	<ul style="list-style-type: none"> Adierazi zaien moduan erantzungo dituzte galderak. 	
2. URRATSA Ozen irakurtzea		<i>25 min</i>
<ul style="list-style-type: none"> Gidatu ozen irakurtzeko prozesua gida honetako 178. orrialdetik aurrera. <i>Ozen irakurtzeko moduak kontsultatzeko, begiratu gida honetako 19. orrialdea.</i> 	<ul style="list-style-type: none"> Haurren testuliburua 100. orrialdean ireki, eta ozen irakurriko dute, adierazi zaien moduan. 	
ATSEDENA		<i>5 min</i>
3. URRATSA Eztabaidatzea		<i>10 min</i>
<ul style="list-style-type: none"> Has ezazu istorioari buruzko eztabaida bat, gida honetako 197. orrialdean azaltzen diren galderak erabiliz. Behar izanez gero, eman adibide gehiago; gida honetako 198. orrialdean dituzu. 	<ul style="list-style-type: none"> Adierazi zaien moduan erantzungo dituzte galderak. 	
4. URRATSA Jarduera gidatzea		<i>15 min</i>
<ul style="list-style-type: none"> Zuzendu jarduera gida honetako 199. orrialdetik. 	<ul style="list-style-type: none"> Haurren testuliburua 119. orrialdean ireki, eta jarduera egingo dute, adierazi zaien moduan 	
5. URRATSA Ariketak gidatzea		<i>10 min</i>
<ul style="list-style-type: none"> Gidatu ariketak gida honetako 201. orrialdetik. Lagundu hurrei ariketak egiten, eta gidatu ariketak zuzentzeko prozesua. <i>Ariketak zuzentzeko moduak kontsultatzeko, begiratu gida honetako 20. orrialdea.</i> 	<ul style="list-style-type: none"> Ariketa-liburua 32. orrialdean ireki, eta ariketak egingo dituzte. Testuliburua 121. orrialdean ireki, eta ariketak kopiatu eta egingo dituzte. 	
6. URRATSA Ebaluazio-orria betetzea		<i>5 min</i>
<ul style="list-style-type: none"> Bete ikasgaiko ebaluazio-orria 		

Jarraian, galdera batzuk eta haien erantzunak daude, aurreko ikasgaia errepasatzeko haurrekin.

1. Osasun-ikertzaileek zer egiten dute lehenengo urrats gisa tratamendu baten efektuei buruzko aurkikuntza gehiago egiteko?

Baieztapen bat ikerketa-galdera bilakatzen dute.

2. Zer tratamendu konparatu zuten osasun-ikertzaileek Namuli andrearen makina erabilia?

Makina itzalita erabiltzea; ez erabiltzea bezalakoxea da hori.

3. Zer ikusi zuten osasun-ikertzaileek?

Ikusi zuten makina erabiltzeak ez daukala efektu garrantzitsurik.

4. Zer antzeman zuten osasun-ikertzaileek eltxo-sarearekin lo egitearen efektuen inguruan?

Antzeman zuten intsektizidadun eltxo-sareek pertsonak malariatik babesten dituztela.

*Johnek eta Juliek tratamenduen arteko
KONPARAKETEI buruz ikasiko dute.*

6

Tratamenduen arteko konparaketa zuzenak

Ikasgai honetan hau ikasiko duzu:

1. Zer da tratamenduen arteko konparaketa "zuzen" bat?
2. Osasun-ikertzaileek tratamenduen arteko konparaketak egiten dituztenean, zergatik izan behar dute zuzenak?
3. Zuzenak izateko nola egin behar dituzte konparaketak osasun ikertzaileek?


Ikasgai honetako gako-hitzak:

- *Tratamenduen arteko konparaketa* **ZUZENA** : tratamenduak baldintza berdinetan egitea, desberdintasun garrantzitsu bakarra tratamendua bera izanik.
- Tratamendu bakoitza nork hartu behar duen **AUSAZ** hautatzea da nork jasotzen duen jakin gabe aukeratzea.

100 6. ikasgaia: Tratamenduen arteko konparaketa zuzenak

 Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

Ikasgai honetako pertsonaiak



**KONPARAKETA
IRAKASLEA**

**ZUZEN
IRAKASLEA**

JOHN


JULIE

KASUKU

**HERRIKO LAGUNAK**


*Horiek John eta Juliren herriko 10 lagun dira.
Kirol-zelaira joan dira Jhoni, Julie eta irakasleei konparaketa
bat egiten laguntzera.*

HERRIKO KIROL-ZELAIA



102 6. ikasgaia : Tratamenduen arteko konparaketa zuzenak

↓ Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak







104 6. ikasgaia : Tratamenduen arteko konparaketa zuzenak

↓ Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

Baina, irakasleak! Nola neur daiteke sabeleko mina?



Batzuetan, osasun-ikertzaileek galderak eginez neurtzen dituzte zenbait gauza. Galdetuko diegu zure lagunei ea sabeleko minik baduten, eta zenbatuko dugu zenbatek dioten baietz.



Irakatsiko dizuegu osasun-ikertzaileok nola egiten ditugun konparaketa **zuzenak**



Eta azalduko dizuegu zergatik osasun-ikertzaileok jokatu behar dugun "zuzen".




Tratamenduen arteko **konparaketa ZUZENA** izango da, alde garrantzitsu bakarra tratamendua bera baldin bada.

Lehenik, esadazue, zuen ustez, zerk eragiten dio jende gehiagori sabeleko mina, zukua edateak edo ura edateak?



Ondo. Badakigu zer pentsatzen duzuen konparaketa egin aurretik.



Has gaitezen!



Eztabaidatzeko:

Zergatik uste duzu irakasleek galdetu zietela ikasleei zer uste zuten gertatuko zela?



106 6. ikasgaia : Tratamenduen arteko konparaketa zuzenak


↓ Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

Azalpena: Istorioan aurrerago, Johnen, Julieren eta haien lagunen erantzunak erabiliko dituzte irakasleek arazo bat azaltzeko, zeinak konparaketa bat okerra izatea eragin baitezake. Ikasgelako haurrek Johnen, Julieren eta haien lagunen erantzunak gogora ditzaten dago hor eztabaida-galdera hori. **Jarraibideak:** Eskatu ikasgelako haurrei Konparaketa andrearen galderari erantzuteko.

Itxaron! Neska-mutil batzuek zukua edaten badute eta beste batzuek ez, ez da zuzena!



Baina denek tratamendu bera hartzen badute, ez dago konparaketarik!



Osasun-ikerketan **konparaketa bat okerra** da, tratamenduz gain bestelako desberdintasun garrantzitsurik badago.




Tratamenduen arteko **KONPARAKETA OKERRA** da, tratamenduz gain, bestelako desberdintasun garrantzitsurik baldin badago.

1. URRATSA: Taldeak osatzea



108 6. ikasgaia : Tratamenduen arteko konparaketa zuzenak

**Adibide osagarria:**

Ikerketa-gadera: Korrika egin aurretik, bananak janez gero jaten ez badira baino azkarrago egiten da korrika?


Nola osatu zituzten taldeak ikertzaileek?: Jendeari esan zioten bananak jatea edo ez jatearen artean aukera egiteko. Azkarrenek aukeratu zuten bananak jatea.

Azalpena: Konparaketa ez da zuzena izan. Tratamenduz gain, desberdintasun garrantzitsu bat zegoen taldeen artean. Pertsona azkarrenak talde berean zeuden. Baliteke pertsona horiek, nahiz eta platanorik ez jan, azkarrago korrika egitea. Ikertzaileek ausaz aukeratu behar zuten nork jango zituen bananak..

Beraz, norbaitek aukeratzeko badu nork jaso behar duen tratamendu bakoitza, konparaketa bidegabea izan daiteke!



Nola konponduko dugu hori?



Leon-Kastillo egingo dugu! Hori da **ausaz** aukeratzea!





Tratamendu bakoitza nork hartuko duen **AUSAZ** aukeratzea, tratamendu bakoitza nork hartuko duen jakin gabe aukeratzeko modu bat da.



110 6. ikasgaia : Tratamenduen arteko konparaketa zuzenak

Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak


Azalpena : Hurrengo ikasgaian, haurrek ikasiko dute zer den konparaketa txikiegietan zerbait kasualitatez antzematea.



2. URRATSA: Tratamenduak banatzea.



Julie, ezin diezu jakiten utzi zukua ala ura tokatu zaien.



Jakiten badute, zukua tokatu zaien neska-mutilek esan dezakete sabeleko mina dutela, aurretik izango zutela pentsatzen baitzuten!



Batzuetan uste dugu tratamendu batek efektu bat duela.



Eta efektu hori izango duela uste dugunez, izan duela sentitzen dugu nahiz eta benetan ez izan!




Adibide osagarria:

Ikerketa-gadera: Jendeak azkarrago egiten du korrika zapatila garestiak jantzita bestelakoekin baino?

Nola eratu zituzten taldeak ikerlariek?: Bi kaxetako zapatilen artean aukeratzeko esan zieten. Zapatila berriak zeuden kaxan "BERRIAK" idatzi zuten.

Azalpena: Konparaketa ez da zuzena izan. Tratamenduez gain desberdintasun garrantzitsu bat zegoen bi taldeen artean. Jendeak bazekien zapatila berriak jantzi zituen ala ez. Baliteke zapatila berriak zituzten pertsonak azkarrago korrika egiten saiatzea, zapatilek lagunduko zietelakoan. Inork ez zuen jakin behar nolako zapatilak zituen lasterketa amaitu arte.

Nola konponduko dugu arazo hori?



Urari honako hau nahastuko diot. Horrela urak zukuaren itxura eta zapore bera izango ditu.




Nik jakingo dut nori egokitu zaion benetako zuku, baina ez diot inori esango konparaketa amaitu arte.



Ez begiratu!



Orain eman ahal dizkiegu tratamenduak zuen lagunei!




Zein ote da benetako zuku?





3. URRATSA: Gertatutakoa neurtzea



116 6. ikasgaia : Tratamenduen arteko konparaketa zuzenak

↓ Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

Hona hemen emaitzak

KORRIKA EGIN AURRETIK ZUKUA EDATEAK URA EDATEAK BAINO JENDE GEHIAGORI ERAGITEN AL DIO SABELEKO MINA?

A TALDEA MINA DUTEN A TALDEKO NESKA-MUTILAK	B TALDEA MINA DUTEN A TALDEKO NESKA-MUTILAK
2	1

Orain jakin dezakezue nork edan duen benetako zukua.

B taldeko neska-mutilak izan dira! A taldeko neska-mutiek ura edan dute.

Hortaz, ura edan duten 5 neska-mutiletatik 2k izan dute sabeleko mina, eta zukua edan duten 5etatik 1ek.

Beraz, korrika egin aurretik ura edateak zukua edateak baino jende gehiagori eragiten dio sabeleko mina?



118 6. ikasgaia : Tratamenduen arteko konparaketa zuzenak

Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

Jarraian azaltzen dira hurrekin ozen irakurri duzuen errepasatzeko galdera eta erantzunak:

1. Zer da tratamenduen arteko konparaketa zuzen bat?

Tratamenduen arteko konparaketa zuzen bat da tratamenduak baldintza berdinetan egitea, desberdintasun garrantzitsu bakarra tratamendua bera izanik.

2. Zein izan daiteke konparaketa bat okerra izatea eragin dezakeen lehenengo arazoa?

Pertsonek aukeratzea nork jasotzen duen tratamendu bakoitza.

3. Nola konpondu zuten lehenengo arazo hori Johnek, Juliek eta irakasleek?

Airera bota zuten txanpon bat zukua nork edango zuen eta ura nork edango zuen hautatzeko. Modu horretan, taldeak antzekoagoak ziren, guztiek baitzuten aukera berdina zukua tokatzeko.

4. Zein izan daiteke konparaketa bat okerra izatea eragin dezakeen bigarren arazoa?

Pertsonek jakitea zer tratamendu tokatu zaien.

5. Nola konpondu zuten bigarren arazo hori Johnek, Juliek eta irakasleek?

Konparaketa andreak hauts batzuk nahastu zizkion urari, benetako zukuaren zaporea eta itxura emateko. Hala, zukua edan zuten lagunek ez zekiten benetako zukua edaten ari ziren ala ez. Gogoan izan haur guztiek uste zutela korrika egin baino lehen zukua edateak ura edateak baino pertsona gehiagori eragiten diola sabeleko mina. Beraz, tratamendu bakoitza nork jaso zuen baldin bazekiten, zukua edan zutenek sabeleko min gehiago izan beharko zutela pentsatuko zuten. Baliteke batzuek sabeleko mina zutela esatea mina izango zutela pentsatzen zutelako lehendik.

Behar izanez gero hurrei emateko adibide gehigarriak

Jarraian, hurrek istorio honetan ikasi behar dutena azaltzen laguntzeko adibide gehiago dituzu. Beharrezkoa iruditzen bazaizu bakarrik erabili adibide hauek.

Talde bakoitzean nor sartuko den hautatzeak zergatik eragin dezake konparaketa bat okerra izatea?

Ikerketa-galdera: Astean behin dantzan egiteak zoriontsuagoak egiten ditu pertsonak, dantzarik ez egitearekin alderatuta?

Nola egin dituzte taldeak ikertzaileek?: Pertsonen hautatzen utzi zieten ea dantza egin nahi zuten. Pertsona zoriontsuenek dantza egitea hautatu zuten.

Azalpena: Desberdintasun garrantzitsu bat dago taldeen artean, pertsonak bere tratamendua hautatu zutelako. Pertsona zoriontsuenak talde berean zeuden. Osasun-ikertzaileek ikusten badute dantza egin zuten pertsonak zoriontsuagoak direla, izan daiteke lehendik zirelako zoriontsuak, ez dantzan egiteagatik.

Nola osatu taldeak inork ere bere taldea hautatu gabe.

1. adibidea: Nahasi kartoi mehe hori batzuk eta berde batzuk. Pertsona bakoitzak kartoi mehe bana aukeratuko du, begiratu gabe. Berde bat hartuz gero, lehenengo taldera joango dira. Hori bat hartuz gero, bigarren taldera joango dira.

2. adibidea: Banatu dado batzuk. Pertsona bakoitzak dado bat botako du. 1, 2 edo 3 ateratzen bada, pertsona hori lehenengo taldera joango da. 4, 5 edo 6 ateratzen bada, bigarren taldera joango da.

Tratamendu bakoitza nor jaso zuen dakien norbaitek zergatik eragin dezake konparaketa bat okerra izatea?

Ikerketa-galdera: Pilula berri eta garestiago bat hartzeak pilula zahar bat hartzeak baino bizkorrago arintzen du buruko mina?

Nola egin dituzte taldeak ikertzaileek?: Pilula-kaxa bat eman diete pertsonen. Pilulak zaharrak ala berriak diren jartzen du kaxan.

Azalpena: Pilula bat beste bat baino hobea dela uste badute pertsonak, desberdintasun garrantzitsu bat dago taldeen artean. Esate baterako, pertsonak uste badute pilula berria hobea dela, pilula berria tokatu zaien taldeko pertsonak eta beste taldekoek ez dute gauza bera esperoko. Buruko mina lehenago arinduko zaiela pentsatzen dutenez, baliteke mina lehenago joaten zaiela iruditzea.

JARDUERA



Jarraibideak

Helburua: Azaltzea zergatik izan behar duten osasun-ikertzaileek zuzenak tratamenduen arteko konparaketa egitean.

Jarduera honetarako, neska-mutilek 5. ikasgaiaren jarduerako konparaketa bera egingo dute, baina oraingoan saiatuko dira konparaketa zuzena egiten.

Irakasleak aukeratuko du talde bat, eta horiek eskuak belarrien atzean ipiniko dituzte, goiko irudian ikusten den bezala. Hori 1. taldea da.

Beste taldeak eskuak belarrien atzean jarri gabe entzungo du. Hori 2. taldea da.



1. urratsa: Irakasleak gidatuta, neska-mutilek eztabaidatu eta adostuko dute nola osatu modu zuzenean taldeak.

2. urratsa: Irakasleak modu zuzenean osatuko ditu taldeak, 1. urratsean erabakitakoaren arabera.

Ikasgela handienetan, haurrak tartekatu ditzakezu 1. taldean eta 2. taldean. Ikasgela txikiagoetan, erabili txanpon bat taldeak osatzeko.

3. urratsa: Irakasleak ahoa estaliko du, eta hitz bat esango du ahapeka. Neska- mutilak irakaslea esaten ari dena entzuten saiatuko dira.

Esan “begi” edo “hegi”. Idatzi “begi” eta “hegi” arbelaren alde banatan.

4. urratsa: Irakasleak bi hitz idatziko ditu arbelean. Horietako bat esan berri duena.

Jarraibide gehiago. →

JARDUERA



5. *urratsa:* Irakasleak galdetuko die neska-mutilei zenbatek uste duten arbeleko lehen hitza dela irakasleak lehenago esan duena.
6. *urratsa:* Hala uste duten neska-mutilak altxatu egingo dira.
7. *urratsa:* Irakasleak talde bakoitzean altxatu diren neska-mutilak zenbatu eta, arbelean, taula batean idatziko du kopurua.
8. *urratsa:* Neska-mutil guztiak eseri egingo dira.
9. *urratsa:* Irakasleak galdetuko die neska-mutilei zenbatek uste duten arbeleko bigarren hitza dela irakasleak lehenago esan duena.
10. *urratsa:* Hala uste duten neska-mutilak altxatu egingo dira.
11. *urratsa:* Irakasleak talde bakoitzean altxatu diren neska-mutilak zenbatu eta, arbelean, taula batean idatziko du kopurua.
12. *urratsa:* Neska-mutil guztiak eseri egingo dira.
13. *urratsa:* Irakasleak lehenago esandako hitza zein den esango du.
14. *urratsa:* berriro, irakasleak gidatuta, neska-mutilek eztabaidatuko dute eskuak belarrien atzean jartzeak hobeto entzuten laguntzen ote duen



120 6. ikasgaia : Tratamenduen arteko konparaketa zuzenak

 Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

Azalpena: Ezinezkoa izango litzateke haurrek ez jakitea nork jaso zuen tratamendu bakoitza. Horrek desberdintasun garrantzitsuak eragingo lituzke taldeen artean. Haurrek uste bazuten eskuak belarrien atzean jarrita hobeto entzuten dela, baliteke 2. taldeko haurrek ez egitea ahalegin berdina zuk esaten duzuna entzuteko, uste dutelako edonola ere ez dutela entzungo 1. taldeko haurrek bezain ongi. Osasun-ikertzaileek horren garrantzia baloratu beharko lukete tratamenduak konparatuko balituzte.

1. ARIKETA

Adierazi egia ala gezurra den.

Adibidea:

Askotan, ikertzaileek konparatzen dute tratamendu bat erabiltzea eta ez erabiltzea.

Egia Gezurra

1. Osasun-ikertzaileek egiten dituzten konparaketak ez dira beti zuzenak izaten.

Egia Gezurra

2. Tratamendu batek zoriontsuago egingo zaituela uste baduzu, erabili ondoren zoriontsuago senti zaitezke, nahiz eta tratamenduak, benetan, efekturik ez izan.

Egia Gezurra

3. Konparaketa zuzenetan tratamenduak dira taldeen arteko desberdintasun bakarra.

Egia Gezurra

4. Osasun-ikertzaileek neurketak galderak eginez egin ditzakete.

Egia Gezurra

2. ARIKETA

Pentsa ezazu Konparaketa irakaslea eta Zuzena irakaslea elgorriaren aurkako txertoa ikertzen ari direla.

Txertoa gaixotasun bat ez izateko hartzen den injekzioa da. Elgorria gaixotasun bat da.

Beraz, elgorriaren aurkako txertoa jendeak elgorria ez harrapatzeko tratamendua da.

Irakasleek txertoa jartzea ez jartzearekin konparatuko dute.

1. Zein da irakasleen ikerketa-galdera?

Elgorriaren aurkako txertoa jartzeak elgorritik babesten ditu pertsonak,

txertoa ez jartzearen aldean?

2. Irakasleek aukeratu beharko lukete nork jarriko duen txertoa? Zergatik?

Ez. Konparaketa okerra izatea eragin dezake.



122 6. ikasgaia : Tratamenduen arteko konparaketa zuzenak



2. ARIKETA

3. Konparaketan parte hartzen duten pertsonak erabaki beharko lukete nor jarri behar duen txertoa? Zergatik?

Ez. Konparaketa okerra izatea eragin dezake.




4. Konparaketan parte hartzen duten pertsonak jakin beharko lukete txertoa hartu duten ala ez? Zergatik?

Ez. Konparaketa okerra izatea eragin dezake.

1. Jarraibideak: Gogorazi haurrei baieztapenak idazteko ariketa-liburuaren amaieran.

2. Informazioa: Osasun-ikertzaileek elgorriaren aurkako txertoa aztertu dute, eta antzeman dute elgorria hartzetik babesten dituela pertsonak, efektu negatibo larririk gabe.

Bete bereiz ikasgaiko ebaluazio-orria.



IKASGAIKO EBALUAZIO-ORRIA

Hausnartutako Osasun Erabakiak egitasmoa

Ikasgaiko informazioa irakasleentzat

Desberdintasun garrantzitsuak daudenean konparaketa bateko taldeen artean eta tratamenduetan, konparaketa okerra da. Konparaketak okerrak direnean, osasun-ikertzaileek antzematen dutena desberdintasun garrantzitsu horien ondorioa izan daiteke, eta ez konparatzen diren tratamenduen ondorioa. Hau da, ezin dugu ziur jakin gertatutakoa tratamenduen ondorioa izan zen ala ez. Konparaketa okerren emaitzek nahasi egin gaitzakete ez badugu identifikatzen konparaketak ez zirela justuak izan. Osasun-ikerketan, konparaketak okerrak izatea eragiten duten erroreerri “errore sistematiko” edo “alborapen” esaten zaie. Ikasgai honetan, haurrek bi motatako errore sistematikoak ikasten dituzte.

Lehenengo mota da pertsonak hautatu ahal izatea norik jasoko duen tratamendu-mota bakoitza. Esate baterako, medikuek esaten zuten emakumeek sendagai-mota bat (hormonak) hartzen bazuten emakume gutxiagok izango zutela bihotzekoa. Konparaketa okerrak dira baieztapen honen oinarria. Hormonak hartzen dituzten emakumeen eta hormonarik hartzen ez duten emakumeen taldeen artean egin ziren konparaketak. Hormonak hartu ala ez hautatzen utzi zitzaien emakumei. Emakume batzuek beren osasuna zaintzen zuten konparaketen aurretik. Haietako emakume askok hormonak hartzea hautatu zuten. Beraz, hormonak hartzea erabaki zuten emakumeek jada aukera gutxiago zuten bihotzekoa izateko. Bi taldeen arteko desberdintasun garrantzitsu bat izan zen hori. Azkenean, osasun-ikertzaileek beste konparaketa batzuk egin zituzten, zeinetan ausaz hautatu baitzuten zer emakumek hartuko zituzten hormonak. Konparaketa zuzen horietan, osasun-ikertzaileek ikusi zuten hormonak jaso zituzten emakumeetatik gehiagok izan zutela bihotzekoa hormonarik jaso ez zuten emakumeen aldean! Osasun-ikerketan, bakoitzak zer tratamendu jasotzen duen ausaz hautatzeari ausazko esleipen esaten zaio. Gehienetan, osasun-ikertzaileek programa informatiko bat erabiltzen dute pertsona bakoitzari tratamendu bat “ausaz esleitzeko”. Ausazko esleipena beti ezin da egin, edo beti ez da etikoa. Ezin denean egin ausazko esleipena, osasun-ikertzaileek taldeen arteko beste desberdintasun garrantzitsu batzuk izan behar dituzte kontuan.

Haurrek ikasiko duten bigarren errore sistematiko mota da tratamendu bakoitza norik jasoz jakin ahal izatea pertsonak. Adibidez, belaunean meniskoa dugu. Meniskoko urradura ohiko lesioa da. Zirujauak baieztatzen dute lesio hori sendatu eta mina arintzen duen esku-hartze kirurgiko bat egin daitekeela. Esku-hartzea egin zitzaien ala ez zekiten pertsonen konparaketak ziren baieztapenaren oinarria. Aurrerago, osasun-ikertzaileek konparatu zuten esku-hartzea egitea eta esku-hartze faltsu bat. Tratamendu faltsuei plazebo esaten zaie. Batzuetan, osasun-ikertzaileek plazeboak erabiltzen dituzte, inork ere ez dezan jakin norik jasotzen duen tratamendu bakoitza. Itsutze esaten zaio horri. Esku-hartze faltsuaren kasuan, medikuek ebaki txiki bat egin zuten pazientearen belaunean, eta ebakuntza egiten ariko balira bezala jardun zuten. Medikuek antzeman zuten esku-hartze faltsua jaso zuen taldean benetako esku-hartzea jaso zuen taldean adina pertsonak zutela min gutxiago! Itsutzea batzuetan ezin da egin.



Haur bat komikiaren azken bertsioa irakurtzen, Norvegia, 2016ko otsaila.

7.

IKASGAIA

**Pertsona askoren arteko
konparaketa zuzenak**

7. IKASGAIA

Pertsona askoren arteko konparaketa zuzenak

Ikasgai hau prestatu eta emateko behar duzuna:

Helburuak	209. or.
Prestaketa	209. or.
Ikasgaia	210. or.
1. urratsa: Aurreko ikasgaia erreparatzea	211. or.
2. urratsa: Ozen irakurtzea	212. or.
3. urratsa: Eztabaidatzea	234. or.
4. urratsa: Jarduera gidatzea	236. or.
5. urratsa: Ariketak gidatzea	240. or.
6. urratsa: Ebaluazio-orria betetzea de la Ikasgaia...	242. or.
Ikasgaiko informazioa irakasleentzat	243. or.

Helburuak

Zer ikasi behar duten haurrek ikasgai honetan:

- Zergatik eman behar diote osasun-ikertzaileek jende askori tratamendua konparaketa zuzenetan?

Prestaketa (20 minutu)

Ikasgaiaren aurretik egin behar duzuna.

Aldez aurretik irakurri

- Irakurri testuliburuan ikasgai honi dagozkion orriak
- Irakurri gidan ikasgai honi dagozkion orriak

Bildu materiala

Ziurtatu honako hauek dituzula:

- Gida hau
- Ikasgaiko ebaluazio-orria
- Borragoma batzuk

Ziurtatu haur guztiek dituztela honako hauek :

- Testuliburuaren kopia bat
- Ariketa-liburua
- Arkatz bat edo boligrafo ba

Istorioaren laburpena: John eta Julie unibertsitateko kirol- zentroan elkartzekotan geratu dira irakasleekin. Irakasleek 100 korrikalari elkartu dituzte, Johni eta Julieri irakasteko osasun-ikertzaileek egiten dituzten konparaketek zergatik izan behar duten aski handiak. Konparaketa gehiago egin dituzte elkarrekin, ikerketa-galdera berarekin: korrika egin baino lehen zukua edateak ura edateak baino pertsona gehiagori eragiten al dio sabeleko mina?

Ikasgaia (80 minutu)

Jarraian, ikasgaia emateko plan bat proposatzen dizugu.

IRAKASLEA	HAURRAK	IRAUPENA
1. URRATSA Aurreko ikasgaia erreparasatzea		<i>10 min</i>
<ul style="list-style-type: none"> Erreparasatu aurreko ikasgaia, gida honetako 211 orrialdean azaltzen diren galderak erabiliz. 	<ul style="list-style-type: none"> Adierazi zaien moduan erantzungo dituzte galderak 	
2. URRATSA Ozen irakurtzea		<i>25 min</i>
<ul style="list-style-type: none"> Gidatu ozen irakurtzeko prozesua gida honetako 212. orrialdetik aurrera. <i>Ozen irakurtzeko moduak kontsultatzeko, begiratu gida honetako 19. orrialdea.</i> 	<ul style="list-style-type: none"> Haurren testuliburua 124. orrialdean ireki, eta ozen irakurriko dute, adierazi zaien moduan. 	
ATSEDENA		<i>5 min</i>
3. URRATSA Eztabaidatzea		<i>10 min</i>
<ul style="list-style-type: none"> Has ezazu istorioari buruzko eztabaida bat, gida honetako 234. orrialdean azaltzen diren galderak erabiliz. 	<ul style="list-style-type: none"> Adierazi zaien moduan erantzungo dituzte galderak. 	
4. URRATSA Jarduera gidatzea		<i>15 min</i>
<ul style="list-style-type: none"> Zuzendu jarduera gida honetako 236. orrialdetik. 	<ul style="list-style-type: none"> Haurren testuliburua 146. orrialdean ireki, eta jarduera egingo dute, adierazi zaien moduan 	
5. URRATSA Ariketak gidatzea		<i>10 min</i>
<ul style="list-style-type: none"> Gidatu ariketak gida honetako 204. orrialdetik. Lagundu hurrei ariketak egiten, eta gidatu ariketak zuzentzeko prozesua. <i>Ariketak zuzentzeko moduak kontsultatzeko, begiratu gida honetako 20. orrialdea.</i> 	<ul style="list-style-type: none"> Ariketa-liburua 38. orrialdean ireki, eta ariketak egingo dituzte. Testuliburua 148. orrialdean ireki, eta ariketak kopiatu eta egingo dituzte. 	
6. URRATSA Ebaluazio-orria betetzea		<i>5 min</i>
<ul style="list-style-type: none"> Bete ikasgaiko ebaluazio-orria 		

Jarraian, galdera batzuk eta haien erantzunak daude, aurreko ikasgaia errepasatzeko hurrekin.

1. Zer da tratamenduen arteko konparaketa zuzen bat?

Tratamenduen arteko konparaketa zuzen bat da tratamenduak baldintza berdinetan egitea, desberdintasun garrantzitsu bakarra tratamendua bera izanik.

2. Zein izan daiteke konparaketa bat okerra izatea eragin dezakeen lehenengo arazoa?

Pertsonak aukeratzea nork jasotzen duen tratamendu bakoitza.

3. Nola konpondu zuten lehenengo arazo hori Johnek, Juliek eta irakasleek?

Airera bota zuten txanpon bat zukua nork edango zuen eta ura nork edango zuen hautatzeko. Modu horretan, taldeak antzekoagoak ziren, guztiek baitzuten aukera berdina zukua tokatzeko.

4. Zein izan daiteke konparaketa bat okerra izatea eragin dezakeen bigarren arazoa?

Pertsonak jakitea zer tratamendu tokatu zaien.

5. Nola konpondu zuten bigarren arazo hori Johnek, Juliek eta irakasleek?

Konparaketa andreak hauts batzuk nahastu zizkion urari, benetako zukuaren zaporea eta itxura emateko. Hala, zukua edan zuten lagunek ez zekiten benetako zukua edaten ari ziren ala ez. Gogoan izan haur guztiek uste zutela korrika egin baino lehen zukua edateak ura edateak baino pertsona gehiagori eragiten diola sabeleko mina. Beraz, tratamendu bakoitza nork jaso zuen baldin bazekiten, zukua edan zutenek sabeleko min gehiago izan beharko zutela pentsatuko zuten. Baliteke batzuek sabeleko mina zutela esatea mina izango zutela pentsatzen zutelako lehendik.

*John eta Julie tratamenduen arteko
KONPARAKETEI buruz ikasiko dute*

7

Pertsona askoren arteko konparaketa zuzenak

Ikasgai honetan hau ikasiko duzu:


1. Zergatik eman behar diote osasun-ikertzaileek jende askori tratamendua, konparaketa zuzenetan?

Ikasgai honetako gako-hitza:

KASUALITATEZ *antzematea*: Konparaketan talde txikiegiak parte hartzen badute, ezin dugu baieztatu emaitza zuzena denik, ezin baitugu jakin zergatik gertatu den.

124 7. ikasgaia: Pertsona askoren arteko konparaketa zuzenak.

Ikasgai honetako pertsonaiak


**UNIBERTSITATEKO KORRIKALARIAK**

Hauek unibertsitateko 100 korrikalari dira. Johni, Julieri eta irakasleei konparaketak egiten laguntzera etorri dira kirol-zelaira.

7. ikasgaia: Pertsona askoren arteko konparaketa zuzenak. **125**

↓ Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak


UNIBERTSITATEKO KIROL-ZELAIA



126 7. ikasgaia: Pertsona askoren arteko konparaketa zuzenak.


Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

Jarraibideak: Gogoan izan testu gutxiko eta testurik gabeko binetetan gertatzen denaz eztabaidatzea.



7. ikasgaia: Pertsona askoren arteko konparaketa zuzenak. 127


↓ Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak



KASUALITATEZ antzematea: Konparaketan talde txikiegiek parte hartzen badute, ezin dugu baieztatu emaitza zuzena denik, zergatik gertatu den ezin baitugu jakin.

128 7. ikasgaia: Pertsona askoren arteko konparaketa zuzenak.

Joan den asteko tratamenduak erabiliko ditugu: zukua eta ura.



Lehendabizi, hiru konparaketa egingo ditugu, 10na korrikalariren artekoak.




7. ikasgaia: Pertsona askoren arteko konparaketa zuzenak. 129




130 7. ikasgaia: Pertsona askoren arteko konparaketa zuzenak.

↓ Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak




7. ikasgia: Pertsona askoren arteko konparaketa zuzenak.

2 Bigarren konparaketa zuzena: 10 korrikalari.



132 7. ikasgia: Pertsona askoren arteko konparaketa zuzenak.

Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak




7. ikasgaia: Pertsona askoren arteko konparaketa zuzenak. 133



134 7. ikasgaia: Pertsona askoren arteko konparaketa zuzenak.

↓ Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak



Hortaz, John eta Julie, zer iruditzen zaizkizue emaitza hauek?

KORRIKA EGIN AURRETIK ZUKUA EDATEAK URA EDATEAK BAINO JENDE GEHIAGORI ERAGITEN AL DIO SABELKO MINA?
SABELEKO MINA DUTEN PERTSONAK:

	A TALDEA	B TALDEA
①	1	2
②	1	1
③	3	1


7. ikasgaia: Pertsona askoren arteko konparaketa zuzenak. 135



136 7. ikasgaia: Pertsona askoren arteko konparaketa zuzenak.




7. ikasgaia: Pertsona askoren arteko konparaketa zuzenak. **137**



138 7. ikasgaia: Pertsona askoren arteko konparaketa zuzenak.

↓ Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak



Oraingoan, korrikalari askok dute sabeleko mina!

DIO SABELERO TIINA!
SABELEKO MINA DUTEN PERTSONAK:

	A TALDEA	B TALDEA
①	1	2
②	1	1
③	3	1
1	18	11
2		
3		

7. ikasgaia: Pertsona askoren arteko konparaketa zuzenak. 139



140 7. ikasgaia: Pertsona askoren arteko konparaketa zuzenak.

Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak




Emaitza hau eta 100 korrikalarekin jaso berri duguna oso antzekoak dira.

DITU SABELEROKO MITINA!
SABELEKO MINA DUTEN PERTSONAK:

	A TALDEA	B TALDEA
	1	2
	1	1
③	3	1
1	18	11
2	20	10
3		


7. ikasgaia: Pertsona askoren arteko konparaketa zuzenak. 141

 Hirugarren konparaketa zuzena, 100 korrikalarirekin



142 7. ikasgaia: Pertsona askoren arteko konparaketa zuzenak.

 Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak



	A TALDEA	B TALDEA
①	1	2
②	1	1
③	3	1
1	18	11
2	20	10
3	22	9

7. ikasgaia: Pertsona askoren arteko konparaketa zuzenak. 143

Beraz, taldeak txikiak direnean konparaketen emaitzak desberdinak dira saio guztietan.




Baina taldeak handiak direnean, zukua edan duten 50 korrikalarietatik ura edan dutenetatik baino ia 10 gehiagok izan dute sabeleko mina.



Zenbat eta gehiagotan aztertu gauza bat, orduan eta ziurrago tratamenduaren efektuagatik izan dela!



Eta ez zela kasualitatez gertatu!



Eta gauza bat askotan behatzeko, osasun-ikertzaileek konparaketa zuzenak egin behar dituzte pertsona askorekin!



Horixe da!
Konparaketa zuzenetan taldeek aski handiak izan behar dute.



144 7. ikasgaia: Pertsona askoren arteko konparaketa zuzenak.

Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

Azalpena : Baldin eta Johnek, Juliek eta irakasleek beste 90 korrikalari gehitu izan balituzte lehenengo hiru konparaketetako bakoitzean, azken hiru konparaketetan antzeman zutenaren antzeko zerbait antzeman izango zuketena.



7. ikasgaia: Pertsona askoren arteko konparaketa zuzenak. 145

Jarraian azaltzen dira hurrekin ozen irakurri duzuen errepasatzeko galderak eta erantzunak:

1. Zer antzeman zuten Johnek, Juliek eta irakasleek konparaketak 10 korrikalarirekin egin zituztenean?

Gauza bana antzeman zuten aldi bakoitzean. Lehenengo aldian, ura edan zuten korrikalarien taldean sabeleko mina zuten korrikalari gehiago zeuden. Bigarren aldian, bi taldeetan sabeleko mina zuten pertsonen kopurua berdina zen. Hirugarren aldian, zukua edan zuten korrikalarien taldean sabeleko mina zuten korrikalari gehiago zeuden.


2. Zer antzeman zuten Johnek, Juliek eta irakasleek konparaketak 100 korrikalarirekin egin zituztenean?

la gauza bera antzeman zuten aldi guztietan: zukua edan zuten korrikalarien taldean gutxi gorabehera korrikalarien bikoitzak zuen sabeleko mina.

Ez dago adibide gehigarrik hurrei ikasgai hau irakasteko.

JARDUERA

Jarraibideak



Helburua: Pertsona gutxiren arteko konparaketak zalantzarik izan daitezkeela azaltzea.

Marratzu arbelean gida honetako 238. orrialdeko goialdean dagoen taula.

1. urratsa: Neska-mutilek imajinatuko dute osasun-ikertzaileak direla.

Irakasleak 10 laminako bi sorta ditu: bat gorria eta bestea urdina. Neska-mutilek imajinatu behar dute sorta bakoitza konparaketa egiteko pertsona-talde bat dela. Laminaren alde batean 10 aurpegi goibel daude, eta sabeleko mina dutela adierazten du horrek. Beraz, talde bakoitzean sabeleko mina duten 100 pertsona daude.




2. urratsa: Neska-mutilek imajinatu dute laminan sortako pertsonen bat eman dietela (Talde gorria). Era berean, imajinatu behar dute lamina urdinen sortako pertsonen sabeleko minaren kontrako pilula urdin bat eman dietela (Talde urdina).

Pertsona bakoitzak bere tratamendua jaso du, eta orain neska-mutilek neurtu ahal izango dute gertatzen dena.

Jarraibide gehiago →

146 7. ikasgaia: Pertsona askoren arteko konparaketa zuzenak.

JARDUERA



3. urratsa: Irakasleak gidatuta, neska-mutilek neurtuko dute talde bakoitzeko 10 pertsonari gertatutakoa.



Irakasleak bi neska-mutil aukeratuko ditu, bietako batek lehen lamina gorriari buelta eman eta atzealdea erakutsi behar du. Besteak gauza bera egingo du lamina urdinarekin. Laminetako aurpegi batzuk irribarretsu ageri dira. Aurpegi irribarretsuak dagoeneko sabeleko minik ez duten pertsonak dira.

4. urratsa: Irakasleak eta neska-mutilek, talde bakoitzean, dagoeneko sabeleko minik ez duten pertsonak zenbatuko dituzte. Neska- mutil bakoitzak ariketa-liburuko taulan idatziko du. Irakasleak arbeleko taula batean idatziko du.

5. urratsa: Irakasleak gidatuta, neska-mutilek eztabaidatuko dute zer pilula izan daitekeen hobea sabeleko mina sendatzeko.

6. urratsa: Irakasleak eta neska-mutilek errepikatuko dute 2. urratsetik 6. urratsera egindakoa lamina guztiei buelta eman arte.

7. urratsa: Lamina guztiei buelta ematen dietenean, neska-mutilek, irakasleak gidatuta, eztabaidatuko dute pilula bera ote zen onena zirudiena, jardueraren hasieran eta amaieran.

7. ikasgaia: Pertsona askoren arteko konparaketa zuzenak. **147**

Ariketa-liburuko 37. orrialdean antzeko taula bat dute neska-mutilek. Jarduerekin hasi aurretik, taula sinplifikatu hau marraztu behar duzu arbelean:

LAMINA	MINIK GABE, TALDE GORRIA	MINIK GABE, TALDE URDINA
1		
2		
3		
4		
5		
6		
7		
8		
9		
10		
GUZTIRA		

Jarraian, talde bakoitzeko 20 pertsonari gertatutakoa neurtu ondoren taulak izan behar duen itxuraren adibide bat ikusiko duzu (bi lamina gorri eta bi urdini buelta emanda):

LAMINA	MINIK GABE, TALDE GORRIA	MINIK GABE, TALDE URDINA
1	10ETIK 8	10ETIK 5
2	20TIK 15	20TIK 10

Adibidean, lehenengo lamina gorriaren atzealdean 8 aurpegi irribarretsu daude, eta, bigarren lamina gorrian, 7 aurpegi daude irribarretsu. Hau da, Talde Gorriko lehenengo 20 pertsonetatik 15ek jada ez dute sabeleko minik (10etik 8 + 10etik 7 = 20tik 15).

Eztabaidarako azalpena: Talde bakoitzeko lehenengo 20 pertsoneri gertatu zaiena neurtu ondoren (lehenengo bi laminei buelta emanda), desberdintasun bat zegoen talde bakoitzean jada sabeleko minik ez zuen pertsona-kopuruen artean. Talde bakoitzeko 100 pertsonak neurtu zenituztenean ez zegoen desberdintasunik. Bi taldeetan sabeleko minik ez zuten pertsonen kopurua berdina zen. Hau da, lehenengo 20 pertsoneri gertatutakoa neurtu eta geratu izan bazinete, pilula gorria urdina baino hobea dela emango luke. Berdin dio lehenengo lamina gorriari ala urdinari buelta eman; gauza bera gertatzen da. Konparaketako 200 pertsoneri gertatutakoa neurtu zenutenean, ikusi zenuten ez zegoela alderik. 20 pertsonako konparaketa txikiegia zen alderik ez zegoela ikusi ahal izateko.

JARDUERAKO TAULA

Irakasleak jarduera zuzenduko du, 10 lamina gorriekin eta 10 urdinekin. Lamina bakoitzean sabeleko mina duten 10 pertsona daude. Lamina bati buelta ematen zaion bakoitzean, idatzi lamina horretako zenbat pertsonak ez duten jada sabeleko minik.

Talde gorria	Talde urdina
Idatzi hurrengo lauki hauetan pilula gorri bat hartu ondoren jada sabeleko minik ez duten pertsonen kopurua.	Idatzi hurrengo lauki hauetan pilula urdin bat hartu ondoren jada sabeleko minik ez duten pertsonen kopurua.
Lamina gorria 1:	Lamina urdina 1:
Lamina gorria 2:	Lamina urdina 2:
Lamina gorria 3:	Lamina urdina 3:
Lamina gorria 4:	Lamina urdina 4:
Lamina gorria 5:	Lamina urdina 5:
Lamina gorria 6:	Lamina urdina 6:
Lamina gorria 7:	Lamina urdina 7:
Lamina gorria 8:	Lamina urdina 8:
Lamina gorria 9:	Lamina urdina 9:
Lamina gorria 10:	Lamina urdina 10:
Guztira:	Guztira:



1. ARIKETA

Adierazi egia ala gezurra den.

Adibidea:

Konparaketa zuzenetan, taldeak antzekoak izaten dira.

Egia Gezurra

1. Konparaketa zuzenetan, osasun-ikertzaileak ziurrago egon daitezke gertatutakoaren arrazoiaz, hori askotan gertatzen bada.

Egia Gezurra

2. Konparaketa aski handia bada, ez da garrantzitsua zuzena izatea.

Egia Gezurra

3. Gehienetan, osasun-ikertzaileek konparaketa zuzen bat baino gehiago egin behar izaten dute, tratamendu bera konparatzeko..

Egia Gezurra

148 7. ikasgaia: Pertsona askoren arteko konparaketa zuzenak.

Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

Jarraibideak: Gogorazi hurrei baieztapenak idazteko ariketa-liburuaren amaieran.

2. ARIKETA

Gogoratu “ausaz” eta “kasualitatez” hitzen esanahia liburuaren amaieran dagoela.

1. Zer esan nahi da tratamendua nork jasoko duen “ausaz” hautatuko dela?

Tratamendu bakoitza nork hartu behar duen ausaz hautatzea da nork

jasotzen duen jakin gabe aukeratzea.

2. Zer esan nahi da konparaketa txiki batean zerbait “kasualitatez” ikusi dela esaten denean?


Talde txikiegien arteko konparaketan zerbait kasualitatez antzematen

denean, ez dakigu zergatik gertatu den antzeman dugun hori, konparaketak

txikiegiak direlako.

7. ikasgaia: Pertsona askoren arteko konparaketa zuzenak. **149**

Bete bereiz ikasgaiko ebaluazio-orria.



IKASGAIKO EBALUAZIO-ORRIA

Hausnartutako Osasun Erabakiak egitasmoa

Ikasgaiko informazioa irakasleentzat

Osasun-ikertzaileek batzuetan konparaketa zuzenak egiten dituzte, baina txikiegiak izaten dira ziur egoteko antzeman dutenaz edo ziur jakiteko zergatik antzeman duten. Tratamendu gehienek ez dute efektu handirik. Tratamendu horien efektuei buruzko aurkikuntza gehiago egin ahal izateko, osasun-ikertzaileek konparaketa justuak egin behar dituzte pertsona askorekin. Bestela, baliteke antzematen dutena kasualitatez antzematea.

Osasun-ikertzaileek konparaketa txikiegiak egiten dituztenean, baliteke antzeman dutena kasualitatez antzeman izana (ausazko errorea). Osasun-ikertzaileek gehienetan konparaketa zuzen asko egin behar izaten dituzte tratamendu berdinen artean, ziur egon ahal izateko haien efektuez.

Adibidez, beherakoa duten haurrak deshidratatu egin daitezke. Organismoko ur asko galtzen dutela esan nahi du horrek. Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) eta Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtsak (UNICEF) 20 urte baino gehiagoan gomendatu zuten deshidratazioa zuten haurrei azukre- eta gatz-kantitate handi bat emateko uretan disolbatuta. Baina osasun-ikertzaile batzuek pentsatu zuten hobe izan zitekeela azukre- eta gatz-kantitate txiki bat ematea.

Osasun-ikertzaileek lehenengo aldiz ikertu zutenean azukre- eta gatz-kantitate handi bat erabiltzea azukre- eta gatz-kantitate txiki baten aldean, 38 haur baino ez zeuden konparaketan. Haietatik, bederatzi haurrek deshidratazio larria izan zuten. Deshidratazio larria izan zuten haurretako lau azukre- eta gatz-kantitate txiki bat uretan disolbatuta hartu zuten haurren taldekoak ziren. Beste bostak azukre- eta gatz-kantitate handiena hartu zuten taldean zeuden.

Hurrengo 10 urteetan, osasun-ikertzaileek beste 10 konparaketa egin zituzten tratamendu horien artean. Batzuetan, talde batean zegoen deshidratazio larria zuten haur gehien. Beste batzuetan, kopuru berdina zegoen bi taldeetan. Azkenean, ikertzaileek konparaketa guztien emaitzak batu zituzten. Konparaketa zuzen handiago bat egiten ariko balira bezala. Konparaketa zuzen handiago hori aski handia zen ziur egon ahal izateko antzeman zutena tratamenduen efektuak zirela. Ikusi zuten azukre- eta gatz-kantitate gutxiko nahastea edan zuten haurretatik gutxiagok izan zutela deshidratazio larria. Hau da, azukre- eta gatz-kantitate gutxiko nahastea zen tratamendurik onena! Gaur egun hori gomendatzen dute OMEk eta UNICEFek.



Haurrak irakurritakoari buruz eztabaidatzen, Uganda, 2016ko urtarrila.

8.

IKASGAIA

Tratamendu baten abantailak eta desabantailak

8. IKASGAIA

Tratamendu baten abantailak eta desabantailak

Ikasgai hau prestatu eta emateko behar duzuna:

Helburuak	247. or.
Prestaketa	247. or.
Ikasgaia	248. or.
1. urratsa: Aurreko ikasgaia errepasatzea	249. or.
2. urratsa: Ozen irakurtzea	250. or.
3. urratsa: Eztabaidatzea	264. or.
4. urratsa: Jarduera gidatzea	266. or.
5. urratsa: Ariketak gidatzea	269. or.
6. urratsa: Ikasgaiko ebaluazio-orria betetzea.....	271. or.
Ikasgaiko informazioa irakasleentzat	272. or.

Helburuak

Zer ikasi behar duten haurrek ikasgai honetan:

- Zer da tratamendu baten abantaila?
- Zer da tratamendu baten desabantaila?
- Zer da erabaki informatua?
- Zergatik da garrantzitsua tratamenduei buruzko erabaki informatuak hartzea?
- Nola hartu tratamenduei buruzko erabaki informatuak?

Prestaketa (20 minutu)

Ikasgaiaren aurretik egin behar duzuna.

Aldez aurretik irakurri

- Irakurri testuliburuan ikasgai honi dagozkion orriak
- Irakurri gidan ikasgai honi dagozkion orriak

Bildu materiala

Ziurtatu honako hauek dituzula:

- Gida hau
- Ikasgaiko ebaluazio-orria
- Borragoma batzuk

Ziurtatu haur guztiek dituztela honako hauek :

- Testuliburuaren kopia bat
- Ariketa-liburua
- Arkatz bat edo boligrafo bat

Istorioaren laburpena: John eta Julie klinikan daude, biek belarriko infekzioa dutelako. Irakasleek erabaki informatu bat hartzen lagunduko diete, antibiotikoa hartu ala ez. Johnen eta Julieren erabakiak adibide gisa erabiliko dituzte tratamendu bat erabili ala ez erabaki aurretik beti egin behar diren bi galdera garrantzitsu azaltzeko.

Ikasgaia (80 minutu)

Jarraian, ikasgaia emateko plan bat proposatzen dizugu.

IRAKASLEA	HAURRAK	IRAUPENA
1. URRATSA Aurreko ikasgaia errepasatzea		<i>10 min</i>
<ul style="list-style-type: none"> Errepasatu aurreko ikasgaia, gida honetako 249 orrialdean azaltzen diren galderak erabiliz.. 	<ul style="list-style-type: none"> Adierazi zaien moduan erantzungo dituzte galderak 	
2. URRATSA Ozen irakurtzea		<i>25 min</i>
<ul style="list-style-type: none"> Gidatu ozen irakurtzeko prozesua gida honetako 250. orrialdetik aurrera. <i>Ozen irakurtzeko moduak kontsultatzeko, begiratu gida honetako 19. orrialdea.</i> 	<ul style="list-style-type: none"> Haurren testuliburua 152. orrialdean ireki, eta ozen irakurriko dute, adierazi zaien moduan. 	
ATSEDENA		<i>5 min</i>
3. URRATSA Eztabaidatzea		<i>10 min</i>
<ul style="list-style-type: none"> Has ezazu istorioari buruzko eztabaida bat, gida honetako 264. orrialdean azaltzen diren galderak erabiliz. 	<ul style="list-style-type: none"> Adierazi zaien moduan erantzungo dituzte galderak. 	
4. URRATSA Jarduera gidatzea		<i>15 min</i>
<ul style="list-style-type: none"> Zuzendu jarduera gida honetako 266. orrialdetik.. 	<ul style="list-style-type: none"> Haurren testuliburua 166. orrialdean ireki, eta jarduera egingo dute, adierazi zaien moduan 	
5. URRATSA Ariketak gidatzea		<i>10 min</i>
<ul style="list-style-type: none"> Gidatu ariketak gida honetako 269. orrialdetik. Lagundu hurrei ariketak egiten, eta gidatu ariketak zuzentzeko prozesua. <i>Ariketak zuzentzeko moduak kontsultatzeko, begiratu gida honetako 20. orrialdea.</i> 	<ul style="list-style-type: none"> Ariketa-liburua 42. orrialdean ireki, eta ariketak egingo dituzte. Testuliburua 169. orrialdean ireki, eta ariketak kopiatu eta egingo dituzte. 	
6. URRATSA Ebaluazio-orria betetzea		<i>5 min</i>
<ul style="list-style-type: none"> Bete ikasgaiko ebaluazio-orria 		

Jarraian, galdera batzuk eta haien erantzunak daude, aurreko ikasgaia errepasatzeko haurrekin.

1. Zer antzeman zuten Johnek, Juliek eta irakasleek konparaketak 10 korrikalarirekin egin zituztenean?

Gauza bana antzeman zuten aldi bakoitzean. Lehenengo aldian, ura edan zuten korrikalarien taldean sabeleko mina zuten korrikalari gehiago zeuden. Bigarren aldian, bi taldeetan sabeleko mina zuten pertsonen kopurua berdina zen. Hirugarren aldian, zukua edan zuten korrikalarien taldean sabeleko mina zuten korrikalari gehiago zeuden.

2. Zer antzeman zuten Johnek, Juliek eta irakasleek konparaketak 100 korrikalarirekin egin zituztenean?

Ia gauza bera antzeman zuten aldi guztietan: zukua edan zuten korrikalarien taldean gutxi gorabehera korrikalarien bikoitzak zuen sabeleko mina.

*Johnek eta Juliek tratamenduei buruzko
ERABAKIAK hartzen ikasiko dute.*

8

Tratamendu baten abantailak eta desabantailak

Ikasgai honetan hau ikasiko duzu:



1. Tratamenduei buruz ari bagara, zer da “abantaila” bat?
2. Tratamenduei buruz ari bagara, zer da “desabantaila” bat?
3. Zer da “erabaki informatu” bat?
4. Zergatik da garrantzitsua tratamenduei buruzko erabaki informatuak hartzea?
5. Nola hartu tratamenduei buruzko erabaki informatuak?

Ikasgai honetako gako-hitzak:

- *Erabaki* **INFORMATUA** da daukazun informazioa ulertu ondoren hartzen duzun erabakia.
- *Tratamendu baten* **ABANTAILA** da, zure iritziz tratamendu batek dakarren onura.
- *Tratamendu baten* **DESABANTAILA** da, zure iritziz tratamendu batek dakarren kaltea.

152 8. ikasgia: Tratamendu baten abantailak eta desabantailak

Ikasgai honetako pertsonaiak




8. ikasgaia: Tratamendu baten abantailak eta desabantailak **153**

↓ Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak



154 8. ikasgaia: Tratamendu baten abantailak eta desabantailak

↓ Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak






Tratamenduei buruzko
INFORMAZIOA tratamenduei buruz ikasi edo esaten zaiguna da.

Erabaki **INFORMATUA** da daukazu informazioa ulertu ondoren hartzen duzun erabakia.


Lehenik eta behin hau galdetu:
zer **abantaila** eta **desabantaila** ditu tratamenduak?



Tratamenduaren abantailak izango dira, zure ustez, onak diren alderdiak.




Eta tratamenduaren desabantailak izango dira, zure ustez, txarrak diren alderdiak.



Tratamenduaren **ABANTAILA** bat da: zure iritziz, tratamendu batek dakarren onura.

Tratamendu baten **DESABANTAILA** bat da: zure iritziz, tratamendu batek dakarren kaltea.




158 8. ikasgia: Tratamendu baten abantailak eta desabantailak

Antibiotiko baten abantailarik nagusiena da, batzuetan, infekzioa azkarrago desagerrarazten duela.




Infekzioa desagertzen bada, mina eta sukarra ere desagertzen dira.



Hala ere, askotan infekzioa botikarik gabe desagertuko da.




Batzuetan, infekzioak denbora gehiago behar izaten du botikarik gabe desagertzeko; beste batzuetan, ordea, denbora bera behar izaten du!




Antibiotikoen desabantaila garrantzitsu bat da batzuetan gonbitoa edo beherakoa sorrarazten dutela eta, ondorioz, gaizki sentiarazten zaituztela.




Bukatzeko, galdetu beti zuen buruari zer den garrantzitsuenak.



Niri min handia ematen dit belarriko infekzioak, eta sukarra dut.




Antibiotikoa hartu nahi dut! Nire ustez, antibiotikoaren abantailak dira garrantzitsuenak.



Nik ez dut gaizki sentitu nahi! Niri infekzioak ez dit horrenbesteko minik eragiten!




Nik ez dut antibiotikoa hartu nahi! Nire ustez, antibiotikoaren desabantailak dira garrantzitsuenak.



160 8. ikasgaia: Tratamendu baten abantailak eta desabantailak

↓ Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak


Hara, John eta Julie! Jendeak erabaki informatuak hartzen dituenean, zuek orain egin duzuen bezala, ez dago denentzat egokia den erabakia...



Pertsona bat, erabaki bat. Egokia hori da, kitto! Batentzat garrantzitsuen dena, ez da beti garrantzitsuen izaten beste batentzat.



Baina John, antibiotikoa hartu aurretik, galdetu zure amari.



Oraindik haurrak zarete eta.




8. ikasgaia: Tratamendu baten abantailak eta desabantailak

161

↓ Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

Informazioa: Belarri barruko infekzioei erdiko belarriko infekzio esaten zaie. Halako infekzio asko birusek eragiten dituzte, ez bakterioek. Antibiotikoek ez dute eraginik birusetan, eta bakterioak antibiotikoekiko erresistente egiten dira sarri erabiltzen direnean. Halako infekzio gehienak sendagairik erabili gabe desagertzen dira. Haurrak min handia duenean bakarrik gomendatzen da antibiotikoak erabiltzea halako infekzioetarako.


Irakasleak, mila esker horrenbeste gauza garrantzitsu irakasteagatik.



Zalantzan jarriko dugu esaten dena eta galderak egingo ditugu.




Guk geuk hartuko ditugu gure erabakiak, erabaki informatuak.



162 8. ikasgaia: Tratamendu baten abantailak eta desabantailak





164 8. ikasgia: Tratamendu baten abantailak eta desabantailak

↓ Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

ADIBIDE OSAGARRIA

Hemen duzu atal honetan ikasitakoari buruzko zenbait adibide osagarri.

Norberarentzat garrantzitsua zer den kontuan hartuta, bi pertsonen hartutako erabakiak ikusiko ditugu.

A tratamendua:

Hautsitako hezur bat osatzeko, ebakuntza egitea.

Abantaila: Hezurra lehenago sendarazi dezake.

Desabantaila: Diru asko balio du, eta infekzioa harrapa dezakezu.

B tratamendua:

Hautsitako hezur bat osatzeko, ebakuntzarik ez egitea.

Abantaila: Ez du diru gasturik.

Nelsonen erabakia: Nelsonek ebakuntza egitea erabaki du, saskibaloijokalaria delako eta, berarentzat, garrantzitsuagoa delako lehenbailehen jokatzeko hastea berriro.

Rhonaren erabakia: Rhonak ebakuntzarik ez egitea erabaki du, nahiago duelako itxaron eta dirua aurrezteko, eta ez duelako infekzioa harrapatzeko arriskua izan nahi.

Jarraian azaltzen dira hurrekin ozen irakurri duzuen errepasatzeko galdera eta erantzunak:

- 1. Tratamendu bat erabili ala ez erabakitzen dutenean egin beharreko zer bi galdera garrantzitsu ikasi dituzte Johnek eta Juliek?**

Hau da lehenengo galdera: Zer abantaila eta desabantaila ditu tratamenduak? Hau da bigarren galdera: Zer da, nire ustez, garrantzitsuena?

- 2. Zergatik erabaki zuen Johnek antibiotikoa erabiltzea?**

Belarriko infekzioak min handia ematen zionez, antibiotikoaren abantailak ziren garrantzitsuena harentzat.

- 3. Zergatik erabaki zuen Juliek antibiotikoa ez erabiltzea?**

Belarriko infekzioak ez zion ematen halako minik, eta ez zuen ondoezik egon nahi; beraz, antibiotikoaren desabantailak ziren garrantzitsuena harentzat.

Ez dago adibide gehigarrik hurrei ikasgai hau irakasteko.

JARDUERA



Jarraibideak

Helburua: Zuretzat erabaki egokiena hartu duzula pentsatzea, abantaila eta desabantaileri buruzko hausnarketa egin duzulako.

Abantailen eta desabantailen zerrenda hurrengo orrian dago.

1. urratsa: Neska-mutilek imajinatuko dute belarriko infekzioa dutela, istorioan Johnnek duena bezalakoa, eta min handia ematen diela.

2. urratsa: Irakasleak gidatuta, neska-mutilek eztabaidatuko dute zein den, beraien ustez, tratamendu bakoitzaren abantaila edo desabantaila garrantzitsuena.

Gogoratu tratamendu gehienek efektu positiboak eta negatiboak dituztela.

3. urratsa: Irakasleak abantaila eta desabantaila guztiak irakurriko ditu.

4. urratsa: Ikasleak Johnen lekuan jarriko dira, belarriko infekzioa balute bezala, eta eskua altxatuko dute uste badute irakasleak irakurritako abantaila edo desabantaila garrantzitsua dela.

5. urratsa: Neska-mutilek bere mahaiko lagunekin eztabaidatuko dute zer tratamendu eta zergatik aukeratuko luketen.

Jarraibide gehiago →

166 8. ikasgaia: Tratamendu baten abantailak eta desabantailak

↓ Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

ACTIVITY



- 6. urratsa:** Irakasleak galdetuko du nork hautatuko lukeen antibiotikoa.
- 7. urratsa:** Antibiotikoa hautatuko luketen neska-mutilak altxatu egingo dira.
- 8. urratsa:** Neska-mutil guztiak eseri egingo dira.
- 9. urratsa:** Irakasleak galdetuko du nork ez lukeen antibiotikoa aukeratuko.
- 10. urratsa:** Antibiotikoa hautatuko ez luketen neska-mutilak altxatu egingo dira.
- 11. urratsa:** Neska-mutil guztiak eseri egingo dira.
- 12. urratsa:** Neska-mutilek pentsatzen dute min handirik ematen ez dien infekzioa dutela, istorioan Juliekin duena bezalakoa.
- 13. urratsa:** Prozesua errepikatuko da, 6. urratsetik 11. urratsera..

Jarraibide gehiago →

JARDUERA



1. tratamendua: Antibiotiko bat hartzea

Antibiotikoen abantailak:

- Batzuetan, infekzioak eragindako mina eta sukarra lehenago desagerrarazten dute.

Antibiotikoen desabantailak:

- Batzuetan, gonbitoa edo beherakoa eragiten ditu.
- Gustu txarra dute.
- Hainbat egunetan eta egunean hainbat alditan hartu behar dira.
- Diru gastua dute.

2. tratamendua: Antibiotikorik ez hartzea**Antibiotikorik ez hartzearen abantailak:**

- Ez duzu gonbito-larririk eta beherakorik izango.

Antibiotikorik ez hartzearen desabantailak:

- Mina eta sukarra ez dira lehenago desagertuko.



1. ARIKETA

Idatzi hitz hauen esanahia. Gogoratu liburuaren amaieran aurki ditzakezula.

Adibidea:

Zer da tratamenduen arteko "konparaketa zuzena"?

Desberdintasun garrantzitsu bakarra duen konparaketa: tratamenduak.

1. Zer da erabaki "informatua"?

Erabaki informatua da daukazun informazioa ulertu ondoren hartzen duzun erabakia.

2. Zer da tratamendu baten "abantaila"?

Tratamenduaren abantaila bat da zure iritziz tratamendu batek dakarren onura.

3. Zer da tratamendu baten "desabantaila"?

Tratamenduaren desabantaila bat da zure iritziz tratamendu batek dakarren kaltea.

8. ikasgaia: Tratamendu baten abantailak eta desabantailak

169

 Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

Jarraibideak: Gogorazi hurrei baieztapenak idazteko ariketa-liburuaren amaieran.

2. ARIKETA

Esan egia ala gezurra den.

Adibidea:

Konparaketa bat aski handia bada, ez da beharrezkoa konparaketa zuzena izatea.

Egia Gezurra

1. Tratamendu bat garestia izatea abantaila da.

Egia Gezurra

2. Efektu positibo bat tratamenduaren abantaila bat da.

Egia Gezurra

3. Bi pertsonak erabaki "informatuak" hartzen dituztenean, erabaki bera hartzen ari direla esan nahi du.

Egia Gezurra

4. Pertsona batentzat abantaila dena beste batentzat desabantaila izan liteke.

Egia Gezurra

5. Tratamendu baten desabantailak abantailak baino garrantzitsuagoak dira beti.

Egia Gezurra




170 8. ikasgaia: Tratamendu baten abantailak eta desabantailak

 Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

Azalpena: Esate baterako, pisua hartzea abantaila bat da handiagoak izan nahi duten pertsonentzat, baina desabantaila bat da argalago egon nahi dutenentzat.

Bete bereiz ikasgaiko ebaluazio-orria.



IKASGAIKO EBALUAZIO-ORRIA

Hausnartutako Osasun Erabakiak egitasmoa

Ikasgaiko informazioa irakasleentzat

Tratamendu bat erabili ala ez erabaki aurretik tratamendu horri buruz duzun informazioa ulertzen duzunean, erabaki informatu bat hartzen ari zara. Tratamenduei buruzko informazio-mota ugari daude. Tratamenduen arteko konparaketa zuzenen emaitzak dira informazio-mota erabilgarriena erabakiak hartzeko. Daukazu informazioa ulertu duzunean, erabaki informatu bat har dezakezu, zure ustez abantailak eta desabantailak direnak eta zuretzat garrantzitsuena dena kontuan hartuta.

Tratamendu guztiek dituzte abantailak eta desabantailak. Efektu positibo bat tratamendu baten abantaila bat da, baina beste abantaila batzuk ere izan daitezke. Esate baterako, tratamendu bat beste batzuk baino merkeagoa bada, hori abantaila bat da. Medikuek eta beste osasun-ikertzaile batzuek normalean onura hitza erabiltzen dute abantaila esateko. Bestalde, efektu negatibo bat tratamendu baten desabantaila bat da, baina izan daitezke beste desabantaila batzuk ere. Esate baterako, tratamendu bat beste batzuk baino garestiagoa bada, hori desabantaila bat da.

Osasun-ikertzaileek normalean arriskuak hitza erabiltzen dute efektu negatiboak esateko. Efektu negatiboak ez diren desabantaila batzuetan karga esaten zaie. Esate baterako, bada aspirina izeneko pilula bat. Osasun-ikertzaileek, konparaketa zuzenak eginez, antzeman dute egunero aspirina-kantitate txiki bat hartzen duten pertsonak beste pertsona batzuek baino bihotzeko gutxiago izaten dituztela. Halaber, antzeman zuten aspirina-kantitate txiki bat hartzeak ez duela efektu negatiborik pertsona gehienengan. Hala ere, ikusi zuten pertsona batzuek hemorragia larriak izaten dituztela urdailean egunero aspirina-kantitate txiki bat hartzen badute.

Tratamendu baten abantaila edo desabantaila bera garrantzitsuagoa izan daiteke pertsona batentzat beste batentzat baino. Aspirinaren adibidean, abantailak garrantzitsuagoak dira bihotzekoa izateko arrisku handiena duten pertsonentzat: gizonetakoak, erretzaileak, adinekoak, lehenago bihotzekoa izan duten pertsonak. Bihotzekoa izateko arrisku txikiagoa duten pertsonen kasuan, desabantailak garrantzitsuagoak dira. Horietako pertsona gehienek ez dute bihotzekorik izango aspirina hartuta edo hartu gabe, eta aspirina hartzeak hemorragia larri bat eragin diezaieke horietako batzuei.





Haurrak baliabideen lehenengo bertsiko jolas bat probatzen, Uganda, 2014ko urria.

9.

IKASGAIA

Zer gogoratu behar duzu?

9. IKASGAIA

Zer gogoratu behar duzu?

Zer ikasi behar duten haurrek ikasgai honetan:

Helburuak	277. or.
Prestaketa	277. or.
Ikasgaia	278. or.
1. urratsa: Aurreko ikasgaia erreparasatzea	279. or.
2. urratsa: Ozen irakurtzea	280. or.
3. urratsa: Eztabaidatzea	-
4. urratsa: Jarduera gidatzea	300. or.
5. urratsa: Ariketak gidatzea	304. or.
6. urratsa: Ebaluazio-orria betetzea de la Ikasgaia	307. or.
Ikasgaiko informazioa irakasleentzat	-

Helburuak

Zer ikasi behar duten haurrek ikasgai honetan:

- Zer gogoratu behar duzu?

Prestaketa (20 minutu)

Ikasgaiaren aurretik egin behar duzuna.

Aldez aurretik irakurri

- Irakurri testuliburuan ikasgai honi dagozkion orriak
- Irakurri gidan ikasgai honi dagozkion orriak

Bildu materiala

Ziurtatu honako hauek dituzula:

- Gida hau
- Ikasgaiko ebaluazio-orria
- Borragoma batzuk

Ziurtatu haur guztiek dituztela honako hauek :

- Testuliburuaren kopia bat
- Ariketa-liburua
- Arkatz bat edo boligrafo bat

Ikasgaia (80 minutu)

Jarraian, ikasgaia emateko plan bat proposatzen dizugu.

IRAKASLEA	HAURRAK	IRAUPENA
1. URRATSA Aurreko ikasgaia errepasatzea		<i>10 min</i>
<ul style="list-style-type: none"> Errepasatu aurreko ikasgaia, gida honetako 279 orrialdean azaltzen diren galderak erabiliz. 	<ul style="list-style-type: none"> Adierazi zaien moduan erantzungo dituzte galderak 	
2. URRATSA Ozen irakurtzea		<i>25 min</i>
<ul style="list-style-type: none"> Gidatu ozen irakurtzeko prozesua gida honetako 280. orrialdetik aurrera. <i>Ozen irakurtzeko moduak kontsultatzeko, begiratu gida honetako 19. orrialdea.</i> 	<ul style="list-style-type: none"> Haurren testuliburua 172. orrialdean ireki, eta ozen irakurriko dute, adierazi zaien moduan. 	
ATSEDENA		<i>5 min</i>
3. URRATSA Eztabaidatzea		-
4. URRATSA Jarduera gidatzea		<i>15 min</i>
<ul style="list-style-type: none"> Zuzendu jarduera gida honetako 300. orrialdetik. 	<ul style="list-style-type: none"> Haurren testuliburua 192. orrialdean ireki, eta jarduera egingo dute, adierazi zaien moduan. 	
5. URRATSA Ariketak gidatzea		<i>10 min</i>
<ul style="list-style-type: none"> Gidatu ariketak gida honetako 304. orrialdetik. Lagundu hurrei ariketak egiten, eta gidatu ariketak zuzentzeko prozesua. <i>Ariketak zuzentzeko moduak kontsultatzeko, begiratu gida honetako 20. orrialdea.</i> 	<ul style="list-style-type: none"> Ariketa-liburua 46. orrialdean ireki, eta ariketak egingo dituzte. Testuliburua 169. orrialdean ireki, eta ariketak kopiatu eta egingo dituzte. 	
6. URRATSA Ebaluazio-orria betetzea		<i>5 min</i>
<ul style="list-style-type: none"> Bete ikasgaiko ebaluazio-orria 		

Jarraian, galdera batzuk eta haien erantzunak daude, aurreko ikasgaia errepasatzeko haurrekin.

1. Tratamendu bat erabili ala ez erabakitzen dutenean egin beharreko zer bi galdera garrantzitsu ikasi dituzte Johnek eta Juliek?

Hau da lehenengo galdera: Zer abantaila eta desabantaila ditu tratamenduak? Hau da bigarren galdera: Zer da, nire ustez, garrantzitsuena?

2. Zergatik erabaki zuen Johnek antibiotikoa erabiltzea?

Belarriko infekzioak min handia ematen zionez, antibiotikoaren abantailak ziren garrantzitsuena harentzat.

3. Zergatik erabaki zuen Juliek antibiotikoa ez erabiltzea?

Belarriko infekzioak ez zion ematen halako minik, eta ez zuen gaizki egon nahi; beraz, antibiotikoaren desabantailak ziren garrantzitsuena harentzat.

Berrikusketak

9

Zer gogoratu
behar duzu?

172 9. ikasgaia: Zer gogoratu behar duzu?

↓ *Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak*




Azken ikasgai honetan ikasi duzun guztiaren birpasa egingo dugu.

1. **ikasgaian**, "osasun", "tratamendu" eta "efektu" hitzen esanahiak ikasi dituzu.

Eta baita liburuak zer dioen ere.



Zer da "osasuna"?



Zer da "tratamendua"?

174 9. ikasgaia: Zer gogoratu behar duzu?

↓ Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak



Zer da tratamendu baten “efektua”?



Zergatik hausnartu behar duzu, tratamendu bat erabili ala ez erabaki aurretik?

9. ikasgaia: Zer gogoratu behar duzu? **175**

↓ Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

2. ikasgaian ikasi zenuen “baieztapen”, fidagarritasun gutxiko” eta ”oinarri”aren esanahiak ikasi zenituen.

Ikasi zenuen oinarri desegokia duen baieztapena fidagarritasun gutxiko baieztapena dela.

Ikasi ere, ikasi zenuen tratamendu bat erabiltzen duen norbaiten esperientzia pertsonala ez dela oinarri egokia tratamendu baten efektuei buruzko baieztapenak egiteko.

Istorian, John eta Julie klinikara joan dira, eta han ezagutu dituzte irakasleak.



176 9. ikasgaia: Zer gogoratu behar duzu?

Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

**Eztabaidatzeko:**

Zer da "baieztapen" bat?

Zer da "baieztapen" baten oinarria?

Zergatik zuen fidagarritasun gutxi Sarahen baieztapenak?

Zer galdetu behar duzu, beti, tratamenduei buruzko baieztapen bat entzuten duzunean?

3. ikasgaian, tratamenduen efektuei buruzko baieztapenak egiteko beste bi oinarri desegoki ikasi zenituen.

Ikasi zenuen tratamendua aspalditik erabiltzea edo pertsona askok erabiltzea ez direla oinarri egokiak tratamenduen efektuei buruzko baieztapenak egiteko.

Era berean, ikasi zenuen tratamendu bat berria izatea edo garestia izatea ez direla oinarri egokiak tratamenduen efektuei buruzko baieztapenak egiteko.

Istorioan, irakasleek John eta Julie bisitatu dituzte eskolan.



178 9. ikasgaia: Zer gogoratu behar duzu?

↓ Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

**Eztabaidatzeko:**

Zergatik zuen fidagarritasun gutxi Ruthen baieztapenak?

Zergatik zuen fidagarritasun gutxi Ahmeden baieztapenak?

9. ikasgaia: Zer gogoratu behar duzu? **179**

↓ Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

4. ikasgaian, tratamenduen efektuei buruzko baieztapenen bi oinarri desegoki gehiago ikasi zenituen.

Ikasi zenuen tratamendua saltzen duen pertsonak tratamendu horri buruzko zerbait esatea ez dela oinarri egokia, tratamenduen efektuei buruzko baieztapenak egiteko.

Aldi berean ikasi zenuen aditu batek tratamendu bati buruz esaten duena ez dela oinarri egokia, tratamenduen efektuei buruzko baieztapenak egiteko.

Istorioan, John eta Julie azokan elkartzekotan geratu ziren irakasleekin.



180 9. ikasgaia: Zer gogoratu behar duzu?

↓ Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

Egun on, irakasleak! Makinatxo elektriko honen soinua entzutean, eltxoek ihes egiten dute. Malariatik babesten gaitu! Ziur nago, aditu batek esan zidan! Eta asko daki eltxoei buruz...

**Eztabaidatzeko:**

Zergatik zuten fidagarritasun gutxi Mwaka jaunaren eta Nantaba andrearen baieztapenek?

Zergatik zuen fidagarritasun gutxi Namuli andrearen baieztapenak?

5. ikasgaian ikasi zenuen zergatik konparatu behar dituzten tratamenduak osasun-ikertzaileek.

Istorioan, John eta Julie irakasleak bisitatzera joan ziren, haien bulegora.



182 9. ikasgaia: Zer gogoratu behar duzu?

↓ Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

**Eztabaidatzeko:**

Osasun-ikertzaileek, zergatik erabiltzen dituzte konparaketak tratamenduak ikertzeko?

6. ikasgaian ikasi zenuen tratamenduen arteko konparaketa “zuzen” baten esanahia.

Aldi berean ikasi zenuen, zergatik eta nola izan behar duten osasun-ikertzaileek zuzenak, tratamenduak konparatzen dituztenean.

Istorioan, irakasleek Johneta Julie bisitatzen dituzte haien herriko kirol-zentroan.



184 9. ikasgaia: Zer gogoratu behar duzu?

↓ Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

**Eztabaidatzeko:**

Zer da tratamenduen arteko konparaketa “zuzen” bat?

Osasun-ikertzaileek, zergatik erabiltzen dituzte konparaketak tratamenduak ikertzeko?

Osasun-ikertzaileek, nola lortzen dute zuzenak izatea tratamenduak konparatzen dituztenean?

9. ikasgaia: Zer gogoratu behar duzu? **185**

7. ikasgaian ikasi al duzu osasun-ikertzaileek zergatik eman behar dizkioten tratamenduak jende askori, tratamenduak konparatzen dituztenean?

Istorioan, John eta Julie irakasleekin unibertsitateko kirol-zentroan elkartzekotan geratu dira.

Hortaz, John eta Julie zer iruditzen zaizkizue emaitza hauek?

KORRIKA EGIN AURRETIK ZUKUA EDATEAK URA EDATEAK BAINO JENDE GEHIAGORI ERAGITEN AL DIO SABELEKO MINA?
SABELEKO MINA DUTEN PERTSONAK:

	A TALDEA	B TALDEA
①	1	2
②	1	1
③	3	1

186 9. ikasgaia: Zer gogoratu behar duzu?

↓ Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

Hau zen azken konparaketa, eta oraingoan 50 ikasleetatik **22k** dute sabeleko mina.

Eta B taldeko 50 ikasleetatik **9k** dute sabeleko mina

100 ikaslerekin egindako konparaketa guztietan ia emaitza bera izan dugu!

A taldeko korrikalariak izan dira zukua edan dutenak.

DIO SABELEROKO MINA!
SABELEKO MINA DUTEN PERTSONAK:

	A TALDEA	B TALDEA
①	1	2
②	1	1
③	3	1
④	18	11
⑤	20	10
⑥	22	9

Eztabaidatzeko:

Zergatik egin behar dituzte osasun-ikertzaileek hainbat konparaketa zuzen, pertsona askorekin?

9. ikasgaia: Zer gogoratu behar duzu? **187**

8. ikasgaian, tratamendu bat erabili ala ez erabaki baino lehen, egin behar dituzun bi galdera ikasi zenituen.


Istorian, irakasleek John eta Julierekin topo egin zuten klinikan.

John eta Julie han zeuden, biek belarriko infekzioa zutelako.



188 9. ikasgaia: Zer gogoratu behar duzu?

↓ Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

**Eztabaidatzeko:**

Tratamendu bat erabili ala ez erabili baino lehen, zein dira beti egin behar dituzun bi galderak?

Zergatik egin behar dituzu bi galdera horiek?

Hurrengo orrian, gogoratu behar duzun garrantzitsuenaren zerrenda duzu.

Zerrenda hori erabili dezakezu tratamenduei buruzko erabakiak hartzeko.

Eta erabili dezakezu ikasi duzuna beste pertsona batzuei irakasteko ere.

Gogoan izan! zer ikasi asko dago arlo hauetan: tratamenduei buruzko baieztapenak, tratamenduen arteko konparaketaketa tratamenduei buruzko erabakiak.



190 9. ikasgaia: Zer gogoratu behar duzu?

↓ Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

Gogoratu!

- Hausnartu tratamendua erabili ala ez erabaki aurretik.
- Tratamendu gehienek efektu positiboak eta negatiboak dituzte.
- Tratamendu bati buruz norbaitek esaten duena okerra izan daiteke.

Tratamenduei buruzko BAIEZTAPENAK:

Tratamendu baten efektuei buruzko baieztapen bat entzutean, galdetu beti:

- **Zein da baieztapen horren oinarria?**

Baieztapen baten oinarria egokia ez bada, baieztapenak fidagarritasun gutxi izango du. Oinarri hauek ez dira egokiak tratamendu baten efektuei buruzko baieztapenak egiteko:

1. Tratamendu bat erabiltzen duen norbaiten esperientzia pertsonala.
2. Aspalditik erabiltzen ote den eta jende askok erabiltzen ote duen tratamendua.
3. Garestia ote den eta berria ote den.
4. Tratamendua saltzen duenak esaten duena.
5. Aditu batek konparaketa zuzenetan oinarritu gabeko zerbait esaten du tratamenduari buruz.

Tratamenduen arteko KONPARAKETAK:

Baieztapen baten oinarria egokia bada, baieztapena fidagarria izango da. Konparaketa zuzenak oinarri egokiak dira, tratamenduei buruzko baieztapenak egiteko.


Honela egiten dituzte osasun-ikertzaileek konparaketa zuzenak:

1. Ikerlariak bi tratamenduen arteko konparaketa egiten dute, edo tratamendua erabili eta ez erabiltzearen arteko konparaketa egiten dute.
2. Ikerlariak ausaz hautatzen dute (txanpon bat erabiliz) nork jasoko duen tratamendu bakoitza.
3. Ikerlariak ez dute inork jakiterik nahi nork jasotzen duen tratamendua, amaitu arte.
4. Ikerlariak pertsona askori ematen diote tratamendua; beraz, behatzen dutena ez da kasualitatez gertatzen.

Tratamenduei buruzko ERABAKIAK:

Tratamendu bat erabili ala ez erabaki behar duzunean, galdetu beti:

- **Zein dira tratamenduaren abantailak eta desabantailak?**
 - **Nire ustez, zer da garrantzitsuena?**

JARDUERA
 IKASGELAKO EZTABAIDA


Jarraibideak:

Helburua: gogoratu liburu honetan ikasi beharreko garrantzitsuenak.

1. *urratsa:* Neska-mutil bakoitzak buelta emango dio bere liburuari, joko-taula ahoz gora dagoela.
2. *urratsa:* Irakasleak bikoteka jarriko ditu ikasleak, eta bikoteko bat 1. jokalaria izendatuko du eta bestea 2. jokalaria.
3. *urratsa:* Ikasle bakoitzak objekturen bat hartuko du, fitxa gisa (harritxo bat, txanpon bat edo botila baten tapoia) eta taularen "IRTEERA" laukian jarriko du.

Irakasleak galdera-zerrenda bat dauka.


Galderak gida honetan daude, adibidearen hurrengo orrialdean.

4. *urratsa:* Irakasleak galdera bat irakurriko du.
5. *urratsa:* Bikote bakoitzeko 1. jokalaria esango dio 2. jokalariari zein den, bere ustez, erantzun zuzena.
6. *urratsa:* Irakasleak erantzun zuzena irakurriko du.

192 9. ikasgaia: Zer gogoratu behar duzu?

↓ Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

JARDUERA
IKASGELAKO EZTABAIDA



7. urratsa: Bikote bakoitzean, 1. jokalaria erantzuna asmatu badu, bere fitxa lauki bat aurrerantz mugituko du.

8. urratsa: 4. urratsetik 7ra bitartekoak errepikatuko dira, baina oraingoan 2. jokalaria erantzungo du.

Neska-mutil bat "HELMUGA" laukira iristen denean, horrek irabazi du. Bikotea berriro hasiko da.

Adibidea:

Irakasleak: "Tratamendu gehienek efektu positiboak bakarrik dituzte?, Efektu negatiboak bakarrik? Edo efektu positiboak eta negatiboak?"

Mahai bakoitzeko 1. jokalaria erantzuna emango dio 2. jokalaria.

Irakasleak: "Erantzun zuzena da tratamendu gehienek efektu positiboak eta negatiboak dituztela. Antibiotikoa erabiltzeak infekzioa azkarrago desagerrarazi ahal du, baina gaizki sentiarazi zaitzake".

Mahai bakoitzeko 1. jokalaria, galdera asmatu badu, lauki bat aurrerantz mugituko du bere fitxa.

Jarduerarako galderak

Galdera: Zerbait ez egitea izan daiteke tratamendu bat?

Erantzuna: Bai

Galdera: Tratamendu gehienek efektu positiboak, efektu negatiboak ala bietatik dituzte?

Erantzuna: Biak

Galdera: Erabat ziur egon gaitzke tratamendu gehienek efektuez?

Erantzuna: Ez

Galdera: Zer galdetu behar duzu, beti, tratamenduei buruzko baieztapen bat entzuten duzunean?

Erantzuna: Zein da baieztapen horren oinarria?

Galdera: Zer da garrantzitsuagoa, baieztapena nork egin duen ala baieztapenaren oinarria?

Erantzuna: Baieztapenaren oinarria

Galdera: Osasun-ikertzaileek zer egin behar dute lehenengo urrats gisa tratamendu baten efektuei buruzko aurkikuntza gehiago egiteko?

Erantzuna: Baieztapen bat ikerketa-galdera bihurtzea.

Galdera: Konparaketa bat noiz da zuzena?

Erantzuna: Taldeak antzekoak direnean (desberdintasun garrantzitsu bakarra tratamenduak dira)

Galdera: Osasun-ikertzaileek nola hautatu behar dute nork jasotzen duen tratamendu bakoitza?

Erantzuna: Ausaz

Galdera: Zer gerta daiteke pertsonak zer tratamendu jaso duten baldin badakite?

Erantzuna: Tratamenduak benetan izan ez duen efektu bat izan duela pentsa dezakete

Galdera: Zer gerta daiteke osasun-ikertzaileek konparaketa txikiegi bat egiten badute?

Erantzuna: Antzematen dutena kasualitatez antzemango dute

Galdera: Tratamendu bat erabili ala ez erabaki aurretik zer bi galdera egin behar dituzu beti?

Erantzuna: Zer abantaila eta desabantaila ditu tratamenduak, eta zer da nire ustez garrantzitsuena?

Zein dira baieztapen hauen oinarriak? Fidagarriak dira?

Baieztapena: Alik esaten du aloe verak malaria sendatzen duela, berak aloe vera erabili zuelako malaria zuenean, eta sendatu egin zelako.

Erantzuna: Alik aloe vera erabiltzen izandako esperientzia pertsonala da oinarria. Oinarri hori ez da egokia baieztapen bat egiteko; beraz, baieztapena fidagarritasun gutxikoa da.

Baieztapena: Patriciak esaten du jendeak denbora askoan erabili duela aloe vera eztulerako, eta horrenbestez, aloe verak eztula sendatzen duela.

Erantzuna: Oinarria da jendeak zenbat denboran erabili duen aloe vera eztulerako. Oinarri hori ez da egokia baieztapen bat egiteko; beraz, baieztapena fidagarritasun gutxikoa da.

Baieztapena: Lilianak esaten du eltxo-sare garesti bat erabiltzea hobea dela eltxo-sare merkeago bat erabiltzea baino.

Erantzuna: Oinarria da zenbat diru balio duen eltxo-sareak. Oinarri hori ez da egokia baieztapen bat egiteko; beraz, baieztapena fidagarritasun gutxikoa da.

Baieztapena: Gabrielelek esaten du hobeto lo egiten laguntzen duen pilula bat dagoela, osasun-ikertzaileek pilula hori hartzea beste bat hartzearekin konparatu zutelako; baina konparaketako pertsonak bazekiten zer pilula jaso zuten.

Erantzuna: Oinarria konparaketa ez-justu bat da. Oinarri hori ez da egokia baieztapen bat egiteko; beraz, baieztapena fidagarritasun gutxikoa da.

Baieztapena: Husseinek esaten du muskuluetako mina kentzen duen krema bat dagoela, osasun-ikertzaileek konparatu dutelako krema hori erabiltzea beste krema bat erabiltzearekin; konparaketa zuzena izan zen, 10 pertsonekin bakarrik egin zen arren.

Erantzuna: Oinarria konparaketa zuzen txiki bat da. Oinarri hori ez denez egokia, baieztapena fidagarritasun gutxikoa da.

Baieztapena: Jamesek esaten du ebakuntza batzuk seguruak direla eta beste batzuk ez, osasun-ikertzaileek konparaketa zuzen eta handi askotan ebakuntzetako bakoitza konparatu baitute beste tratamendu batzuekin.

Erantzuna: Konparaketa zuzen eta handi asko dira baieztapenaren oinarria. Oinarri hori egokia denez, baieztapena fidagarria da.

ARIKETA

Jarraibideak

Ireki ariketa-liburua zure baieztapenak idatzi dituzun orritik.

Idatzi baieztapen bakoitzaren oinarria, eta markatu uste duzunaren arabera lauki bat. Erantzuna hauetako bat da: baieztapena fidagarria da, baieztapenak fidagarritasun gutxi du edo ez zaude ziur. Adibide bat daukazu hurrengo orrian.

Gogoratu oinarri hauek ikasi dituzula:

- Tratamendu bat erabiltzen duen norbaiten esperientzia pertsonala.
- Aspaldiko ote den edo pertsona askok erabili ote duten tratamendua.
- Garestia ote den edo berria ote den.
- Tratamendua saltzen duen pertsonak tratamenduari buruz esaten duena.
- Aditu batek tratamenduari buruz esaten duena.
- Tratamenduen arteko konparaketa zuzena, edo beste inolako tratamendurekiko konparaketarik gabea.
- Tratamenduen arteko konparaketa okerra, edo beste inolako tratamendurekiko konparaketarik gabea.

Ez badakizu zein den baieztapenaren oinarria, utzi hutsik baieztapenaren lekua.

Utzi denbora ikasgaia bukaerarako, hurrek entzundako baieztapen batzuen inguruan eztabaidatzeko.



194 9. ikasgaia: Zer gogoratu behar duzu?

↓ Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

ARIKETA

Adibidea:

Baieztapena:

Behi-gorotzak erredurak sendatzen ditu!

Tratamendua:

Erredura batean behi-gorotza jartzea.

Efektua:

Erredurak sendatzea

Oinarria:

Norbaiten esperientzia pertsonala

Baieztapena fidagarria da?

 Bai Ez Ez nago ziur

9. ikasgaia: Zer gogoratu behar duzu? 195

 Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

ARIKETA

Baieztapena:

Tratamendua:

Efektua:

Oinarria:

Baieztapena fidagarria da?

Bai

Ez

Ez nago ziur

Baieztapena:

Tratamendua:

Efektua:

Oinarria:

Baieztapena fidagarria da?

Bai


Ez

Ez nago ziru

196 9. ikasgaia: Zer gogoratu behar duzu?

 Irakasleentzako jarraibideak eta oharrak

Bete bereiz ikasgaiko ebaluazio-orria.



IKASGAIKO EBALUAZIO-ORRIA

Hausnartutako Osasun Erabakiak egitasmoa



Haurrak, tratamenduan inguruko hausnarrean. Uganda, 2014ko urtarrila.

GLOSARIOA

Gorri zauden definizioak irakasleentzat dira. Ez daude haurren testuliburuan.

A

ABANTAILA

Zure ustez, tratamendu batek dakarren onura da.

AURKAKO ESANAHIA DUEN HITZA: "Desabantaila" → Ikusi "D" ADIBIDEA: "tratamendu baten efektu onak tratamenduaren **abantailak** dira. Zenbait tratamenduren **abantaila** bat da merkeagoa dela edo doan dela".

Tratamendu baten **ABANTAILA**

tratamendu baten efektu positibo bat da, tratamenduaren kostu txikia edo karga txikia da.

ESANAHIA BEREKO HITZAK: "Onura"

AUSAZ (ZORIZ) hautatzea : Tratamendu bakoitza nork hartu behar duen **ausaz** hautatzea da nork jasotzen duen jakin gabe hautatzea.

ADIBIDEA: John-ek eta Julie-k txanpon bat erabiliz aukeratu zuten nork edango zuen zukua eta nork ura. John-ek eta Julie-k ez zekiten nori egokituko zitzaion zukua". Hala, **ausaz** aukeratu zuten nork edango zuen zukua. John-ek eta Julie-ek ez zekiten nori egokituko zitzaion zukua."

Tratamendu bakoitza nork hartzen duen **AUSAZ** hautatzea probabilitate-metodo bat (esate baterako, txanpon bat airera botatzea edo zozketa egitea) erabiltzea da, guztiek tratamendu bat edo bestea egokitzeko probabilitate bera dutela bermatzeko, eta konparatzen diren bi taldeek antzeko ezaugarriak izan ditzaten. OSASUN-IKERTZAILEEK ausazko esleipena TERMINOA ERABILTZEN DUTE.

ADITUA

Gai bati buruz asko dakien pertsona da.

ADIBIDEA: "Belar-saltzaile bat **aditua** da sendabelarren arloan, baina belar-saltzaile batek huts egin dezake. **Adituek** huts egin dezakete".

ADITUA

da arlo espezifiko batean trebezia bat duen edo gai baten inguruan jakintza espezializatua duen pertsona bat.

ANTZEMAN

Konparaketa bat egin ondoren zerbait **ANTZEMATEA** da berdintasun edo desberdintasun bat aurkitzea.

ADIBIDEA: "Osasun-ikertzaileek **antzeman** zuten malaria zuten pertsona gutxiago zeudela eltxo-sarez babestuta lo egin zutenen artean".

Konparaketa baten ondoren zerbait **ANTZEMATEA** desberdintasun bat edo antzekotasun bat aurkitzea gertatu edo aldatu den zerbaitetan.

B**BAIEZTAPENA**

Norbaitek esaten duen zerbait da, zuzena ala okerra izan daiteke. Adibidea: Sarah-ren **baieztapenaren** arabera behi-gorotzak erredurak sendatzen ditu. **Baieztapena** okerra da.

BAIEZTAPENA

zerbait gertaera bat edo egiaren asertzio bat izatearen adierazpena da.

BAIEZTATU

Zuzena edo okerra izan daitekeen zerbait esatea.

Adibidea: Sarah-k baieztatu du behi-gorotzak erredurak sendatzen dituela. Baieztapena okerra da..

D

DESABANTAILA: Tratamendu baten desabantaila da, zure ustez, dakarren kaltea. AURKAKO ESANAHIA DUEN HITZA: "Abantaila". → Ikusi "A" ADIBIDEA: "Tratamendu baten efektu negatiboak tratamenduaren **desabantailak** dira. Zenbait tratamenduren beste **desabantaila** bat da garestiegia izatea".

Tratamendu baten **DESABANTAILA** bat da tratamenduaren efektu negatibo bat edo tratamenduaren kostu handia edo karga handia.

E

EFEKTUA (ONDORIOA): Tratamendu baten **EFEKTUA** da tratamenduaren eraginez gertatzen den zerbit.

ADIBIDEA: "Hobeto ikustea betaurrekoak erabiltzearen **efektua** da".

Tratamendu baten **EFEKTUA** da tratamenduaren osasun-erabakia areagotzea edo gutxiagotzea.

EMAITZA: Konparaketa baten **erabakia** da konparaketa egin ondoren antzematen den antzekotasuna edo desberdintasuna.

ADIBIDEA: "Osasun-ikertzaileek antzeman zuten **erabakia** izan zen eltxo-sarearekin lo egin zutenen artean malariadun gutxiago zeudela".

Konparaketa baten **EMAITZA** da neurtu den zerbituen desberdintasunaren tamaina erakusten duen aurkikuntza bat.

ERABAKIA: osasuna zaintzeko erabakia da zure osasuna edo besteena zaintzeko moduari buruzko erabakia.

1. ADIBIDEA: "Tratamendu bat aukeratzen duzunean, **osasuna zaintzeko erabakia hartzen ari zara**".

2. ADIBIDEA: "Gobernuak zer tratamendu erosi eta herritarrei zer eskaini erabakitzen duenean, **osasuna zaintzeko erabakia** bat hartzen ari da".

OSASUNA ZAINTEKO **ERABAKIA** da pertsona baten edo gehiagoren osasuna mantendu edo hobetzeko bi aukera edo gehiagoren artean (adibidez, tratamenduak) bat erabiltzeari buruzko erabakia bat.

ERABAKI INFORMATUA da daukazun informazioa ulertu ondoren hartzen duzun erabakia.

ADIBIDEA: "Osasun-ikertzaileek konparatu zuten antibiotiko bat hartzea eta ez hartzea. Johnek eta Juliek osasun-ikertzaileen behaketak ulertu zituzten. **Erabakia informatuak** hartu zituzten antibiotikoa hartzearen ala ez hartzearen inguruan".

ERABAKI INFORMATUA tratamenduen abantaila eta desabantaileri buruz dagoen informazio onena ezagututa eta informazio hori ulertuta hartzen den erabakia da.

ESPERIENTZIA PERTSONALA: Tratamendu bat erabiltzen duen norbaiten **esperientzia pertsonala** da tratamendua erabili ondoren berari gertatu zaiona.

ADIBIDEA: "Sarah-k dio behi-gorotzak erredurak sendatzen dituela. Baieztapena erredura batean behi-gorotza jarri zueneko **esperientzia pertsonalean** oinarrituta dago. Baieztapena ez da zuzena".

Tratamendu bat erabiltzen duen norbaiten **ESPERIENTZIA PERTSONALA** da pertsona horri tratamendua erabili ondoren gertatu zaiona.

OSASUN-IKERTZAILEEK "anekdota" edo "ebidentzia anekdotikoa" edo "kasuen azterketa" terminoek erabiltzen dituzte.

F

Baieztapen **FIDAGARRIA:** oinarri egokia duen baieztapena da.

AURKAKO ESANAHIA DUEN HITZA: "Fidagarritasun gutxikoa"

ADIBIDEA: "Eltxo-sareak malariatik babesten ditu pertsonak. **Adierazpen fidagarria** da konparaketa zuzenetan oinarritzen delako".

FIDAGARRITASUN GUTXIKO BAIEZTAPENA: oinarri desegokia duen baieztapena da. AURKAKO ESANAHIA DUEN HITZA: "Fidagarria"

ADIBIDEA: "Sarah-k zioen behi-gorotzak erredurak sendatzen dituela. Bere adierazpenaren oinarria, erredura batean behi-gorotza jarri zueneko, esperientzia pertsonala zen. Bere adierazpena **fidagarritasun gutxikoa** zen, esperientzia pertsonalean bakarrik oinarritzen zelako".

G

IKERKETA-**GALDERA** da ikertzaileak erantzuten saiatzen diren galdera.

ADIBIDEA: "Ikerketa-**galdera** hau izan zen: Eltxo-sareaz lo egiteak malaria harrapatzetik babesten ditu pertsonak?"

IKERKETA-GALDERA

argi egindako galdera bat, zeina hura erantzuteko diseinatutako azterketa batean erabiliko baita.

IKERKETA egitea zerbait arreta handiz aztertzea da, aztertzen denari buruzko aurkikuntzaren bat egiteko asmoz.

ESANAHI BEREKO HITZA: "Zientzia"

ADIBIDEA: "Konparaketa irakasleak eta Zuzena irakasleak tratamenduak **ikertzen** dituzte, haien ondorioei buruzko informazio berria lortzeko".

IKERKETA

egoera edo arazo baten azterketa sistematiko eta zehatza da, jakintza berriak sortzeko edo lehendik dauden jakintzak baliozkotzeko.

OSASUN-IKERKETA: osasunarekin lotutako alderdiak arreta handiz aztertzea da, aurkikuntzaren bat egiteko asmoz.

ADIBIDEA: "Osasun-ikertzaileak eltxo-sarearekin eta gabe lo egitearen arteko konparaketa egin zuten. **Osasun-ikerketa** hori eginda, eltxo-sarearekin lo egitearen ondorioei buruzko aurkikuntzak egin zituzten".

ESANAHI BEREKO HITZAK: "Osasun-zientziak"

OSASUN-IKERKETA

metodo sistematiko eta gardenak erabiltzea osasunaren inguruko galderak erantzuteko.

IKERTZAILEA: Zerbait arreta handiz aztertzen duen pertsona da, aztertzen ari denari buruzko aurkikuntzaren bat egiteko asmoz. ESANAHI BEREKO HITZA: "Zientzialaria" ADIBIDEA: "Konparaketa irakaslea eta Zuzena irakaslea **ikertzaileak** dira, eta tratamenduak aztertzen dituzte, haien ondorioei buruzko aurkikuntzak egiteko".

IKERTZAILEA

metodo zientifikoaren bitartez zerbait aztertzen duen pertsona da.

OSASUN-IKERTZAILEA: osasunarekin lotutako alderdiak arreta handiz aztertzen dituen pertsona da, aurkikuntzaren bat egiteko asmoz. ESANAHI BEREKO HITZAK: "Osasun- zientzialaria"

ADIBIDEA: "Zenbait **osasun-ikertzaileak** tratamenduek gure osasunean duten eragina aztertzen dute. Adibidez, ikertzaileek eltxo-sarearekin edo gabe lo egitearen arteko konparaketa egin zuten. Ikerketa hori eginda, eltxo-sarearekin lo egitearen ondorioei buruzko aurkikuntzak egin zituzten".

OSASUN-IKERTZAILEA

metodo zientifikoaren bitartez osasunarekin erlazionatutako alderdiak aztertzen dituen pertsona da.

INFEKZIOA germenek sorturiko gaixotasuna da.

ADIBIDEA: "Johnekin hatzean **infekzioa** izan zuen, behi-gorotza jarri ondoren"

INFEKZIOA

birusek, bakterioek, parasitoek edo beste mikroorganismo batzuek organismoan eragiten duten kalte edo gaixotasun bat da.

INFORMAZIOA: Tratamenduei buruzko informazioa horiei buruz esaten zaiguna edo ikasten duguna da.

ADIBIDEA: "Osasun-ikerketaren emaitza tratamenduei buruzko **informazioa** da".

INFORMAZIOA

tratamenduei buruz ematen diren edo ikasten diren gertaera edo jakintzak dira

IRAKASLEA, istorio honetan, unibertsitatean eskolak ematen edo ikerketa lanak egiten ari den pertsona da.

ADIBIDEA: "Zuzena eta Konparaketa **irakasleek** eskolak ematen dituzte unibertsitatean. Medikuek edo osasun-ikertzaile izateko ikasten ari direnei irakasten diete. **Irakasleek** ikertu ere egiten dute".

K

KASUALITATEZ antzematea: Konparaketan talde txikiegiak parte hartzen badute, ezin dugu baieztatu emaitza zuzena denik, zergatik gertatu den ezin baitugu jakin.

ADIBIDEA: "Osasun-ikertzaileek bi sendagai konparatu zituzten buruko minerako zein zen onena jakiteko. Lehen taldeari sendagai bat eman zioten eta beste bat bigarren taldeari. Lehen taldeko pertsonak nabaritu zuten buruko mina lehenago sendatzen zitzaiela. Baina oso pertsona gutxi zeuden konparaketa egiteko. Baliteke lehen sendagaia hobea zela **kasualitatez** antzematea. Ezin zuten jakin zergatik nabaritu zuten lehen taldeko pertsonak buruko mina lehenago sendatu zitzaiela".

KASUALITATEZ erreparatzea

konparaketa txikiegiak egiten dituztenean ageriko arrazoi gabe gertatu den tratamenduen azterketa baten emaitza da.

KONPARAKETA: : bi tratamendu edo gehiagoren arteko desberdintasunakaztertzea da. ESANAHI BEREKOHITZAK:"Tratamenduen ikerketa" ADIBIDEA:"Osasun-ikertzaileek eltxo- sarearekin eta gabe lo egitearen **arteko konparaketak egin dituzte**".

Tratamenduen arteko KONPARAKETA bat osasun-ikertzaileek pertsoneri tratamenduekin gertatzen zaienaren desberdintasuna neurtzen duten azterketa edo entsegua da

KONPARAKETA ZUZENA: Tratamenduak baldintza berdinetan egitea da eta desberdintasun garrantzitsu bakarria tratamendua bera izatea. AURKAKO ESANAHIA DUTEN HITZAK: " konparaketa okerra" ADIBIDEA: "Osasun-ikertzaileek eltxo-sarearekin edo gabe lo egitearen arteko konparaketa egin zuten. Lehen taldeko pertsonak eta beste taldekoek antzeko ezaugarriak zituzten. **Konparaketa zuzena** zen taldeen arteko desberdintasun garrantzitsu bakarria eltxo-sarearekin edo gabe lo egin izana baitzen".

Tratamenduen arteko **KONPARAKETA ZUZENA:** Tratamenduen efektuak neurtzean errore sistematikoak minimizatzeko diseinatu, gauzatu, argitaratu eta interpretatu den tratamenduen arteko azterketa bat da.

ESANAHI BEREKO HITZAK: "Proba zuzena"

KONPARAKETA OKERRA: Tratamenduen arteko konparaketak, tratamenduez gain, bestelako desberdintasun garrantzitsuak izatea. AURKAKO ESANAHIA DUTEN HITZAK: "konparaketa zuzena" ADIBIDEA: "Osasun-ikertzaileek eltxo-sarearekin eta gabe lo egitearen arteko konparaketa egin zuten. Lehen taldeko pertsonak oso eltxo gutxiko ingurunean bizi ziren. **Konparaketa okerra** zen taldeen artean tratamenduez gain beste desberdintasun garrantzitsu bat zegoelako".

Tratamenduen arteko **KONPARAKETA OKERRA:** Tratamenduen arteko konparaketan, probabilitate handia dago errore sistematikoak gertatzeko tratamenduen efektuak neurtzean, diseinuko, gauzatzeko, argitaratzeko edo interpretazioko arazoen ondorioz. ESANAHI BEREKO HITZAK: "Proba okerra"

Tratamenduak KONPARATZEA

bi tratamendu edo gehiagoren artean dauden desberdintasunak aztertzea da. ADIBIDEA: "Osasun-ikertzaileek eltxo-sarearekin eta gabe lo egitea konparatu zuten.

N

NAHASTU: pertsona bati zerbait okerra izanik zuzena dela pentsaraztea da nahastea. ESANAHI BEREKO HITZA: "Engainatzea"

ADIBIDEA: "Fidagarritasun gutxiko baieztapen batek **nahas** zaitzake"

Zerbait **NEURTZEA** da zenbat dagoen edo zenbatek osatzen duten begiratzea. ADIBIDEA: "Zenbait osasun-ikertzailek eltxo-sarearekin eta gabe lo egitearen arteko konparaketa egin zuten. Ikertzaileek **neurtu** zuten zenbat pertsonak zuten malaria".

O

OINARRIA (OINARRITU).

Baieztapena **arrazoitzen** duena da. Baieztapenari eusten diona, baieztapenaren funtsa da.

Adibidea: Sarah-ren baieztapena bere esperientzian **oinarritu** zen.

OINARRIA (OINARRITU)

baieztapenaren justifikazioa edo azalpena da.

OSASUNAK adierazten du ondo dauden zure gorputza eta burua. ADIBIDEA: "Julie-ren osasuna ona da ez duelako ez gaixotasunik eta ez lesiorik. John-ek infekzio bat du; beraz, bere **osasuna** Julie-rena baino okerragoa da".

OSASUNA

pertsona baten egoera fisiko eta mentala da.

T

TRATAMENDUA zure osasunaren alde egiten duzun zerbait da. ADIBIDEA:” Betaurrekoak erabiltzea **tratamendu** bat da”.

TRATAMENDUA

pertsonen osasuna hobetzeko egiten den edozein ekintza da. OSASUN-IKERTZAILEEK ERABILTZEN DUTEN TERMINOA: "esku-hartzea"

Z

ZIENTZIA → Ikusi "Ikerketa".

OSASUN-**ZIENTZIAK** → Ikusi "Osasun-ikerketa".

ZIENTZIALARIA → Ikusi "Ikertzailea”.

OSASUN-ZIENTZIALARIA → Ikusi "Osasun-ikertzailea”.

ZIUR EGON:Tratamendu baten ondorioez ZIUR EGOTEA da tratamenduaren ondorioei buruzko zalantza gutxi izatea.

ESANAHI BEREKO HITZAK: "Ziur jakin"

AURKAKO ESANAHAIA DUTEN HITZAK: "Zalantzazko”edo "dudazko”. ADIBIDEA: "Ezin ditugu erabat **ziur jakin** tratamendu gehienen ondorioak”.

Liburu hau David Sacketti eskainia da

David Sacket, ebidentzian oinarritutako medikuntzaren aitzindaria, baliabide hauek garatzen ari ziren bitartean hil zen. Davek "aurre egin zion medikuntzak urte luzez eduki zuen iritzi subjektibo, tradizio eta agintearekiko menpekotasunari".¹ Lagun, lankide eta inspirazio-iturri izan zen Informed Health Choices taldeko kide guztientzat.

Dave artista zen konplexua erraza bilakatzen.² Hitzaldietan, saiakeretan eta liburuetan bere hurbiltasuna azaldu nahi zuenean Kurt Vonneguten "Cat's Cradle" eleberria aipatzen zuen:

Zientzialari bat ez bada gai zortzi urteko haur bati zer egiten ari zen azaltzeko hitzontzi hutsa da³.

Oso serio hartu dugu aipamen hori baliabide hauek sortzeko. Ez dago liburu hau eskaintzea baino modu hoberik Dave omentzeko (tira! beharbada, konparaketa zuzen bat eginda, liburuaren ondorioak egiaztatzeko, dagoeneko egiten ari garena, alegia).

1. Necrológica. Rennie D. David Sackett obituary The Guardian, 2015eko maiatzaren 29a.
2. Sackett DL. David L Sackett: 2014ko eta 2015eko elkarrizke k. fhs.mcmaster.ca/ceb/docs/David_L_Sackett_Interview_In_2014_2015.pdf.
3. Vonnegut K. Cuna de gato. Nueva York: Delacorte Press, 1963.

Ekarpenak eta esker-hitzak

Informed Health Choices (IHC) taldearen baliabideen garapenak eta ebaluazioak Norvegiako Ikerketa Batzordearen (220603/H10 zk. proiektua) eta erakunde anfitrioiaren babesa jaso du: Norvegiako Osasun Publikoaren Institutua (Oslo, Norvegia); Markerere Unibertsitatea (Kampala, Uganda); Kisumuko Laku Handietako Unibertsitatea (Kisumu, Kenia), eta Ruandako Unibertsitatea (Kigali, Ruanda).

Ugari dira baliabide didaktiko hauen sorreran parte hartu duten pertsonak eta biziki eskertzen diegu beren laguntza. Uganda, Kenia, Ruanda, eta Norvegiako hainbat ikastetxetako ikasle eta irakasleek beren denbora eta iritzia eman dute proba-bertsioetan. Proiektuaren hasieratik, Ugandako irakasle-sare batek eta osasunerako ikertzaileen aholkularitza talde batek lagundu dute baliabideen garapena bideratzen. Mundu osoko lankideek eskaini digute beren laguntza eta iradokizun baliotsuak. Eskerrak guztiei, eta barkamena eskatzen dugu, ezin izan ditugulako guztien izenak aipatu.

Matthew Oxman-ena izan da testuaren ardurua nagusia, eta egile-kide guztien laguntzaz berraztertu ere egin zuen. Sarah Rosenbaum-ek irudiz hornitu zituen baliabideak, eta Miriam Grønli-k koloreztatu egin zituen. Sarah Rosenbaumek eta Angela Morelli-k baliabideen diseinua egin zuten. Egile guztiek eta baita lain Chalmerse-k eta beste askok parte hartu dute baliabide hauen ebaluazioan eta hobekuntzan.

Hausnartutako Osasun Erabakiak egitasmoaren helburua da, tratamenduei buruzko hausnarketan bidez, pertsonen osasunerako erabaki hobeak hartzen laguntzea. *Osasun arloko erabakien liburua* hurrei laguntzeko da, eta gida hau liburua eskoletan erabiliko duten irakasleei laguntzeko. Ikasgaiak prestatu eta lantzeko jarraibideak biltzen ditu, bai eta helburuei buruzko funtsezko informazioa ere.

Gu, liburuaren eta gidaren egileak, osasun arloko ikertzaile eta diseinatzaileak gara Ugandan, Kenyan, Ruandan, Norvegiar eta Ingalaterran. Lau herrialdeetako irakasleek eta hurrek liburuaren eta gidaren aurreko bertsioak probatu/landu dituzte. Ugandan dagoen irakasle-sare baten eta nazioarteko ikertzaile-sare baten aholkuak jaso ditugu.

Baliabide horien eta proiektuaren inguruko informazio gehiago aurkituko duzu proiektuaren webgunean:
www.informedhealthchoices.org

Ongi hartua izango da baliabide horiek hobetzeko balio duen edozein iruzkin. Mesedez, jo ezazu helbide honetara:
Contact@informedhealthchoices.org

*El desarrollo y la evaluación de los recursos del proyecto
Decisiones informadas en salud para la educación primaria recibió el apoyo de*



Informed Health Choices

www.informedhealthchoices.org